

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2052

52/2016 DEKRETUA, martxoaren 22koa, Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala behin betiko onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroak –Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babespean idatzi eta izapidetuak– behin betiko onartu ziren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez (otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua).

Gidalerro horietan, lurralde-plan partzialak idazteko esparruak zehazten dira, eta horien artean dago Mungiako eremu funtzionala.

Aipatutako legearen 2. eta 11. artikuluei jarraikiz, lurralde-plan partzialak nahitaez landu behar diren lurralde-antolamendurako tresnak dira. Ildo horretan, gidalerroen 22. kapituluko 7. zenbakian –aplikazio-arauei buruzkoan–, adierazten da oso garrantzitsua dela lurralde-plan partzialak ahalik eta arinen egitea, horrela, hirigintza- eta lurralde-irizpide osagarriak gehitzeko aipatutako gidalerroetakoei. Izan ere, horiei esker, udal-esparruko planen garapen doiagoa lor daiteke, eta lurralde-koherentzia handiagoa bermatzen da lurralde-plan sektorialak egiterakoan.

Lurralde-plan partzial hau Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13. artikuluan jasotako lantze- eta izapidetze-prozesu luze baten emaitza da; fase guztiak dauzka: aurrerapena, hasierako onarpena, behin-behinekoa eta behin betikoa. Horretan, lurralde-administrazio publiko ezberdinek parte hartu dute (tokikoek, foralak eta autonomikoak), bai eta aipatutako eremu funtzionaleko gizartearen espektro zabal batek ere.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 13.1 artikulua arabera, Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala formulatzeko ekimena Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokie, maila berean; beraz, beharrezkoa da bi administrazioen arteko koordinazioa, ekintzak egitean disfuntzionaltasunak saihesteko.

Helburu horrekin, 2006an, plan hori idazteko lanak hasi ziren, eta, lan horien jarraipena egiteko, koordinazio-mekanismoak ezarri ziren Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren artean.

Lurralde-plan partzial honen hasierako eta behin-behineko onarpenak Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak egiletsi zituen 2012ko azaroaren 27an eta 2014ko urtarrilaren 28an, hurrenez hurren.

Planaren edukiak erantzuna ematen dio Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 12. artikuluari, eta lurralde-plan partzialek jaso behar dituzten zehaztapenak jasotzen ditu. Planak zenbait neurri ezartzen ditu eta jarduera-proposamenak egiten ditu, helburu nagusi honekin: eremu funtzionalaren antolamendu integrala lortzea.

Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialak udal-mugarte hauek hartzen ditu: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungia. Plan honen helburua da, hamasei urteko denbora-horizonte baterako, eremu funtzionaleko lurraldearen lurralde-antolamendu jasagarria ezartzea, eremu funtzional horren lurralde-egitura eta -eredua zehaztuta.

Horrela, lurralde-antolamendu hori bete beharko dute udal-plangintzek, lurralde-plan sektorialek eta eremu funtzionalen eragina duten gainerako jarduerak.

Planaren lurralde-eredua helburu hauen inguruan egituratzen da:

- a.) Ekonomia berriaren euskarri izango den produkzio-eremua sortu eta artikulatzea.
- b.) Metropoli-multzoaren integrazio funtzionala hobetzea bideko garraioan –bestelako funtzioak ere betetzen ditu– eta garraio publikoan (batez ere trenbidearen arloan), intermodalitatea bultzatuz eta garraio-moten beste banaketa baten aldeko apustua eginez, zeinak ibilgailu pribatuarekiko mendekotasun txikiagoa izango baitu.
- c.) Bizitegi-eremua kontzentratzea, lurzoru-eskasiari eta eskari berri eta askotarikoei erantzunez, eta eskaintza zabalagoa izateko aukera handituz. Aukera hori dibertsifikatuta egongo da kokalekuari, tipologiei eta prezioei dagokienez.
- d.) Ingurumenari dagokionez baliotsua den eremua integratzea; izan ere, gaur inoiz baino gehiago, metropoli moderno eta lehiakor baten funtsezko osagaia da hori.
- e.) Zerbitzuak eta horien kalitatea ziurtatzea, ikuspegi zabal eta dibertsifikatuarekin, gutxieneko zerbitzuetara mugatu gabe eta ingurumen-ikusmolde zabal batetik.

Planak bere zehaztapenak azaltzen ditu Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 12.3. artikuluan ezarritako agirietan. Zehazki, besteak beste, antolamendu-arauak jasotzen ditu. Arau horietan ezarrita daude planak izaera arau-emailea ematen dien xedapen eta proposamen guztiak, eta dekretu honen I. eranskinean ageri dira, argitaratzeko.

Era berean, planarekin batera doa Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioko Azterlana ere. Ingurumen-araudian xedatutakoa betetzeko –2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legea, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gainera; 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duena, eta haren erregelamenduzko garapena den 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena– ingurumen-alderdiak planean txertatzeaz hartutako erabakiaren gaineko aginduzko adierazpena gehitu zaio dekretu honi II. eranskin gisa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskumena da plan honen behin betiko onarpena Gobernu Kontseilura eramatea, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.9. artikuluan xedatutakoa dela bide.

Gobernu Kontseiluaren eskumena da Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala behin betiko onartzea, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Beraz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez Gobernu Kontseiluak 2016ko martxoaren 22an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin betiko onartzea Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala. Antolamendu-arauak dekretu honen I. eranskin gisa doaz, eta ingurumen-alderdiak planean txertatzeari buruz hartutako erabakiaren adierazpena II. eranskin gisa doa.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Lurralde-plan partzial hau idazterakoan, une horretan indarrean zegoen udal-plangintza jaso da, eta beti informazio-izaerarekin; ondorioz, ulertuko da indarrean sartzen den egunera arte egin diren eguneratzeak edo aldaketak jasota daudela.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lurralde-plan partzial honen antolamendu-arauen eranskinek ere arau horiek osatzen dituzte, eta, beraz, gainerako artikuluen arau- eta betebeharrak bera daukate.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Plan hau indarrean jartzeko unean hasieran onartu ez diren lurralde-plan sektorialak formulatu eta aldatzeko dokumentuak egokitu egin beharko dira plan honetan jasotako zehaztapenetara, Mungiako eremu funtzionalari eragiten dioten alderdi guztietan.

Edonola ere, lurralde-plan partzial hau indarrean jartzean indarrean dauden lurralde-plan sektorialak egokitu egin beharko dira plan honetan xedatutakora, Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarrian aurrez ikusitakoa salbuetsita.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Mungiako eremu funtzionalean dauden udalerrietako hirigintza-dokumentuak, baldin eta plan orokorrak egiteko, berrikusteko edo aldatzeko prozesuetan badaude eta plan hau indarrean jartzeko unean hasieran onartu ez badira, plan honetan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira.

Edonola ere, indarrean dagoen udal-esparruko hirigintza-antolamendu orokorra plan honetan ezarritakoaren arabera egokitu beharko da, hura indarrean jarri eta bi urteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko epean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 22an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

. ERANSKINA, MARTXOAREN 22KO 52/2016 DEKRETUARENA

ANTOLAMENDU-ARAUAK

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialaren (LPP) xedea da, dagokion tresna orokor izaerarekin, eremu horren lurralde-antolamendu iraunkorra zehaztea, eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (LAL) eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak otsailaren 11n 28/1997 Dekretuaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamendurako Arteztarauak (LAA) legez egozten dioten egitekoari jarraiki, eremu funtzionalaren lurralde-egitura eta –eredua definitzea da, eta udal-plangintzek errespetatu egin beharko dute, baita Lurralde Plan Sektorialek (LPS) eta Eremu funtzionalean eragina duten gainerako jarduerak ere.

2. artikulua. Lurraldeko aplikazio-esparrua.

Mungiako eremu funtzionalaren LPPan zehaztutakoa Lurralde Antolamendurako Arteztarauen 20. Kapituluko 4.2 arauan zehaztutako lurralde-esparruan aplikatu behar da. Esparru honek ondorengo udalbarruti hauek barne hartzen ditu: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungia.

3. artikulua. Lurralde-plan partzialaren funtsezko edukia eta barne hartzen duen dokumentazioa.

1. Mungiako eremu funtzionalaren LPPan jasotakoa honako dokumentu hauetan zehazten da:

- Hirigintza-arloko Informazioa eta Diagnostikoa.
- Antolamenduaren memoria.
- Antolamendu-arauak
- Ekonomia eta Finantzako Azterketa eta Gauzatze-programa.
- Plangintzaren Gaineko Eraginen Dokumentua
- Informazio-planoak
- Antolaketa-planoak
- Ingurumeneko Eraginaren Baterako Ebaluazioa.

2. Mungiako eremu funtzionalaren LPParen arauketa-edukia Plana osatzen duten dokumentu guztietan jasotako zehazpenen multzoak osatzen du.

3. «Antolamendu Arau eta Plano»etan zehaztutakoak espezifikoki dauka arauketa-izaera eta loteslea da.

Gainerako dokumentuak informatzeko, erreferentzia gisakoak edo justifikatzeko besterik ez dira, funtsean, eta, beraz, horien eta arauketa-izaera duten dokumentuen edukiaren artean kontraesanik egongo balitz, azken horiek izango lirateke gailenduko liratekeenak.

4. artikulua. Interpretazioa.

1. LPP honetako Antolamendu-arauak beren hitzez-hitzezko idazketaren arabera eta beren testuinguruarekin alderatuz interpretatuko dira, Memorian adierazitako xede eta helburuak aintzakotzat hartuz.
2. Dokumentu grafikoan eta idatzizkoen artean kontraesanak baldin badaude, idatzizkoak hartuko dira kontuan.
3. Dokumentu grafikoan artean kontraesanak baldin badaude, lehentasuna izango du eskala edo xehetasun-maila handiena duenak. Hala ere, Antolamendu-planoak lehenetsiko dira gainerakoan gainetik.
4. Mungiako LPParen funtsezko edukia, udalaz gaindiko interesei dagokienez soilik, honela antolatu da:
 - Informazio-izaera duten zehaztapenak dira honako hauetan jasotakoak:
 - a) Lurraldearen egungo egoeraren eta egoera sozioekonomikoaren diagnostikoa, baliabide naturalen erabileraren, biztanleriaren eta indarrean dagoen hirigintza-plangintzaren analisia barne hartzen duena.
 - b) Esparru desberdinen garapen sozioekonomikorako aukerei buruzko azterlana.
 - c) Aurreko diagnostikoak eta azterlanek aipatzen edo erreferentzia gisa hartzen dituzten planoak eta gainerako irudikapen grafikoak.
 - Aplikazio zuzeneko edo Lurralde Plan Sektorialetera nahiz hirigintza-plangintzara zuzendutako erabakiak eta, horrenbestez, xedapenak hartzeko erabilitako irizpideak formalizatzen dituzten neurrian, informazio-xedapen hauek, xedapen-eraginkortasunik ez badute ere, oinarrizko elementuak eta beharrezkoak dira xedapen zuzentzaileek zehaztutakoa interpretatzeko eta aplikatzeko.
 - Xedapen zuzentzaileak irizpide, printzipio eta arau orokorrak edo bigarren mailakoak ezartzen dituztenak dira; lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamenduko beste tresna batzuek garatu edo zehaztu behar dituzte, eta herri-administrazio guztiek nahiz zuzenbide pribatuko subjektuek bete behar dituzte, lurraldean eragina duten jarduketetan.

Xedapen hauek gailendu egingo dira lurralde-plangintza sektorialeko eta hirigintza-plangintzako xedapenen gainetik, eta horiek xedapen zuzentzaileekin bat etorriaz interpretatu eta aplikatu beharko dira. Lotesleak dira Mungiako LPPa indarrean sartzen denetik aurrera onesten den edozein hirigintza-plangintzarentzat, hori lehenengo formulaziokoa edo aurretiazko planen bat aldatzekoa edo ikuskatzekoa izan arren. Xedapen horiek erabateko eraginkortasuna edukitzeko, ezinbestekoa da Lurralde Plan Sektorialak eta hirigintza-antolamendurako planak (kasuan kasukoa) garatuta eta zehaztuta osatzea.

Xedapen horiek Estatuko Administrazio Orokorraren edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenetan eragina dutenean, beren eraginkortasuna lurraldearen eta lurzuaren erabilerari buruzko edukira mugatuta dagoela ulertuko da (hegala eta lurpea barne).

- Bestalde, berehalako, zuzeneko eta erabateko aplikazioko xedapenak dira lurzoruaren erabilera legitimoa zuzenean ezartzen dutenak (hegala eta lurpea ere barne), eta baztertu egiten dituzte legearen arabera LPParen menpe dauden lurralde-antolamendurako instrumentuetan eta udalerrien edozein antolamendu-planetan jasotakoak, horiek kontraesankorrak direnean edo bat ez datozenean. Herri-administrazioek nahiz Zuzenbide pribatuko subjektu guztiek derrigorrez bete behar dituzte, aplikatu beharreko legerian xedatutako baldintzetan, lurra (hegala eta lurpea barne) edozein modutan erabiltzea edo erabiltzea eskatzen edo eragiten duen edozein jardueratan.

5. artikulua. Indarraldia eta eraginkortasuna.

1. LPPak iraupen mugagabea izango du, arauzko araua den neurrian; nolnahi ere, aldi baterako programatu ahalko da eta aldaketak edo berrikuspenak egin ahalko zaizkio, programaturikoak edo programatu gabeak.
2. Betearazpen Programa (lau urteko etapatan banatuta) derrigorrez jasotzeko baldintzari kalterik egin gabe, LPP honetan jasotako aurreikuspenak hamasei urterako egin dira.
3. LPP honetako xedapenen bat edo beste deuseztatzeak, indargabetzeak edo aldatzeak ez du gainerakoen baliozkotasunean eraginik izango, horiek (elkarren arteko erlazioa edo menpekotasuna direla tarteko) aplikagarriak baldin badira izan ezik.

6. artikulua. Publizitatea.

1. LPParen eduki osoa publikoa izango da.
2. Herritar guztiek, nahiz haiek eratutako erakundeek, LPPa kontsultatu ahal izateko eskubidea dute.
3. Foru Aldundiak beharrezko neurriak hartuko ditu aurreko zenbakian adierazi bezala herritarrek duten eskubidea bermatzeko, eta horretarako muga bakarrak prozedura judizialen edo administratiboen arabekoak izango dira, edo antolamendu juridikoak babesturiko datuen nahiz eskubide subjektiboak babestearen arabekoak.
4. Informaziorako eskubidea, bestalde, LPPko dokumentu guztietara hedatzen da (horietan jasotakoa informazioa edo xedapenak izan), baita horien eduki osora ere.

7. artikulua. Lurralde-plan partzialean aurreikusitakoa betetzen dela egiaztatzeko jarraipena.

1. LPParen aurreikuspenak eta xedapenak zein mailatan betetzen diren egiaztatzeko, lau urtez behin Memoria bat egingo da.
2. Memoria Lurralde Antolamenduan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko Sailak egingo du, eta, behar izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor berari lankidetzara eskatu ahalko dio.
3. Memoria horretan, xedapenak zein mailatan betetzen diren azalduko da, eta, egokia bada, identifikaturiko desdositzeak arintzeko edo aldatzeko behar diren proposamenak ere egingo dira.
4. Memoria, egiten bukatu ondoren, Lurralde Antolamendurako Batzordera bidaliko da, jakinarazita gera dadin.

8. artikulua. Aldaketa eta berrikuspena.

1. LPPa aldatu edo berrikusi ahalko da.
2. Berrikuspena honakoa dela ulertuko da: LPP osoan ezarritako antolamendu osoa edo lurralde-ereduko funtsezko elementuak honako arrazoi hauen ondorioz berriz aztertzea:
 - a) Irizpide berriak hartzea, lurraldearen egiturari edo lurralde-ereduari dagokionez.
 - b) Lurraldearen egiturari edo eredu horretan eragina duten egoera berriak sortzea, baldin eta horiek LPPan harturiko hipotesiak aldatzen badituzte, biztanleriaren oinarritzko magnitudeei, enplegu-dinamikari edo etxebizitza-merkatuari dagokienez, eta horren eraginez ordura arteko antolamendu-irizpide orokorrak aldatu behar badira.
 - c) Daukan gaitasuna agortzea.

Berrikuspena eginez gero, LPPa guztiz ordeztu behar dela zehaztu ahalko da.

LPParen berrikuspena, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 13. artikuluan ezarritako plangintza-instrumentu horren formulazio- eta onespen-prozeduraren arabera egingo da.

Nolanahi ere, planaren indarraldian bereizten den eta zortzi urteko iraupena duen lehenengo fasea igarotakoan, LPPa berrikusi egingo da.

- 3 Aldatzea honakoa dela ulertuko da: LPParen berrikuspenaren definizioan jaso ez diren eta plana eraldatzea eragiten duten gainerako kasu guztiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera (lege-testu horretako 10.10 artikulura jota), LPPa aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak horretarako ezarritako prozedura bete beharko da. Funtsezkoak ez diren LPParen aldaketak abenduaren 9ko 206/2003 Dekretuan ezarritako prozeduraren bidez egingo dira (EHAA, 185. zenbakia)

LPPa edozein unetan aldatu ahalko da. Hala eta guztiz ere, aldaketa guztiak interes orokorreko arazoietan oinarrituko dira, eta, horrez gain, aldaketen edukia eta irismena xeheki azaldu beharko dira; halaber, justifikatu egin beharko dira. Zentzu horretan, beharrezko xehetasunarekin ebaluatuko dira aldaketek LPPan jasotako aurreikuspenetan dituzten ondorioak, biztanleriari, enpleguari, zuzkidurei eta azpiegiturei dagokienez.

Aldaketa guztiek zerikusia izango dute eragin dituen zergatiarekin, eta Planaren aldaketei buruzko espedientean ezin izango da sartu zergati horrekin lotu gabeko aldaketarik, ezta egindako deskripzio eta justifikazioetan jaso gabekorik ere.

9. artikulua. Udal plangintzak LPPan zehaztutakora egokitzea.

1. Udalbatzak egoki iritzitako agiri honen alderdiak sartu ahal izango dira gaur egun indarrean dauden udalerrietako plangintzetan; horretarako, plangintza berrikusiko da, edo dagokion aldaketa puntuala garatuko da, kasuaren arabera
2. Plangintza orokorrean jasoko dira lurraldea egituratzen duten errepide-proposamen egituratzaileak, etxebizitzetarako (gehienezko etxebizitza-kopurua udalerriko) eta jarduera ekonomikoetarako (eskualde-izaerako lurzoruaren gehienezko hektarea kopurua) lurzoru-eskaintzaren dimentsionamendu zehatza, baita ekipamenduen, espazio libreen eta beste azpiegitura batzuen arloan maila horrekin ezarritako azpiegiturak ere; eta hori guztia, plangintza-maila horri dagozkion proposamen guztien definizio osagarriari kalterik egin gabe.
3. LPP hau indarrean sartzen denerako hasierako onarpena ez duten hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak garatzeko plangintzek derrigorrez bete beharko dute LPP honetan xedatutakoa, beren esparruan eragina izan dezakeen mailan, udal-plangintza horiek berrikusten ez badira.

I. TITULUA**MUNGIAKO ARLO FUNTZIONALAREN LURRALDE-EREDUA DEFINITZEKO
OINARRIZKO ARAUAK****1. KAPITULUA.****XEDAPEN OROKORRAK****10. artikulua. Helburu orokorrak.**

1. LPParen lurralde-eredua ondorengo helburu hauek baldintza orokor gisa hartuz egituratzen da:
 - a) Ekonomia berriaren oinarria izango diren ekoizpen-aldeak sortu eta antolatzea.
 - b) Metropoliaren integrazio funtzionala hobetzea, bai bideko garraioari dagokionez (beste funtzio batzuk betetzen dituen), bai garraio publikoaren kasua (trenbidea lehenetsiz), modalitate-artekeo esparru batean eta banaketa modal berriaren alde apustu eginez (hau da, ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun txikiagokoa).
 - c) Egoitza-esparrua kontzentratzean, hartara, lurzoruaren urritasunari, eskari berriei eta askotarikoei erantzuteko, eta, era berean, lekuaren, tipologiaren eta salneurriaren araberako dibertsifikazioa egin ahal izango da.
 - d) Metropoli moderno eta lehiakor baten ingurumen-esparru baliotsua integratzea, gaur egun inoiz baino ezaugarri garrantzitsuagoa baita.
 - e) Zerbitzuak eta haien kalitatea bermatzea zerbitzu horien ikuspegi zabalean eta dibertsifikatuan oinarrituz, gutxieneko zerbitzuentzat mugatu gabe eta ingurune ikuspegi zabalarekin.

11. artikulua. Edukia.

1. Mungiake eremu funtzionalaren LPPak esparru horretarako lurralde-eredua ezartzen du, eta, horretarako, bere zehaztapenetan ondorengo alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - a) Antolamendu helburuen definizioa, lurraldearen egungo egoeraren, egoera sozioekonomikoaren eta dauzkan bilakaera-aukeren analisisian oinarritua.
 - b) Beren ezaugarrien arabera, azpiegitura handientzako euskarri gisa erabiltzeko egokiak diren espazioak adierazi behar dira.
 - c) Planaren helburu den eremu edo arlorako interes komuneak diren ekipamenduen definizioa.
 - d) Hirigintza antolamenduak bete behar dituen irizpide, oinarri eta arau orokorrak.
 - e) Hondatzea ekiditeko edo guztiz edo zati batean desberdinak diren erabileretarako berreskuratzeko moldatu, birgaitu edo berriz eraiki behar diren espazioen definizioa, baita horretarako garatuko diren programak eta horiek gauzatzea eragitera bideratutako laguntza-neurrien definizioa ere.

- f) Edozein kasutan ere honako helburu hauetarikoren baterako erreserbatu behar diren lurzoru azalaren kuantifikazioa:
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza, sustapen publiko nahiz pribatuena, edo etorkizunean arauketa espezifikoaren bitartez azken prezioan muga daitekeen beste edozeinena.
 - Udal lurzoruaren sustapen publikoa poligono urbanizatuak eratu ahal izateko.
- g) Lurralde Antolamendurako Arteztarauetan jasotako zehazpenak garatzeko beharrezkoak diren irizpide, arau eta printzipioak.

2. KAPITULUA

LURRALDE-EREDUAREN OINARRIAK

12. artikulua. Lurralde-ereduaren Definizioa.

1. Eremu funtzionalaren lurralde-antolamendua araudi honetan eta planoetan jasotako funtsezko zehaztapenetan adierazitakoaren arabera formulatzen da; zehaztapen horiek osoki eta hierarkizatuta oinarritzen eta/edo ezartzen dute lurraldearen definizio fisikoa eta funtzionala.
2. LPPa antolamendurako esparru orokor eta erreferentzia zehatz bat da, eta honako hauen arabera definitzen da:
 - Antolamenduaren Helburu Orokorrak.
 - Antolamenduaren oinarriak, irizpideak eta oinarritzko zehaztapenak.
3. Lurralde-eredua LPParen oinarritzko antolamendu-zehaztapen guztiek definitzen dute. Zehaztapen horiek lurzoruari erabilerak esleitzeko jarraibide nagusiak ezartzen dituzte, baita helburu bereziak, irizpideak, soluzioak eta ekintza garrantzitsuak eta adierazgarriak definitzeko eta arautzeko xedapenak ezarri ere. Lurralde-ereduan jasota dago, halaber, Lurralde Antolamendurako Arteztarauetan bildutako kontzeptuak eta printzipioak eremu funtzionalari zehazki aplikatzeko era.
4. Lurralde-eredua ezinbesteko erreferentzia da antolamendu-soluzio zehatzak eta lurraldearen gaineko esku-hartzea ezartzeko, dela zuzenean, dela lurralde- eta udal-plangintzen bitartez, betiere lurraldea osotasunean hartuta.
5. Lurralde-eredua bakarra eta integrala da, baina bere alderdi eta osagai garrantzitsuenen arabera zatituta, ongi interpretatu eta ulertzeko; honako eduki-multzo hauek honela definitzen dira:
 - Ingurune Fisikoa
 - Egoitzen Sistema eta Jarduera Ekonomikoena
 - Lurralde Biguna
 - Mugikortasuna

- Zerbitzuen Oinarrizko Azpiegiturak
 - Eskualdeko Ekipamenduak.
6. LPParen Ereduan jasotako proposamen guztien garapen-dokumentuek, Itsasoko edo Lurreko jabari Publikoaren eraginpean edo babes eta igarotzen zortasunaren menpe daudenek, kontuan hartu beharko dituzte Kostaldean Legeko 22/1988, III. eta II. Tituluetan, hurrenez hurren, ezartzen dituen mugak, bai eta *2/2013 Legean, maiatzaren 29koan, itsasbazterraren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzen duenean*, aintzat hartutako aldaketak ere.

II. TITULUA

INGURU FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

13. artikulua. Kontzeptua.

Titulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, inguru naturalak eta landakoak eremu funtzionaleko lurzoru-azalera guztiak barne hartzen ditu, zehazki, udalaren hirigintza-plangintzan herri-lurzoru urbanizagarriari edota azpiegituretarako eta sistema orokorretarako erreserben menpe dauden lurzoru gisa adskribatuta ez daudenak. LPP honetako proposamenek hartutako lurzoruak ere ez dira jasotzen.

14. artikulua. Ingurune Fisikorako Lurralde Eredua.

1. Ingurune Fisikoa Antolatzeko proposamena memoriaren dokumentuan deskribatzen da, eta Titulu honen bitartez arautzen da.
2. LPP honetan proposatutako lurralde-ereduak Ingurune Fisikoaren antolamendua ezartzen du elementu hauen bitartez:
 - a) Antolamendu-kategoriak
 - b) Gainjarritako Baldintzak
 - c) Ingurumena Hobetzeko Jarduerak
 - d) Natura-ingurunearen Osagai Azpimarragarriak
3. Lurralde-ereduaren antolamenduaren proposamen grafikoa, Ingurumenari buruzkoa, ondorengo Antolamendu-plano hauetan zehazten da:
 - O-01 Ingurune Fisikoa: Antolamendu-kategoriak
 - CS-01 - CS-09 Ingurune Fisikoa: Gainjarritako Baldintzak
 - MA-01: Ingurumena Hobetzeko Jarduerak
 - CN-01 - CN-3: Natura-ingurunearen Osagai Azpimarragarriak.

2. KAPITULUA

ANTOLAMENDU-KATEGORIAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

15. artikulua. Kontzeptuak.

LPP honen ondorioetarako, ingurune fisikoaren Antolamendu-kategoriak esparru homogeenok dira beren ingurumen-ezaugarrien arabera, eta bakoitzari beren baliabideen iraunkortasunarekin bat datozen erabilera batzuk egozten zaizkio.

2. ATALA

APLIKAZIO-ERREGIMENA

16. artikulua. Kategorizazio-proposamena.

1. Mungiako eremu funtzionalaren LPPak, lurzoru urbanizaezinaren esparruari dagokionak, Ingurune Fisikoaren Antolamendu-kategoria hauek ezartzen eta definitzen ditu, eta aurretik bi multzotan banatzen ditu:

1.1. I. multzoa: Ingurune Naturala, Biodibertsitatea eta Oinarrizko Sistema Ekologikoak Babestu eta Kontserbatzeko Eremu Bereziak edota Lehentasunezkoak.

LPP honen ondorioetarako, multzo honek Mungiako eremu funtzionalean Natura Babesteko eta Biodibertsitatea Berreskuratzeko lehentasunezkoak eta estrategikoak direlako aukeratutako esparru batzuk biltzen ditu.

Multzo honen barruan, zenbait Lurzoruaren Antolamendu Eremu bereizten dira:

- A.1 EAEko babes-eredu propioak dauzkaten Inguru Naturalak
- A.2 Babes Berezia
 - A.2.a Kostaldea eta Sollube-Garbolako troka
 - A.2.b Lurrazaleko Uren Babesa. Butroe ibaiaren ibarretako ibai-sistema.
- A.3 Paisaia- eta Entretenimendu-mailako Interesa
- A.4 Gainazaleko Uren Babesa.

1.2. II. multzoa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basogintzako Baliabideak dauzkaten Lurzoruaren Babes-eremuak.

LPP honen ondorioetarako, multzo honek nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako baliabideak modu iraunkorrean aprobetxatzeko gaitasun desberdinak dituzten lurzoruak barne hartzen ditu.

Mungiako nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako lurzoruak ondorengo antolamendu-kategoria hauetan bereizi dira:

- Basogintza (F)

- F.1 Basogintzako Mugekin
 - F.2 Basogintzako Produktiboa
 - Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabal guneak (C)
 - C.1 Balio Handiko Landazabala.
 - C.2 Nekazaritzarako Landazabal Arrunta.
2. Udal-plangintza orokorrak LPP honetako kategorizazio-proposamenak errespetatuko ditu eta ingurune fisikoan zonakatzeko proposamen egokiak garatuko ditu O-01 Ingurune Fisikoa: Antolamendu-kategoriak Planoan berariaz mugatutako lurralderako, kalterik egin gabe behar bezala justifikatutako beste azpi-kategoria batzuk zehazteko edo udal-antolamenduaren eskalan proposatutako mugak aldatzeko aukerari.

17. artikulua. Erabileren eta jardueren erregulazioa.

1. Beren sektore-legeria propioa duten esparruak legeria horren arabera arautzen dira.
- Esparru Funtzionalean jasotako Babes Naturalen Inguruen esparrua kasuan kasuko Baliabide Naturalen Antolamendurako Planen (BNAP) edo Erabilerak eta Kudeaketa Plan Artezkarien (EKPA) arabera arautzen da, eta LPPTik planteatzen den lurzoruaren antolamendutik kanpo geratzen dira.
2. Gainerako esparruan Kategoria desberdinetan arautzeko, Arau hauetako II. eranskinean jasotako antolamendu-matrizea, erabileren sailkapen hau ezartzen da, bere erlazio-erregimenaren arabera:
1. Sustatua: kasuan kasuko lurzoruen berezko helburuari zuzenean lotuta dauden erabilerak; lurzoruen funtzionamendu egokirako eta kudeaketa iraunkorrerako lagungarriak dira.
 2. Onargarria: erabilera hauei dagokienez, udalak lurzoru hauen onargarritasuna erabaki dezake, baina aldeztatik eskaera xehea eta proiektuaren ingurumen-ondorioen analisia egin behar dira.
 3. Debekatua: lurraldearen kudeaketa iraunkorrerako ezegokitzat jotzen direla-eta Lurralde Plan honetan berariaz onartuta ez dauden erabilerak.
 3. LPPak, gainera, erabilera jakin batzuk onartuak izateko baldintza batzuk ezartzen ditu: erabilera horiek baimentzen dira, aldeztatik planaren, programaren edo proiektuaren ingurumen-ondorioei buruzko analisi bat egiteko baldintzapean. Analisi horrek beste kokapen posible batzuei buruzko azterketa zorrotz bat ere egin behar du, ingurumen-aldagaiak kontuan hartuz.
- Horrez gainera, balio altuko landazabalari eragiten badiote, baserri-jardueraren gaineko ebaluazio-protokoloa egitea beharrezkoa izango da, Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak jasotzen dituen baldintzetan.
4. LPP honetan jasotako esku-hartze erregimena udal-plangintzek errespetatu egin beharko dute, eta xehekiago garatu ahalko dute.

3. ATALA

I. MULTZOA: INGURUNE NATURALA, BIODIBERTSITATEA ETA OINARRIZKO SISTEMA EKOLOGIKOAK BABESTU ETA KONTSERBATZEKO EREMU BEREZIAK EDOTA LEHENTASUNEZKOAK

18. artikulua. EAEko babes-eredu propioak dauzkaten Inguru Naturalak (A.1).

1. Kategoria honetan jasotzen dira Urdaibaiko Biosferaren Erreserba eta garrantzi autonomikoko interes naturalistiko eta ekologikokoak direlako Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Inguru Natural Babestuen Sarearen barruan dauden eremuak. Horien antolamendua eta esku-hartze erregimena sektorean aplika daitekeen legerian ezarritakoak izango dira.
2. O-01 Inguru Fisikoa. Antolamendu-kategoriak planoan grafiatutako esparru hauek barne hartzen ditu:
 - a.1.1 Urdaibaiko Biosferaren Erreserba eta Urdaibaiko ibai-sarearen KBE
 - a.1.2 Gaztelugatxeko Biotopo Babestua, KBE eta HBBE
 - a.1.3. Uribe Kosta-Butroeko eremu babestuaren proposamena.
3. Eremu horien plangintza araupetzeko, egungo legeria espezifikoa bete beharko da.
4. Kostaldeko LSParen Babes Bereziko eremuak, Ingurumena hobetzea eta Hiri-hondartzak, zehazki, a.1.2 esparruan daudenak, LSP horren zehazpenen arabera arautuko dira.
5. Dagokion Natura Baliabideen Antolamendu Planak Uribe Kosta-Butroen egingo den espazio babestua behin betiko mugatzen eta arautzen ez duen artean, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko irailaren 3ko Aginduaren, Uribe Kosta-Butroeremuko Natura Baliabideen Antolamendu Plana eta Eremu Hezeen Lurralde Plan Sektoriala egiteko prozedura hasten duenaren, araudia aplikatuko da.

19. artikulua. Babes Berezia (A.2).

1. Bi azpikategoriatan dago banatuta kategoria, zedarrituriko eremuei datxekien ezaugarrien arabera:
 - A.2.a Kostaldea eta Sollube-Garbolako troka
 - A.2.b Lurrazaleko Uren Babesa. Butroe ibaiaren ibarretako ibai-sistema.
2. A.2.a Kostaldea eta Sollube-Garbolako troka: azpi-kategoria honek, bere zedarripenean barne hartzen ditu batasunaren garrantzizko habitat natural edota Direktiba Habitaten jasotako lehentasunezkoak, baita mehatxu-mailaren batekin katalogatuta dauden eta babes-neurri bereziak behar dituzten animalia eta landare basatien populazioen banaketa potentzialeko eremuak ere. Kategoria honen barruan jasotzen dira, era berean, EAEko Interes Naturalistikoko eremu eta arloen Katalogo irekia. (XXI.Kap., LAA 3. eranskina).
3. A.2.b Lurrazaleko Uren Babesa. Butroe ibaiaren ibarretako ibai-sistema: azpi-kategoria honetan jasotzen da Butroe ibaiko sistema, baita horrekin lotutako habitat naturalak ere, horietako batzuk interes komunitariokoak eta lehentasunezkoak dira: itsasadar gazikarako, ibilguko eta ur-inguru gezako padurak, haltzadiak eta erribera bazterretako basoa, ibar alubialak putzuz bete ohi diren

larre eta ihitzetan, areketako hezegune periflubialak, sakonera txikiko sakonuneak eta ubideak, etab.

4. O-01 Inguru Fisikoa. Antolamendu-kategoriak planoan grafiatutako esparru hauek barne hartzen ditu:

- a.2.1 Bakioko Kostaldea
- a.2.2 Sollube-Garbolako Sakanak
- a.2.3 Butroeko Goi-ibarreko tartea (Mungia-Arratia)
- a.2.4 Ibarreko goialdeko tartea (Gamiz-Fika eta Mungia)
- a.2.5 Butroeko Itsasadarra
- a.2.6 Ibarreko beheko tartea (Gatika eta Maruri).

5. Kostaldeko LSParen Babes Bereziko eremuak, Ingurumena hobetzea eta Hiri-hondartzak, zehazki, a.2.1 esparruan daudenak, LSP horren zehazpenen arabera arautuko dira.

EAEko Gune Hezeen Lurralde Plan Sektorialak zehazturiko II. taldeko gune hezeak, a.2.6. eremuan daudenak, LPS horren zehaztapenekin araupetuko dira.

Bi azpikategorietako gainerako eremua arau hauetan ezarritakoaren arabera araupetuko dira.

6. A.2.a Kostaldea eta Sollube-Garbolako troka: LPPak LAAetatik Babes Bereziko kategoriarako ezarritako erabileren erregimena jasotzen du. Hala ere, kontuan hartutako erabilerak xehetasun gehiagorekin definitzean, ñabardura hauen ezartzen dira:

- LPPak araubide zorrotzago bat ezartzen du, eta «onargarria baldintzekin» izatetik “debekatua” izatera igarotzen da kontuan hartutako jarduera babes-erabilerarekin bateraezin gisa aurreikusten denean. Erabilera hauetarako zehazten da:
 - B1.1 Kirol-jarduerak naturan.
 - C3.3 Abeltzaintza intentsiboa.
 - C5.2 Ekoizpenerako basogintzako erabilera.
 - C4.5.3 Basogintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak.
 - C5.6 Basogintzako birpopulazio aloktonoa.
 - D5.1 Dorreak, antenak, irrati emisioak igortzeko nahiz jasotzeko instalazioak, etab.
 - D5.2 Aparkaleku txikiak (< 50 ibilgailu).
 - E3.2 Onura publikoko edo gizarte-intereseko eraikuntzen hondarrak.
- LPPa “onargarria baldintzekin” izatetik “sustatua” izatera igarotzen da ingurumen-hobekuntza bat eragiten duten jardueretan. Erabilera hauetarako zehazten da:
 - C5.1 Baso-erabilera: autoktono masak erabiltzeari eta kontserbatzeari lotutako erabilerak.
 - C5.4 Nekazaritzako lurzoruak espezie autoktonoen basogintzako lurzoru bihurtzea.
 - C5.5 Espezie aloktonoak pixkanaka kentzeko eta haien ordeztako espezieak jartzeko basogintzako erabilera.

7. A.2.b Lurrazaleko Uren Babesa. Butroe ibaiaren ibarretako ibai-sistema: kategoria honetako gainerako esparruetarako, LPP honek ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Butroeko Ibarreko Ibai-sistamarako:

1 Sustatutako erabilerak:

- Kontserbazioa.
- Ingurumenaren Hobekuntza.
- Abeltzaintza estentsibo.
- Basogintzako erabilera: kudeaketa iraunkorreko teknikak dituzten basogintza-aprobetxamenduak, eta Espezie exotikoak autoktonoekin ordezkatuz eta desagerraraziz joateko basogintza-jarduera.

2 Baimendutako erabilerak:

- Kontserbazioa: zientzia- eta ikerketa-jarduerak.
- Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.
- Nekazaritza: nekazaritza-ustiapenarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak (baldintzekin onargarritzat jotakoak izan ezik); nekazaritza-ustiapenekin lotutako praktikak (debekatutzat jotakoak izan ezik).
- Berotegiak: familiako berotegiak instalatzea.

2* Erabilera onargarriak, baldintzekin:

- Nekazaritza: nekazaritza- eta dagoen abeltzaintza- ustiapenari loturiko etxebizitza (1) eta debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
(1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritako araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe, hain zuzen erabilera horretarako eraikuntza berrietarako lizentziak emateari dagokionez.
- Abeltzaintza: lagundutakotzat edo debekatutzat jotzen ez direnak, baita dagoen nekazaritzako eta abeltzaintza-ustiapenari lotutako etxebizitza ere (1)
(1) Lurzorua eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 31. artikuluan erabilera horretarako oin berriko eraikinen baimenak ematearekin lotuta aurreikusten den araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe.
- Akuikultura.
- Basogintzako erabilera: bertako baso-masak erabiltzeko eta kontserbatzeko helburua duten baso-jarduerak dituzten basogintzako erabilera; Nekazaritzako lurzorua bertako espezedun baso-lurzoru bihurtzea.
- Garraiorako bideak: Basoko pista eta bide berriak.
- Lurpeko zerbitzuen lineak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: energia berriztagarriak ekoizteko instalazioak (1); Hondakin-uren araztegiak.
(1) baso-biomasako instalazioak izan ezik (ekonomia-jardueren industriaguneetan kokatu beharko dute zentral horiek) eta abeltzaintzako hondakinen zentralak (abeltzaintza intentsiboa erabilera onargarritzat hartzen den lekuetan soilik baimenduko dira).
- Erabilera publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak: harrera- eta informazio-zentroak, ekomuseoak, akuarioak eta antzekoak.

3 Erabilera debekatuak:

- Aisi estentsiboa
- Aisi intentsiboa
- Nekazaritza: Maila freatikoa aldatzea betegarriengatik, drainatzeengatik,

- Berotegiak: Berotegi industrialen instalazioa
 - Abeltzaintza: Abeltzaintza Intentsiboa
 - Basogintzako erabilera: onargarriak baldintzekin edo sustatuzat jotzen ez diren erabilerak
 - Nekazaritzako eta basogintzako industriak
 - Aterakuntzazko jarduerak
 - Aireko lineak
 - A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak, onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik
 - B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak
 - Betegarriak, Hondakin solidoen zabortegiak eta hondakindegia
 - Aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hirigintza-hazkundeak
 - Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak
 - Onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak, onargarriak baldintzekin gisa jotzen direnak izan ezik
 - Egoitza isolatua
 - Instalazio arriskutsuak.
8. Sollube-Garbolako kostaldeko frontearen eta ibarbideen esparruan eta Lurrazaleko Uren Babesa-Butroiko ibarren ibai-sistemaren esparruan, paisaia eta natura-ingurunea babesteko eta hobetzeko, eta landa-ingurunea zaintzeko plan bereziak garatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c) artikuluan emandako definizioaren arabera. Bakioko kostaldeko frontearen eremurako, Plan Berezi baten ordean Mendien Antolamendu Plan bat egin ahal izango da. Lurralde Plan Partzial honetan ezarritako araudiak aplikatuko dira esparru bakoitzean.
9. Dagozkien Udalek izango dute Plan Bereziak idazteko ardura, edo Foru Aldundiak, Butroeko ibarren kasuan eta Sollube-Garbola ibarbideen kasuan plan bakar bat ezarriz gero, edo Basoko Antolamendu Plan bat, Bakioko kostaldeko frontearen kasuan.

20. artikulua. Paisaia- eta Entretanimendu-mailako Interesa (A.3).

1. Kategoria hau aplikatzen zaie legalki babesturik ez dauden baina halere LPParen eremu funtzionalaren esparruan zenbait alderdiren pilaketaren ondorioz eskualde eta tokiko mailan nolabaiteko interesa duten arlo jakin batzuei, alderdi horiek honakoak izan daitezke, besteak beste: bere paisaia-arloko interesa, bere ingurumen-sentsibiltatea eta potentzialtasun ekologiko-naturalistikoa, aisia eta entretanimenduarekin lotuta daukan erakargarritasuna eta naturara sarrera publikoa eta aisialdikoa antolatzeko daukan gaitasuna.
2. O-01 Inguru Fisikoa. Antolamendu-kategoriak planoan grafiatutako esparru hauek barne hartzen ditu:
 - a.3.1 Arritabane-Jata-S.Miguel-Tallu-Linebaso Iparraldeko Zubia
 - a.3.2 Unbe-Berreaga-Gamizmendiko Hegoaldeko Zubia
 - a.3.3 Sollube-Irugane-Kurtzegañe-Arkotxamendiko Ekialdeko Zubia
 - a.3.4 Morterondoko basoa
 - a.3.5 Butroeko Gaztelua eta haren ingurua.

3. LPPak ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Paisaia- eta Entretenimendu-mailako Interesa kategoriarako:

1 Sustatutako erabilerak:

- Kontserbazioa.
- Ingurumenaren Hobekuntza.
- Aisi estentsiboa, Onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik.
- Abeltzaintza: abeltzaintza estentsibo.
- Basogintzako erabilera: basogintzako babes-erabilera, masa autoktonoak erabili eta kontserbatzera bideratutako basoko jarduerekin; Espezie exotikoak autoktonoekin ordezkatzuz eta desagerraraziz joateko basogintza-jarduera.

2 Erabilera onargarriak:

- Kontserbazioa: zientzia- eta ikerketa-jarduerak.
- Astialdi estentsiboa, onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik.
- Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.
- Nekazaritza: nekazaritza-ustiapenarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak (baldintzekin onargarritzat jotakoak izan ezik); nekazaritza-ustiapenekin lotutako praktikak (debekatutzat jotakoak izan ezik).
- Berotegiak: familiako berotegiak instalatzea.
- Lur azpiko lineak.

2* Erabilera onargarriak baldintzekin:

- Aisi estentsiboa: kirol-jarduerak naturan (uretako jarduerak, ekitazioa, txangozaletasuna eta antzekoak alde batera utzita).
- Aisi intentsiboa, debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
- Nekazaritza: nekazaritza- eta dagoen abeltzaintza- ustiapenari loturiko etxebizitza (1) eta debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
(1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritako araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe, hain zuzen erabilera horretarako eraikuntza berrietarako lizentziak emateari dagokionez.
- Abeltzaintza: dagoen nekazaritzako eta abeltzaintza-ustiapenari lotutako etxebizitza (1) eta debekatutzat jotzen ez direnak.
(1) Lurzorua eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 31. artikuluan erabilera horretarako oin berriko eraikinen baimenak ematearekin lotuta aurreikusten den araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe
- Akuikultura
- Basogintzako erabilera: basoko ekoizkinen ustiapenera bideratutako baso-erabilerak barne hartzen duten basogintzako erabilera produktiboa; Nekazaritzako lurzorua eraldatzea eta basogintzako espezie autoktonoen lurzoru bihurtzea; eta Basogintzako birpopulazio aloktonoa.
- Garraiorako bideak: basoko pista eta bide berriak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: ura tratatzeko lantegiak eta biltegi handiak eta urtegiak; Hondakin-uren araztegiak; Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak (1).

(1) baso-biomasako instalazioak izan ezik (ekonomia-jardueren industriaguneetan kokatu beharko dute zentral horiek) eta abeltzaintzako hondakinen zentralak (abeltzaintza intentsiboa erabilera onargarritzat hartzen den lekuetan soilik baimenduko dira).

- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: aparkaleku txikiak (<50 ibilgailu).
- Erabilera publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak: harrera- eta informazio-zentroak, ekomuseoak, akuarioak eta antzekoak.

3 Erabilera debekatuak:

- Aisi intentsiboa: kanpinak
- Nekazaritza: Maila freatikoa aldatzea betegarriengatik, drainatzeengatik, etab.,
- Berotegiak: Berotegi industrialen instalazioa
- Abeltzaintza: Abeltzaintza Intentsiboa
- Basogintzako erabilera: onargarriak baldintzekin edo sustatutzat jotzen ez diren erabilerak
- Nekazaritzako eta Basogintzako industriak
- Aterakuntzazko jarduerak
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak, baldintzekin onargarritzat jotakoak izan ezik.
- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: Dorreak, antenak, irrati-estazio igorleak eta hartzaileak eta abar
- Betegarriak, hondakin solidoen zabortegiak eta hondakindegia
- Aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hirigintza hazkundeak
- Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak
- Onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak, onargarriak baldintzekin gisa jotzen direnak izan ezik
- Egoitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak.

21. artikulua. Gainazaleko Uren Babesa (A.4).

1. Gainazaleko Uren Babes kategoriaren barruan, LPParen ondorioetarako, ibilgu guztiak sartzen dira; baita EAEko Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako LSPan egituratzeko eta zonakatzea egiteko ezarrita dauden gutxieneko distantziak aplikatzearen ondoriozko babes-eremuak ere.
2. Katgoria honen esparru fisikoa lurraldearen sare hidrografikoaren trazadura jarraitura mugaturik geratzen da, eta Butroe eta Estepona ibaien arroen artean banatzen da, eta grafiatuta geratu da O-01 Inguru Fisikoa: Antolamendu-kateak planoan.
3. LPPak ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Gainazaleko Uren Babesa kategoriarako, EAEko Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako LSPan ezarritako esku-hartze erregimena aplikatzeko aukerari kalterik egin gabe, LPP honetan zehaztutakoaren ondoriozko muga handiagoak errespetatuz:
 - 1 Sustatutako erabilerak:
 - Kontserbazioko erabileren baitan: kontserbazio zorrotza eta/edo aktiboa.
 - Ingurumenaren Hobekuntza.

- Basogintzako erabilera: basogintzako erabilera, masa autoktonoak erabili eta kontserbatzera bideratutako basoko jarduerekin; Nekazaritzako lurzoruak espezie autoktonoak dauzkaten basogintzako lurzoru bihurtzea, eta Espezie exotikoak autoktonoekin ordezkatzuz eta desagerraraziz joateko basogintza-jarduera.
- 2 Baimendutako erabilerak.
- Kontserbazioa. Zientzia- eta ikerketa-jarduerak.
 - Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.
 - Nekazaritzako erabileren baitan: nekazaritza-ustiapenekin lotutako praktikak (debekatutzat jotakoak izan ezik).
 - Berotegiak: familiako berotegiak instalatzea.
 - Abeltzaintza: abeltzaintza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak
- 2* Erabilera onargarriak baldintzekin:
- Abeltzaintza, debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
 - Akuikultura.
 - Garraiorako bideak: basoko pista eta bide berriak.
 - Aireko lineak.
 - Lurpeko zerbitzuen lineak.
 - A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: edateko uren araztegiak eta ura tratatzeko instalazioak, eta urtegiak edo ur-biltegi handiak; Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak (1); Hondakin-uren araztegiak.
- (1) baso-biomasako instalazioak izan ezik (ekonomia-jardueren industriaguneetan kokatu beharko dute zentral horiek) eta abeltzaintzako hondakinen zentralak (abeltzaintza intentsiboa erabilera onargarritzat hartzen den lekuetan soilik baimenduko dira).
- Erabilera publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak: harrera- eta informazio-zentroak, ekomuseoak, akuarioak eta antzekoak.
- 3 Erabilera debekatuak:
- Aisi estentsiboa: kirol-jarduerak naturan
 - Aisi intentsiboa.
 - Nekazaritza, onargarritzat hartutakoak izan ezik.
 - Berotegiak: berotegi industrialen instalazioa.
 - Abeltzaintza, onargarritzat hartutakoak edo onargarritzat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
 - Basogintza: masak ustiatzeko helburua duten baso-jardueradun basogintzako erabilera; basogintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak; Espezie aloktonoen basoberritze berriak.
 - Nekazaritza- eta basogintza-industriak.
 - Aterakuntzazko jarduerak.
 - Garraiorako bideak, Onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik.
 - A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak, baldintzekin onargarritzat jotakoak izan ezik.

- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak.
- Betegarriak, Hondakin solidoen zabortegiak eta hondakindegia.
- Aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hirigintza hazkundeak.
- Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak.
- Onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak.
- Egoitza isolatua.
- Instalazio arriskutsuak.

4. ATALA

II. MULTZOA: NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA ETA BASOGINTZAKO BALIABIDEAK DAUZKATEN LURZORUEN BABES-EREMUAK.

22. artikulua. Basogintza (F).

1. Basogintzako kategorian sartzen dira beren egungo erabileragatik edota izan dezaketen erabileragatik (malda, arriskuak, arrozen babes, eta abar) basogintzan erabiltzeko joera garbia erakusten duten lurak.

Ez dira kategorian honetan sartzen gaur egun basogintzako landaketekin behar ez bezala okupatuta dauden eta nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera posible argia duten arlo batzuk.

2. LPP honek bi azpi-kategoria ezartzen ditu:

- F.1 Basogintzako Mugekin: produkziarako mugarik handienak dituzten basoko lurzoruetarako zehazten da, eta mugak arrazoi hauengatik dituzte: ahalezko arrisku naturalak edukitzea (aldapa handiak eta higadura-arriskua), elementu naturalistiko baliotsuak izatea (baso autoktonoen eremuak, onura publikoko mendi babesleen presentzia, etab.) eta beren funtsezko ziklo hidroekologikoak erregulatzeko funtzioak aldatzeko aukerak (akuiferoen karga eta azaleko nahiz azalerapeko drainatze-sarearen erregulazioa).
- F.2 Basogintzako Produktiboa: mugatzaile berezirik gabe mugatzen da basogintzako lurzoruetan, gaur egun gehienak koniferoen eta eukaliptoen espezie exotikoen landaketekin okupatuta daude. Ekoizpen intentsiborako ezaugarri hobeak dituzte Mugatzaileak dituzten Basogintzako lurzoruek baino.

3. LPPak Basogintzako eremuak identifikatzen ditu O-01 Inguru Fisikoa. Antolamendu-kategoriak Planoan bi azpi-kategoriak bereiziz:

4. LPPak ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Basogintzako Mugekin azpikategoriarako:

- 1 Sustatutako erabilerak:

- Kontserbazio erabileren baitan: egiturazko kontserbazioa eta/edo aktiboa.
- Ingurumenaren Hobekuntza.
- Basogintza: babestekoa; Kudeaketa iraunkorreko teknikak dituzten basogintza-aprobetxamenduak; Nekazaritzako lurzoruek espezie autoktonoen basogintzako lurzoru bihurtzea, eta basoko birpopulazio autoktonoa.
- Basogintzako erabileren baitan: tokiko baso-masak erabiltzeko eta zaintzeko basogintzako jarduerak dituen basogintzako erabilera; nekazaritza-lurzoruak tokiko espezieak dituzten

baso-lurzoru bihurtzea; eta pixkanaka espezie exotikoak kentzeko eta haien ordeztokiko espezieak landatzeko basogintzako erabilera.

2 Baimendutako erabilerak:

- Kontserbazioa, erraztutakotzat jotakoak izan ezik.
- Jolas-erabilera estentsiboa, erabilera onargarritzat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
- Ehiza eta arrantza. Jarduera zinegetikoak.
- Abeltzaintzako erabileren baitan: abeltzaintza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak.

2* Erabilera onargarriak baldintzekin:

- Kontserbazioa. Zientzia- eta ikerketa-jarduerak.
- Jolas-erabilera estentsiboen baitan: kirol-jarduerak naturan (uretako jarduerak, ekitazioa, txangoak eta antzekoak alde batera utzita).
- Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.
- Abeltzaintzako erabileren baitan: abeltzaintza estentsiboa
- Basogintzako erabileren baitan: masak erabiltzeko eta kontserbatzeko helburua duten baso-jarduerak dituzten basogintzako erabilera.
- Garraiorako bideak: basoko pista eta bide berriak.
- Aireko lineak.
- Lurpeko zerbitzuen lineak.
- Betegarrien, hondakindegien eta hondakin solidoen zabortegiaren erabileren baitan: lur eta harri betegarriak (1).
(1) ez da komenigarria natura-balio altuko eremuetan
- Erabilera publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak: harrera- eta informazio-zentroak, ekomuseoak, akuarioak eta antzekoak.

3 Erabilera debekatuak:

- Aisi intentsiboa.
- Nekazaritza.
- Berotegiak.
- Abeltzaintza, onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik.
- Akuikultura.
- Basogintzako erabileren baitan: basogintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak; Espezie aloktonoen basoberritze berriak.
- Nekazaritzako industriak.
- Aterakuntzazko jarduerak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak.
- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak.
- Betegarriak, hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegiak, onargarritzat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
- Aurretik zeuden hiriguneak oinarri hartuta egin diren hirigintza-hazkundeak.

- Onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak, onargarriak baldintzekin gisa jotzen direnak izan ezik.
- Egoitza isolatua.
- Instalazio arriskutsuak.

5. LPPak ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Basogintzakoa Produktiboa azpikategiarako:

1 Sustatutako erabilerak:

- Basogintzako erabileren baitan: masak ustiatzeko helburua duten baso-jarduerak dituzten basogintzako erabilera.

2 Erabilera onargarriak:

- Kontserbazioa .
- Aisi estentsiboa.
- Jolas-erabilera intentsiboa, erabilera onargarritzat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak.
- Nekazaritza: nekazaritza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak (baldintzekin onargarritzat jotakoak izan ezik);
- Berotegi familiarren instalazioa.
- Abeltzaintzako erabileren baitan: abeltzaintza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak; abeltzaintza estentsiboa.
- Baso erabilera, erraztutzat jotakoak.
- Garraio-bideak: basoko bide berriak.
- Lur azpiko lineak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: autoa uzteko eremu handiak aire zabalean (>50 ibilgailu); Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak (1).
(1) (1) baso-biomasako instalazioak izan ezik (ekonomia-jardueren industriaguneetan kokatu beharko dute zentral horiek) eta abeltzaintzako hondakinen zentralak (abeltzaintza intentsiboa erabilera onargarritzat hartzen den lekuetan soilik baimenduko dira).
- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: dorreak, antenak, irrati-estazio igorleak eta hartzaileak eta abar.
- Betegarrien hondakindegien eta hondakin solidoen zabortegien erabileren baitan: lur eta harri betegarriak (1).
(1) ez da komenigarria natura-balio altuko eremuetan.
- Onura publikoko eta gizartearen intereseko eraikinak.
- Eraikin arriskutsuak.

2* Erabilera onargarriak baldintzekin:

- Aisia intentsiboa: kanpinak; Ibilgailu motordunen zirkulazioarekin lotutako jarduerak; Golf-zelaiak; Kirol-instalazioak aire zabalean; Zientzia- eta kultura-jarduerak eta/edo aisiakoak instalazioen eraikuntzarekin.

- Nekazaritza: nekazaritza- eta dagoen abeltzaintza-ustiategiari loturiko etxebizitza (1) eta sustatu edo debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
(1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritako araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe, hain zuzen erabilera horretarako eraikuntza berrietarako lizentziak emateari dagokionez.
- Akuikultura.
- Berotegi industrialen.
- Abeltzaintza, excepto los considerados como admisibles y vivienda ligada a explotación agropecuaria existente (1).
(1) sin perjuicio de dar cumplimiento al régimen general previsto en la Ley del Suelo y Urbanismo 2/2006 en su artículo 31 en relación con la concesión de licencias de edificación de nueva planta para este uso.
- Aterakuntzazko jarduerak.
- Aireko lineak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: edateko uren araztegiak eta ura tratatzeko instalazioak, eta urtegiak edo ur-biltegi handiak; Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak (abeltzaintzako hondakinen biomasa-zentralak); Energia eraldatzeko instalazioak; Hondakin-uren araztegiak
- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: aparkaleku txikiak (<50 ibilgailu).
- Betegarriak, hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegeak, onargarritzat hartutakoak izan ezik.
- Aurretik zeuden hiriguneak oinarri hartuta egin diren hirigintza-hazkundeak.

3 Erabilera debekatuak:

- Nekazaritza- eta basogintza-industriak.
- Energia berriztaezina ekoizteko instalazioak.
- Nekazaritza: ura ateratzea ureztatzeko, eta ureztaketaren eraldaketak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: energia berriztaezina ekoizteko instalazioak eta basogintzako eta nekazaritzako biomasa-zentralak.
- Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak
- Egoitza isolatua.

23. artikulua. Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabal guneak (C).

1. Gaitasun agrologikoko maila desberdina duten lurzoruak zedarritzen ditu, eta, ondorioz, nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako potentzialtasun handiagoa dutenak ere bai. Oro har, kategoria honen barruan sartzen dira euskal baserri atlantikoaren landazabaleko paisaia (SAU), eta horren egungo tarterik onena mendi-mazela baxuetako eremuetan eta ibai-ibarretan dago, eremu funtzionalean.
2. Bi azpi-kategoriatan definitzea proposatzen da:
 - C.1 Balio Handiko Landazabala: azpi-kategoria hau definitu da Mungiako nekazaritzako intereseko lurzoru onenak bereizteko eta bere babeserako lehentasun handiagoa sartzeko.

Balio Handiko Landazabaleko Eremuen azpi-kategoria Nekazaritza eta Basogintza LSParen balio estrategiko altuko lurzoruen baliokidea da.

- C.2 Nekazaritzarako Landazabal Arrunta: gaur egun eremu funtzionaleko nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala (SAU) osatzen duten gainerako lurzoruei aplikatzen zaie, c.1. kategorian deskribatuak salbuetsiz. Zati handi batean, Nekazaritza eta Basogintza LSParen zedarripenean Trantsizioko Landako Paisaiaren Lurzoruak gisa izendatzen direnak jasotzen ditu.
3. LPPak Nekazaritzako eta Abeltzaintzako eremuak eta Landazabalekoak identifikatzen ditu O-01 Inguru Fisikoa. Antolamendu-kategoriak Planoan bi azpi-kategoriak bereiziz:
4. LPPak ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Balio Handiko Landazabaleko azpikategoriarako:
- 1 Sustatutako erabilerak:
 - Nekazaritzako erabileren baitan: nekazaritza-ustiategiekin lotutako praktikak (onargarrizat baldintzekin jotakoak izan ezik)
 - 2 Erabilera onargarriak:
 - Kontserbazioa
 - Ingurumen-hobekuntza.
 - Jolas-erabilera estentsiboa, onargarrizat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
 - Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak
 - Nekazaritza: nekazaritza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak (baldintzekin onargarrizat jotakoak izan ezik);
 - Familiako berotegiak instalatzea.
 - Abeltzaintza, onargarrizat baldintzekin edo debekatutzat hartutakoak izan ezik.
 - 2* Erabilera onargarriak baldintzekin:
 - Aisi estentsiboa: Kirol-jarduerak naturan (uretako jarduerak, ekitazioa, txangozaletasuna eta antzekoak alde batera utzita).
 - Aisi intentsiboa: zirkulazio motorduna errepideetatik kanpo, excepto vehículos autorizados.
 - Nekazaritza: nekazaritza-ustiategiarekin lotutako eraikinen, instalazioen eta azpiegituren baitan: ustiategi bereko produktuen lehen eraldaketa egiteko habearteak/biltegiak; Nekazaritza- eta dagoen abeltzaintza- ustiategiari loturiko etxebizitza (1)

(1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritako araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe, hain zuzen erabilera horretarako eraikuntza berrietarako lizentziak emateari dagokionez.

 - Berotegiak industrialak.
 - Abeltzaintza: ustiategi bereko produktuen lehen eraldaketa egiteko habearteak/biltegiak; Dagoen nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiari lotutako etxebizitza (1)

(1) Lurzorua eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 31. artikuluan erabilera horretarako oin berriko eraikinen baimenak ematearekin lotuta aurreikusten den araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe.

- . Akuikultura.
 - . Basogintza: masa autoktonoak erabiltzeko eta kontserbatzeko helburua duten baso-jarduerak dituen basogintzako erabilera. Espezie aloktonoak pixkanaka kentzeko eta haien ordeztako espezieak jartzeko basogintzako erabilera.
 - . Garraiorako bideak, debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
 - . Aireko lineak.
 - . Lurpeko lineak.
 - . A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak: Energia berriztagarriaren ekoizpena (1); Hondakin-uren araztegiak.
- (1) baso-biomasako instalazioak izan ezik (ekonomia-jardueren industriaguneetan kokatu beharko dute zentral horiek) eta abeltzaintzako hondakinen zentralak (abeltzaintza intentsiboa erabilera onargarritzat hartzen den lekuetan soilik baimenduko dira).
- . Onura publikoko eta gizartearen intereseko eraikinak.

3 Erabilera debekatuak:

- . Aisi intentsiboa, onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik
- . Dentro de los usos de Ganadería: Abeltzaintza intentsiboa
- . Basogintza, onargarriak baldintzekin jotzen direnak izan ezik
- . Nekazaritza- eta basogintza-industriak
- . Aterakuntzazko jarduerak
- . A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak, sustatuak edo onargarriak baldintzekin gisa jotzen direnak izan ezik
- . B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak
- . Betegarriak, hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegiak
- . Aurretik zeuden hiriguneak oinarri hartuta egin diren hirigintza-hazkundeak
- . Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak
- . Egoitza isolatua
- . Instalazio arriskutsuak.

5. LPPak ondorengo erabilera-erregimen hau ezartzen du Nekazaritzarako Landazabal Arrunta azpikategoriarako:

1 Sustatutako erabilerak:

- Nekazaritzako erabileren baitan: nekazaritza-ustiatuekin lotutako praktikak (onargarritzat jotakoak izan ezik)

2 Erabilera onargarriak:

- . Kontserbazioa .
- . Ingurumen-hobekuntza.
- . Jolas-erabilera estentsiboa.
- . Jolas-erabilera intentsiboa.
- . Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.

- Nekazaritza: nekazaritza- eta dagoen abeltzaintza- ustiapenari loturiko etxebizitza (1) eta sustatutzat, onargarriak baldintzekin edo debekatutzat jotzen direnak izan ezik.
(1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritako araubide orokorra betetzeari kalterik egin gabe, hain zuzen erabilera horretarako eraikuntza berrietarako lizentziak emateari dagokionez.
- Berotegiak, industrialak eta familiakoak.
- Abeltzaintza.
- Akuikultura.
- Nekazaritza eta basoko industriak: produktuen lehenengo eraldaketarako eraikinak
- Basogintza, erabilera onargarritzat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
- Garraio-bideak: Basoko bide berriak.
- Aireko hariterien lineak.
- Lur azpiko lineak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak, debekatutzat jotakoak izan ezik.
- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak.
- Betegarriak, hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegiak, onargarritzat baldintzekin hartutakoak izan ezik.
- Aurretik zeuden hiriguneak oinarri hartuta egin diren hirigintza-hazkundeak.
- Onura publikoko eta gizartearen intereseko eraikinak.
- Instalazio arriskutsuak.

2* Erabilera onargarriak baldintzekin:

- Basogintzako erabileren baitan: nekazaritzako lurzoruak bertako baso-espezieen baso-lurzoru bihurtzea; Espezie aloktonoen basoberritze berriak.
- Aterakuntzazko jarduerak.
- Betegarrien, hondakindegien eta hondakin solidoen zabortegien erabileren baitan: Hondakin toxikoen eta arriskutsuen zabortegiak; Hondakindegia eta beste zabortegi mota batzuk.

3 Erabilera debekatuak:

- Nekazaritza- eta basogintza-industriak: nekazaritzako elikagaien beste industria batzuk eta basogintzako beste industria batzuk.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealen baitan: energia berriztaezina ekoizteko instalazioak eta basogintzako biomasa-zentralak.
- Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak.
- Egoitza isolatua.

3. KAPITULUA

KATEGORIZAZIOARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

24. artikulua. Kontzeptuak.

1. Gainjarritako baldintzatzailleek erabilerak baldintzatzen dituzte eta gainjarri egiten zaizkie aurreko artikuluetan arauturiko Antolamendu Kategoriei, arrisku handiko kasuetan; horrenbestez, mugatu egiten dute jarduera batzuk garatzeko modua, kasu bakoitzeko arriskuaren arabera eta kasuan kasuko babes-irizpideak aintzat hartuta.

Faktore jakin baten arabera erabilerari dagokionez duen baldintzatzaille izaera dela eta, jarduera horiek eragin ditzaketen arrisku naturala ekiditeko beharrezkoak diren gainerako mugak soilik ezartzen dituzte.

25. artikulua. Gainjarritako Baldintzatzailen Proposamena.

Mungiako LPPak ondorengo Baldintzatzaille Gainjarri hauek ezartzen ditu:

- 1 Higadura-arriskuak
- 2 Urpean geratzeko arriskuak
- 3 Akuiferoen urrakortasuna
- 4 Paisaiaren urrakortasuna
- 5 Herri Onurako Mendiak
- 6 Baso autoktonoak eta Lehentasunezko Interes Komunitarioko Habitata
- 7 Korridore ekologikoak
- 8 Hezeguneen babes-eremuak eta itsasertzekoak
- 9 Sute-arriskua.

26. artikulua. Higadura-arriskuak.

1. Baldintzatzaille honekin zedarritzen dira beren ezaugarri geomorfologikoak direla-eta (aldapa handiak, substratu ezegonkorak, etab.) higadura-fenomenoak garatu eta agertzeko joera edo arrisku-maila altua dutenak, substratuaren ezaugarriengatik edo gizakiak eremuan jarduerak gauzatzeagatik sustatuta.

Eremu hauen zedarripen grafikoa CS-01 Higadura-arriskuak planoan jaso da.

2. Higadura-arriskuak direla eta urragarriak diren eremuetarako Nekazaritza eta Basogintza LSPan jasotako irizpide orokorrak aplikatzen dira, nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako erabileretan kontzentratutakoak.
3. Nolanahi ere, esparru horietan garatuko diren jarduerak kontuan hartu beharko dituzte arteztarau hauek:
 - Mendiei buruzko 43/2003 Legeak ezartzen duen Basogintzako baliabideen antolamendu-planek (BBAP) arrisku hori barne hartu beharko dute eta dokumentu teknikoan berariaz jaso beharko dute.
 - Basogintzako jarduerak baliabide edafikoak eta hidrikoak kontserbatzea bermatuko dute.

- Ligadura-arriskua duten eremuetan, Basogintzako Administrazio eskudunak lurzorua mugitzea edo landaredia aldatzea eskatzen duen edozein jarduera gauzatzeko exiji daitezkeen baldintzak eta irizpideak ezarriko ditu.
 - Basotzeko jarduera publikoak arrisku handiagoa eta nekazaritzako izaera txikiagoa duten eremuetan kontzentratuko dira.
 - Arrisku eremuetan dauden eta nekazaritzako produktibitatea duten lurretan, lurzoruaren mugimendua eragingo ez duten laborantza teknikak zehaztuko dira.
 - Lurraldeko jarduera orotan landarediaren babesa eta, bereziki, bertako zuhaitzen kontserbazioa aintzakotzat hartuko da.
4. Higadura-arriskuko eremu gisa mugatutako eremuetan, eraikuntza-jarduerak, lurraren aldaketak eta betetzeak egitean, eta bideak edo pistak eraikitzean, azterketa geotekniko bat egin beharko da, zer arrisku dagoen balioesteko eta beharrezko neurri zuzentzaileak zehazteko.

27. artikulua. Urpean geratzeko arriskuak.

1. Baldintzatzaile honetan barne hartzen dira beren kokapen topografikoagatik, hau da, Butroe eta Estepona ibaien urperatze-ordokien esparru naturalean eta ibar alubialaren hondoan egoteagatik urperatzeko arrisku handia duten eremuak.
Eremu hauen zedarripen grafikoa CS-02 Urpean geratzeko arriskuak planoan jaso da.
2. 10, 100 eta 500 urteko hiru birgertatze-aldietan urpean geratzeko arriskuan dauden lurzoruak jasotzen dira Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako LSParen Aldaketan.
Etorkizunean horien inguruko aldaketaren bat eginez gero, barne hartutzat joko da eta egungoak ordezkatuko ditu, eta, egokia bada, hirigintzako garapenak debekatuta geratuko dira urpean gera daitezkeen arlo berrien eraginpeko mugen barruko eremuak.
3. Esparru horietan garatuko diren jarduerak kontuan hartu beharko dituzte arteztarau hauek:
 - LPPak debekatu egiten ditu hirigintzako garapenak 10, 100 eta 500 urteko hiru birgertatze-aldietan urpean geratzeko arriskuan dauden eremuen barruan, esparru horien balio edafologiko altuagatik.
 - Edozein kasutan ere, eta LPP honetan ezarritako mugak errespetatuz, arlo hauetako esku-hartze erregimena Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako LSParen Aldaketan araututakoarekin osatuko da.
 - Egun uholdeak izateko arriskuak kaltetutako eremuetan kalifikatutako lurzoruetan Kantauri Ekialdeko Mugapearen Plan Hidrologikoko arauak aplikatuko dira, I. eranskinean "Erabilerei jarritako baldintzatzaileak uholdeak izateko arriskua duten eremuetan" jasota daudenak, itsasoko eta lehorreko jabari publikoari atxikitako itsasadarren ertzen esparruan aurreikusitako jarduketak barne.
4. Butroe eta Estepona ibaiei dagozkien UAHE Uholde Arrisku Handiko Eremuetan Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak egiteko fasean aztertuko dira zehazki finkaturiko biztanle-guneen kontrako defentsaren balizko jarduketak.
5. DPH ukitzen duten, zortasun edo zaintza guneetan dauden eta urpean gelditzeko arriskua duten LPP honetako jarduketek URA (Uraren Euskal Agentzia) agentziaren administrazio baimena beharko dute alde zuzenetik.

28. artikulua. Akuiferoen Urrakortasuna.

1. LPPak tratamendu zabala egiten du akuiferoen kutsadura-arriskuari buruz, eta, lurpeko akuiferoez gain, gainazaleko uretara eta akuifero alubialetara iristen diren substratu iragazgaitzetan gainazaleko herrestatzeen ondorio kutsadura-arriskuak jasotzen ditu.

Eremu hauen zedarripen grafikoa CS-03 Akuiferoen urrakortasuna planoan jaso da.

2. Baldintzatzaile honen esparruan aplikatutako irizpide oroko gisa, lurzoruaren okupazio- eta erabilera-moten kontrola indartuko da, eta arrisku-eremuetan ekidin egingo dira lurzorura kutsatzaileak igor ditzaketen eta azpiko akuiferoa lixibiatzeko arriskua eragiten duten erabilerak eta jarduerak.
3. Esparru horietan garatuko diren jarduerak kontuan hartu beharko dituzte arteztarau hauek:
 - Debekatuta da hiri-hondakin solidoak eta substantzia arriskutsuak biltegitatu eta tratatzeko ekipamenduak jartzea.
 - Akuiferoen kutsadurarako oso zaurgarritasun handia duten eremuetan abeltzaintzako azpiegiturak (pixor-zuloak, simaurtegiak, lurperatzeko zuloak edo beste batzuk), akuiferoak kutsa ditzaketenak, eraikitzea edo kokatzea.
 - Landarezko estaldura eta lurzoruaren egitura aldatzen duten eta lurzoruaren iragazkortasun naturalari eragiten dioten jardueren kontrola bermatuko da.
 - Nekazaritza eta basogintzako jarduerak burutzerakoan, aintzat hartu beharko dira Nekazaritzako Praktika Egokien Kodeko irizpideak (Eusko Jaurlaritzaren 390/98 Dekretua, abenduaren 22koa, eta 2008ko apirilaren 8ko hedapenerako Agindua) tratamendu herbizidak, fitosanitarioak edo ongarrizkoak erabili eta aplikatzerakoan.

29. artikulua. Paisaiaren urrakortasuna.

1. Paisaiaren urrakortasunaren baldintzatzaile horren esparruak paisaiarekin edo ikuspegiarekin lotutako eragin handia duten eremuak, eta, ondorioz, ikuspuntu paisajistikotik urragarriak direnak barne hartzen ditu.

Eremu hauen zedarripen grafikoa CS-04 Paisaiaren Urrakortasuna planoan jaso da.

2. Paisaiaren urrakortasuna duten eremuen esparruan, paisaiaren tratamenduari buruzko LAAen artezpide orokorrak eta Nekazaritza eta Basogintza LSPa aplikatzen dira baldintzatzaile horri dagokionez.
3. Esparru horietan garatuko diren jarduerak kontuan hartu beharko dituzte arteztarau hauek:
 - Baldintzatzaile honen esparruan jasotako basogintza-ustategietarako, hainbat neurri hartuko dira, adibidez, basoko lursailaren ertzeko tratamenduak, trazadura zuzenak ekidinez, bazka-eremu irekiak eta basoko landaketen berezko paisaiaren homogeneousutasuna eta sinplifikazioa hausten dituzten zuhaitzi hostotsu sakabanatuak sustatzea.
 - Gailurren tratamendurako, paisaia eta ingurua estetikoki lehengoratzeko neurri zehatzak proposatzen dira, hala nola: higaduraren zauriak zuzentzea, eraikitako elementuen sinplifikazioa eta berrantolamendua eta sute-arriskurik gabeko larre lauen abeltzaintza-erabilpena duten espazio irekien sustapena.

30. artikulua. Herri Onurako Mendiak.

1. Baldintzatzaile honek arlo hauek barne hartzen ditu, eta beren zedarripen grafikoa CS-05 Herri Onurako Mendiak planoan jaso da:
 - Herri onurako mendietako eremuak (demanialak): Herri Onurako Mendi gisa zehaztutako mendiak eta erabilera komunaleko mendiak.
 - Ondarezko mendiak: erakunde publikoei dagozkienak eta demanialak ez direnak.
2. Udal-plangintzak eremuko Herri Onurako Mendien eta Ondarezko Mendien arauketa-izaera eta zedarripena jaso beharko ditu. Horietako erabileren edozein aldaketa Basogintzako Administrazioaren aldeko txosten baten baldintzapean egongo da.
3. Mendi horietan, Mendien Foru Arauaren II. kapituluan (1. eta 2. atalak) jasotako arauak aplikatzen dira:
 - 3/94 Foru Araua, ekainaren 2koa, Mendiei eta Babestutako Espazio Naturalen Administrazioari buruzkoa, ekainaren 28an argitaratua.
 - Ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua aldatzen duen martxoaren 20ko 3/2007 Foru Araua (BAO 07/03/28)

31. artikulua. Baso Autoktonoak eta Lehentasunezko Interes Komunitarioko Habitatak.

1. Baldintzatzaile honetan jaso da beren landarediaren ezaugarrien ondorioz kontserbaziorako duten interes bereziagatik nabarmentzen diren eremuen multzo bat.

Beren garapen grafikoa CS-06 Baso autoktonoak eta Lehentasunezko interes komunitarioko habitatak planoan jaso da.
2. Artapena izango da alde horiekin lotutako landarediaren inguruko irizpide nagusia eta, beraz, horietan jardutea dakarten garapenak egiteko, baldintza bat bete beharko da: honako hauek lehenetsiko diren zedarripen eta antolamendu aukeren gaineko azterlana egitea:
 - Jardunetik kentzea.
 - ezinezkoa bada, eremuko gunee libreen sistema erreserba eratzea.
3. Antolamendurako arteztarauak bi interes-guneetako bakoitzerako definitzen dira baldintzatzaile honetan (Baso Autoktonoak eta Lehentasunezko interes komunitarioko habitatak):
 - a) Baso Autoktonoen erabileren eta jardueren erregimena legeriak eta sektoreko araudi aplikagarriak ezarritakoa izango da (11/1997 Foru Araua, Basoko Hainbat Espezie Autoktonoren Araubide Zehatza). Udalak lege horren 10. artikulua bigarren idatz-zatiaren aplikazioa aintzat hartzeari utzi gabe, espezie horiek zaintzeko eskatu behar da, hirigintza-aurreikuspenak dituzten esparruetan. Horretarako, udal-plangintzak ez du garapen berri bakar bat ere proposatuko tokiko basoek okupatzen dituzten gainazaletan.

LPP honek Eusko Jaurlaritzak eginiko kartografia (Eusko Jaurlaritzako Landaretza eta Habitaten Mapa 2007/2009) onartzen du. Udal plangintzek doiketak egin beharko dituzte, LPP honen irizpideen garapen xehatuan.

b) Lehentasunezko Interes Komunitarioko Habitatak beren kontserbaziorako konpromiso baten menpe daude, Europako Habitaten Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, eremuan habitat horiek duten kontserbazio-egoeraren eta hedapenaren arabera.

Natura 2000 Saretik kanpo dauden Interes Komunitarioko Lehentasunezko Habitatak eta Lurralde Plan Partzialaren esparruaren barruan daudenak babes-maila berezi bat izango dute hirigintza-plangintzan, eta habitat horietan edozein eraikin- eta eraikuntza-erabilera egitea eragotziko da.

4. Egoera onean dauden baso autoktonoek erreferentzia izan behar dute udal plangintzan Babes Berezikoko kategoria zedarritzeko.

32. artikulua. Korridore ekologikoak.

1. Baldintzatzaile honek barne hartzen ditu Korridore ekologikoak, Nekazaritza eta Basogintza LAP Lurraldearen Arloko Planan jasotako kontzeptuaren arabera.

Eremu hauen zedarripen grafikoa CS-07 Korridore ekologikoak planoan jaso da.

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen helburua basoko espezieak dituzten eta bertako populazioek isolatzeko joera duten espazio naturalen arteko lotura funtzionala kontserbatzea eta leheneratzea da. Helburua interes komunitarioko habitaten konexioa eta koherentzia ekologikoa sustatzea da.

2. Korridore ekologiko gisa izendatutako esparruan, Nekazaritza eta Basogintza LSPan markatutako arteztarau orokorrak aplikatzen dira:

- Basogintzaren alorrean eskuduna den Sailaren baimena beharko da zuhaixka, zuhaizti eta ibaiertzen landarediaren gainean edonola jarduteko horiek animalia basatientsako babesleku gisa erabili ahal izateko aukera murriztea eragin dezaketen korridore ekologikoetan.
- Ahaleginak egingo dira korridore ekologikoak egungo egoera eta ezaugarri fisikoak eta biologikoak nabarmen aldatzen dituzten hirigintzako eta eraikuntzako jardunetatik eta azpiegitura linealetatik (landa-bideak eta pistak barne) babesteko.
- Zuhaizti, zuhaixka, landarezko pantailak, landaredi-orka eta errekaen bazterrekoa eta nekazaritzako lursailen mugetakoa eta larreetakoa sortzea eta mantentzea sustatuko da.
- Animalia basatien joan-etorriak sustatuko dira, eremu hezeak edo putzuztatuak leheneratuz eta mantenduz, eta itxidura zinegetikoak beste iragazkorrago batzuekin ordezkatzuz.

3. Udal plangintzek beren tokiko lotura ekologikoko sarea zehaztea gomendatzen da artikulua honetan bildutako irizpideak oinarri hartuta.

33. artikulua. Hezeguneen babes-eremuak eta itsasertzekoak.

1. Baldintzatzaile honek barne hartzen ditu hezeguneetako eta itsasertzeko babes-guneak, eta horien zedarripen grafikoa CS-08 Hezeguneen babes-eremuak eta itsasertzekoak planoan jaso da:
 - Hezeguneak dira oso erliebe laua duten eremuak, elkarrekin topografikoki beheratutako eremu bat osatzen dute hurbilagoko edo ez hain hurbileko geografiarekin alderatuta, oso ekosistema irekiak, dinamikoak, ingurumeneko fluktuazioen menpekoak, beren inguruko sistemekiko erlazio-maila altua dutenak osatuz. Horiek jasotzen dituzten eraketa geologikoek iragazkortasun nahikoa dute lurpeko uraren jario egokia ahalbidetzeko; gainean, zehaztasunik gabeko ubideak doaz, iraunkorrak edo iragankorrak, eta horiek, uholdeetan, eremuko zati handi bat estaltzen dute.
 - LPP honen ondorioetarako, itsasertzeko Babes Eremuak dira itsasertzean bereziak direlako edo ingurumen-balio garrantzitsuak izategatik kontserbaziorako balio handiena duten eremuak.
2. Hezeguneen antolamendua eta esku-hartze erregimena sektorean aplika daitekeen legerian ezarritakoak izango dira:
 - EAEko Eremu Hezeetako Lurraldeko Sektore Planak definitutako II. taldeko hezeguneak agiri horretan arautzen dira.
 - EAEko Eremu Hezeetako Lurraldeko Sektore Planean zehaztutako III. taldeko hezeguneak udal-plangintzari dagozkio, eta hark zehaztuko du, egokia bada, dagokien arauketa.
3. Itsasertzeko antolamendua eta esku-hartze erregimena Itsasertza antolatzeko Lurraldeko Sektore Planak ezarritakoak izango dira.
4. Aurrekoari kalterik egin gabe, beti ikusi beharko da Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen eraginpeko lurzoruetan itsasoko eta lurreko jabari publikoa eta horien aldameneko lurra Lege horretako II. Tituluak ezartzen dituen mugen eta zortasunen menpe egongo direla.

Itsasoko eta lurreko jabari publikoan, erabilerak Kostaldeei buruzko 22/1988 Legeko 31. eta 32. artikuluen xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Itsasorako sarrera, babes eta igarotze zortasunak eta horien mugak Lege horretako II. Tituluko II. kapituluan aipatzen dira. Halaber, kontuan hartu beharko da eragin-esparruko zortasuna, titulu horren IV. kapituluan ezarritakoaren arabera.

34. artikulua. Basoetan Suteak Egoteko Arriskuak.

1. Baldintzatzaile Gainjarri horrek beren gainazalean koniferoen eta eukalipto exotikoen landaketa jarraitu eta homogeneous azalerez nahiz otadi eta txilardizko osaketa autoktonoz osatutako landare-estaldura oso pirofitoagatik suteak izateko arrisku handiak dituzten arlo homogeneousak jasotzen ditu.

Gainera, beste eremu batzuk identifikatu dira, beren ezaugarri topografikoengatik arrisku handiagoa dutenak. Hona hemen ezaugarriok: hegoaldera ematen duten eta sargori-baldintzen aurrean sentikorrak diren mendi-magaletan egotea, eta airea-mehartzea (Venturi efektua) bultzatzen duten erliebetan egotea.

Eremuon mugapena Su-arriskuaren CS-09 planoan jasota dago.

2. Basoko suteak jasateko arriskuan dauden eremuen esparruan, Euskadiko Basogintzako Planaren arteztarau orokorrak eta suteen prebentziorako baso-kudeaketarako zehazpen espezifikoak begirunean izango dira

4. KAPITULUA

INGURUMENA HOBETZEKO JARDUERAK

35. artikulua. Ingurumena Hobetzeko Jarduerak.

1. Ingurumenaren Hobekuntza eremu funtzionalean bi esparru fisiko desberdinetan eragina duten jarduera batzuk direla ulertu behar da:
 - a Kokapen puntualeko eremu hondatuak (zabortegiak, hondakindegia, industria-hondakinak, harrobiak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, etab.), non beharrezkoa den zuzen jokatzeari beren ingurumen-baldintzak leheneratzea lortzeko.
 - b LSP batzuetan Ingurumen Hobekuntzako esparru, Eremu Heze, Itsasertz eta Ibai eta Erreken Bazter gisa kalifikatutakoak.

Eremu hauen zedarripen grafikoa MA-01 Ingurumena hobetzeko jarduerak planoan jaso da.

2. Arlo horien antolamenduaren helburua eraldatzea da, egungo egoera beren potentzialtasun ekologikoarekiko hurbilago dauden egoeretara bideratuz, edo, hori ezinezkoa balitz, paisaia-mailan integratuz gutxienez.
3. Ingurumena Hobetzeko jardueretarako, ondorengo arteztarau hauek aplikatzen dira:
 - Udalaren hirigintza-plangintzak Ingurumena Hobetzea baldintza duten eremuen kudeaketari helduko dio proposatutako leheneratze-helburua lortzeko baimentzen diren erabilerak koordinatuz.
 - Udalaren hirigintza-plangintzak Harrobi Ez-aktiboen eta Hondakindegien kudeaketari helduko dio proposatutako leheneratze-helburua lortzeko baimentzen diren erabilerak koordinatuz, aterakuntza-jardueren eraginpeko eremu naturalak leheneratzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan xedatutako irizpideei jarraiki.
 - Hondakindegiek exiji daitezkeen legeriaren xedapenak bete behar dituzte: otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretua, Hondakinak hondakindegietan biltegitratua eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
 - Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dauzkaten edo izan dituzten lurzoruen Inbentarioan —irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onetsia (EHAA, 2008ko urrilaren 24koa)— barne hartuta dauden eremuei lurzoruen kutsadura prebenitu eta zuzentzeko Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako prozedura aplikatzen zaie. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak lurzoruen kalitatearen adierazpen bat egiteko eskatuko du, aipatu legean ezarritako prozeduraren arabera, egin nahi den erabilera-aldaketa egin baino lehen.

Eremu hauei aplikatu behar zaie Hondakinen eta Zoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea eta ekainaren 11ko 5/2013 Legea, Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta 22/2011 Legea aldatzen dituenak.

Inbentario honetan egin daitekeen edozein aldaketa planean sartua izan dela iritziko da eta egungoa ordezkatu du, aldatu behar izan gabe.

- LPParen kartografian markatuta agertzen den Harrobi Ez-akitboen eta Hondakindegien Ingurumen Hobekuntza baldintzaren lokalizazioa ez da zehatza. LPParen dokumentazio grafikoan identifikatuta ez dagoen horrelako esparruren bat agertzen bada, lehen azaldutako baldintzak aplikatuko zaizkie.
2. LPPak Ingurumena Hobetzea gisa kalifikatutako esparruak hainbat LSPtan jasotzen ditu, eta, bertan, LSP horietan zehaztutako irizpideak aplikatuko dira.

5. KAPITULUA

NATURA-INGURUNEAREN OSAGAI AZPIMARRAGARRIAK

36. artikulua. Kontzeptuak.

1. LPP honen ondorioetarako, inguru naturaleko osagai aipagarriek modu irekian mugatzen edo adierazten dituzte ingurumenaren, naturaren eta ekologiaren aldetik balio handikoak diren leku interesgarriak, edo gai jakinaren eraginez garrantzi handia dutenak eta, berezitasun horretan oinarrituz, Egitura Funtzionaleko natura-ondarean integraturik daudenak.

Ikerketa xehatua behar duten lekuak dira; planeamendu orokorrak edo garapeneko planeamenduak horien eremuaren eta babes-inguruaren mugaketa egingo dute, baita behin betiko antolamendua ere. Salbuetsita daude EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan jasotako landare- eta animalia-espezieentzat interes berezikoak izanik Kudeaketa Plan bat onartuta dutenak.

2. Natura-ingurunearen osagai azpimarragarri hauek aintzat hartu dira:

- EAEko Landaretza Mehatxatua eta beste elementu interesgarri batzuk
- EAEko Animalia Mehatxatuak
- Interes geologikoko puntuak.

37. artikulua. EAEko Landaretza Mehatxatua eta beste elementu interesgarri batzuk.

1. Atal honek ondorengo arlo eta elementu hauek barne hartzen ditu, eta beren zedarripena CN-01 EAEko Landaretza Mehatxatua eta beste elementu interesgarri batzuk planoan jaso da:
- Kontserbaziorako interes berezikoak diren landare mehatxatuen espezie jakin batzuk dauzkaten esparruak.
 - Zuhaitz interesgarriak.
2. Hauek zehazten dute landarediaren egungo araudia: 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena; 42/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoko flora mehatxatuaren espezieen katalogoetako zehaztapenak eta espezieak kudeatzeko dagozkien planak.

3. Zuhaitz interesgarrien kasuan, beren tratamendua Berezi gisa katalogatutako zuhaitzei dagokien maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuaren eta bere handitzea Euskal Autonomi Elkarteke zuhaitz apartekoen bigarren izendapena egiten duen otsailaren 11ko 23/1997 Dekretuaren bitartezparekoa izatea proposatzen da.

LPP honek adierazten duenaren arabera, analizatzeko azterketa xehe bat behar duten espezieak daude, eta plangintza orokorrari dagokio, egokia bada, babes-eremu eta inguru bat zedarritzea, baita haren behin betiko antolamendua egitea ere.

4. Arriskuan dauden espezieetat katalogaturiko landareak dituzten eremuek erreferentzia izan behar dute udal plangintzan Babes Bereziko kategoria zedarritzeko.

38. artikulua. EAEko Animalia Mehatxatuak.

1. Atal honetan barne hartzen dira beren animalia-habitaten ezaugarri garrantzitsuen ondorioz eta EAEko Animalia Mehatxatuen Katalogoan jasotako espezieak daudelako Animalia Basatiaren kontserbaziorako interes bereziagatik gailentzen diren eremu eta espazio batzuk, eta honako hauek bereiz daitezke:

- Interes bereziko eremuak: nahiko txikiak diren eta ondo mugatuta dauden tokiak dira. Oso garrantzitsuak dira espezie honen guneak gorde ahal izateko edota espezie oso hauskorra dela erakusten dute.
- Lehentasunezko banaketako eremuak.

Eremu horien zedarripen grafikoa CN-02.1 Anfibio eta narrasti mehatxatuak eta CN-02.2 Hegazti mehatxatuak planoetan jaso da.

2. Barne hartutako mota desberdinak bat datoz ondorengo animalia-talde hauekin:

- a) Ornogabeak eta Ugaztunak.
- b) Anfibioak eta narrastiak.
- c) Kostaldeko Hegaztiak.

3. Hauek zehazten dute fauna horren arautzea: 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena; Euskal Autonomia Erkidegoko espezien mehatxatuen katalogoen garapena; 42/1007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa; eta dagozkien berariazko kudeaketa- eta zaintza-planak.

LPPak proposatutako jarduerak Kudeaketa Plan bat onetsita duten EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoko espezieetako zehazpenak eta neurriak betetzeko baldintzaren menpe geratzen dira, hala nola, bisoi europarra (118/2006 Foru Dekretua), ekaitz-txori europarra (116/2006 Foru Dekretua) eta ubarroi mottoduna (112/2006 Foru Dekretua).

4. Arriskuan dauden espezieetat katalogaturiko landareak dituzten eremuek erreferentzia izan behar dute udal plangintzan Babes Bereziko kategoria zedarritzeko.

39. artikulua. Interes geologikoa.

1. Interes Geologikoko arlo, gune eta ibilbidetzat jotzen dira LPP honen ondorioetarako, babes berezi duten elementuak, beren baldintza geologiko eta geomorfologiko bereziak direla eta, baita beren bitxitasunagatik, ikusgarritasunagatik, edertasunagatik eta berezitasunagatik Planak ondare geologiko edo geomorfologikoaren fenomeno adierazgarrien arrastotzat jotzen dituenak.
2. LPP honek adierazten duenaren arabera, CN-03 Interes geologikoa planoan zedarrituta agertzen diren eta analizatzeko azterketa xehe bat behar duten tokiak daude, eta plangintza orokorrari edo garapeneko plangintzari dagokio, egokia bada, babes-eremu eta inguru bat zedarritzea, baita haren behin betiko antolamendua egitea ere.

Esku-hartze erregimena, edozein kasutan ere, esku-hartzerik txikiena gauzatzeko printzipioen arabera izango da.

III. TITULUA

EGOITZEN SISTEMA ETA JARDUERA EKONOMIKOENA

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA

EGOITZEN ANTOLAMENDU-EREDUAREN IRIZPIDE OROKORRAK

40. artikulua. Egoitzen Sistemarako Lurralde Eredua.

1. LPPak, egoitza eta jarduera ekonomiko berrien proposamenen bitartez nahiz lurzoruaren antolamendurako politiken esku-hartzeen bitartez, eremuaren eta sektorearen oreka lortu nahi du; hartara, eremu funtzionalaren multzoak egoitza eta enplegu eskaintza nahikoa izan dezan.
2. Ezarpenetarako Lurralde eredua titulu honetan eta O-02 Egoitzen Sistema eta Jarduera Ekonomikoena antolamendu-planoan ezarritako zehazpenen bitartez eratzen da.
3. Titulu honetan ezarritako oinarritzko zehazpenak lotesleak dira udal-plangintzak idazteko, eta, esku-hartzeen hedapenari nahiz intentsitateari dagokienez, LPP honetan ezarritako mugei egokitu ahalko dira udal-plangintza hauek.

41. artikulua. Egoitzen Sistemarako helburu orokorrak.

Eremu funtzionaleko ezarpenen antolamendua helburu hauek erdiestea lortzeko garatuko da:

- Ezarpen-eredu koherente eta funtzional bat lortzea lurzoruaren kontsumoa optimizatuz.
- Egoitzen eta Jarduera Ekonomikoen plangintzan lurzoruaren kontsumoa minimizatzea.
- Lurzoru urbanizaezinean nekazarientzako ezarpen berriak bermatzea, eta egoitzenak soilik diren ezarpen berriak egiteko aukera desagerraraztea.
- Dauden guneekin lotuta ez dauden garapen-eremu berriak sortzea ekiditea.

2. ATALA

OKUPAZIOAREN MUGA-ESPARRUA

42. artikulua. Definizioa eta ezaugarriak.

1. Lurralde Zati Plan honen ondoreetarako, okupaziorako muga-esparrutzat hartzen dira Lurralde-ereduaren O-02 Planoan, Bizitegi-kokalekuen eta ekonomia-jardueren kokalekuen sistema izenekoan adierazitako lurralde-esparruan.

Bere funtzioa da egingo den hirigintza-plangintza ahalbideratzea eta jasotzea, perimetroaren barruan eta datozen 16 urteetan O-02 plano horretan aurreikusitako erabileren ezarpena onartu ahal izan dadin. Horietatik kanpo hirigintza-garapenak debekatuta daude.

Ez dira zorrozki bat etortzen ezarritako eskaintzako maximoekin, baizik eta nolabaiteko lasaiera izateko aukera ematen dute, udal-planek etorkizunean arrazoituz zehaztu ahal izan dezaten hemen alde zuzenetik adierazten den gainazala. Hori dela eta, neurri batean bakarrik okupa daitezke.

2. Esparru horien okupazio eraginkorra eremu finkatuen edo udal-plangintzak garatzea aurreikusita dituen eremuen jarraian hautatuko da, urbanizazio bakartuak eta egungo ereduarekin loturarik ez dutenak saihestuz.
3. Ondare eraikiaren eta urbanizatuaren optimizazioaren ondorioz, hirigintza-plangintzak ez balitu aipatu esparruak osorik edo hein batean okupatu behar, beharrezkoa ez litzatekeen gainerako eremuan "O-01 Ingurune Fisikoaren Antolamendua" izeneko planoan jasotako kategoriak berriz ezarriko lirateke.
4. Antolamendu berriek aintzat hartu beharko dituzte sistema orokorren sarearen zuzkidura publikoak, batez ere espazio libreak eta ekipamendu kolektiboak eta, hala badagokio, etxebizitza babestuaren zuzkidura.
5. Esparru horietan ahalbideratutako hirigintza-hazkundeak kontraesanean egongo balitz beste plan edo araudi sektorial batzuekin, LPP honetako zehaztapenek izango lukete lehentasuna.

43. artikulua. Hutsik dauden lurzoruetan okupazioaren muga-esparruak ezartzeko egokitasun irizpideak.

1. LPP honek gaur egun hutsik dauden lurzoruak bereizten ditu eta okupatu ezin diren eta, ondorioz, ezarpen-proposamen berrietatik kanpo geratuko diren lurzoruak definitzen dituzten irizpide batzuk ezarri ditu, iraunkortasuna sustatzeko.

2. LPP honek ezarritako salbuespen-irizpideak honakoak dira:

- %15eko maldak edo malda handiagoak dauzkaten lurzoruak, non eta ez diren batez besteko aldapa txikiagoko esparru handiagoetako azalera txikiak.
- Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako LSPan zedarritutakoaren arabera 10, 100 eta 500 urteko hiru birgertatze-aldietan urpean geratzeko arriskuan dauden lurzoruak.

Etorkizunean horien inguruko aldaketaren bat eginez gero, barne hartutzat joko da eta egungoak ordezkatzeko ditu, eta, egokia bada, hirigintzako garapenak debekatuta geratuko dira urpean gera daitezkeen arlo berrien eraginpeko muga barruko eremuak.

Irizpide hau behin betiko onetsitako udal-plangintzan kalifikatutako lurzoruen berrikuspenetan edo aldaketetan aplikatuko da.

- LPP honetako Ingurune Fisikoaren antolamendurako zehaztutako Babesteko Eremu Berezi edota Lehentasunezkoren batean jasota dauden lurzoruak.
- Tokiko basoek eta Interes Komunitarioko Lehentasunezko habitatek okupatutako lurzoruak.

44. artikulua. Okupazioaren muga-esparruen aldaketa.

1. Udalaren garapen-plangintzaren bidez eskala aldatzeko prozesuan, esparru horietan egokitzapenak egin daitezke, eta beren definizio zehatza errealitate fisikoarekiko egokiagoa izango da. Egokitzapenak LPPan grafiatutako mugetan aldaketa txiki batzuk barne hartu ahalko ditu, dauden lerrokadura eta eraikinetara eta luraren topografiara egokitzeko, interes naturaleko edo eraikitako elementuak babesteko, bide-sarera egokitzeko, etab.
2. Aparteko kasuetan, udal-plangintzek hirigintza-garapeneko eremu berriak proposatu ahalko dituzte LPP honetan zedarritutako okupazioaren muga-esparruetatik kanpo. Garapen-eremu berri horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Proposatutako zedarripenak jarduera xeheki justifikatu beharko du bere interes publikoari eta sozialari dagokienez. LPP honetan ezarritako Lurralde Ereduarekiko harremana justifikatu beharko du eta sektore horiek gauzatzeko hirigintza-zama gisa haren garapenak izan litzakeen lurraldeko eraginen analisi bat jaso beharko du, baita horiek zuzentzeko neurriena ere.
 - Proposatutako zedarripena eremu kontsolidatuekin jarraituz egingo da eta dauden guneetan soilik oinarrituko da eta horiekin jarraitutasun-erlazioak eta espazio eta azpiegituren integrazioa ebatziko ditu.
 - Lurzoru berri horiek ez dute eragingo egoitza-kuantifikazioa areagotzea, ezta LPP honetan ezarritako gehienezko okupazio-azalerak areagotzea ere.
 - Plangintza-arlo horien zedarripenak Atal honetan ezarritako egokitasun-irizpideak bete beharko ditu.

2. KAPITULUA

EGOITZA LURZORUAREN ANTOLAMENDU EREDU

1. ATALA

EGOITZA EZARPENEN EREDUA

45. artikulua. Egoitza Ezarpenen Ereduen helburu orokorrak.

LPPTik proposatutako egoitza ezarpenen ereduarekin lotutako helburuak honako hauek dira:

- Ezarpen-eredu koherente eta funtzional bat lortzea lurzoruaren kontsumoa optimizatuz.
- Egoitza-plangintzan lurzoruaren kontsumoa minimizatzea.
- Dauden guneekin lotuta ez dauden garapen-eremu berriak sortzea ekiditea.
- Etxebizitza duin bat lortzeko eskubidea bermatzea populazioa mantentze aldera.
- Lehenengo etxebizitza beharretarako egokiagoak diren tipologiai sustatzea.
- Etxebizitza berriak udalerrri eta lokalizazio bakoitzaren harrera-ahalmenaren arabera kokatzea.
- Lurzoru berrien beharrak inguruan ahal bezain eragin txikia izanez asetzea.
- Jarduera ekonomikoa eta egoitza espazioan integraturik daukan eredu mistoa sustatzea.

46. artikulua. Egoitzen Sistemaren osaketa eta zehazpenak.

1. Ezarkuntzen Sistema, LPParen ondorioetarako, Mungiako eremu funtzionalean dauden eta horren jarduketa-eremua osatzen duten udalerrietako biztanleguneez eratzten dute, giza ezarkuntzaren euskarri fisikoari dagokionez; hiri-oinarriko ekoizpen-jarduerak dituzten lurzoruak ere sistema horren barrukotzat hartzen dira.
2. Dokumentazio grafikoan, Informazio Planoak izenarekin eta, beraz, antolamendu lotesle izan gabe, zehaztuta dagoen datan indarreko udal-plangintzaren egoera islatu egiten da, izan ere, LPParen helburua da etorkizuneko udal-plangintzetan egingo diren berriztapen edo aldaketak LPP honen irizpideetara egokituz joatea pixkanaka.
3. LPPak ez du ezartzen lurzoruaren jabetzara aplikatzeko moduko hirigintza-araubiderik, eta, beraz, planaren xedapenek ez dute lurzoruaren sailkapen jakinik eragingo, horretarako eskumena udal-plangintzak baitauka.
4. Aurreko zenbakian adierazitakoaren kalterik gabe, udal-plangintzak lurzoru urbanizaezintzat sailkatu beharko ditu eta, beraz, ez dira ezarkuntza-sistemaren barruan sartuko LPPak ezarritako okupazio-mugetatik kanpoko lurzoru guztiak; ezta, muga horien barruan egon arren, udal-plangintzak erabakita okupatu gabe uzten direnak eta oraingo plangintzen berriztapenak sailkapenetik kentzea erabakitakoak ere.
5. Planak Ezarkuntzen Sistemari lotutako lurzoruaren mugaketa udal-plangintzak soilik zehaztu ahal izango du, Planak ezarritako murriztapenekin eta baldintzekin.
6. Honako LPP honen irizpideak betetzen badituzte, Ezarkuntzen Sistemari loturiko lurzorian integratu ahal izango dira udal-plangintzak hiri-lurzorutzat edo urbanizagarritzat sailkatzen dituenak, baita horren ikuskapenak eta aldaketak ere.
7. Egoitza-ezarpenetarako Lurralde eredia titulu honetan eta O-02 Egoitzen Sistema eta Jarduera Ekonomikoena antolamendu-planoan ezarritako zehazpenen bitartez eratzten da.

2. ATALA

ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK

47. artikulua. Egoitza Ezarpenen Lurralde Ereduen Kudeaketa.

1. LPP honen garapenean garatuko diren etxebizitzak ereduaren arabera lortutakoak dira, eta ez eskainitakoak, eta horien helburua itotzeak ekiditea da.
2. LPPak lurzoru berriaren kontsumoa geldiaraztea du helburu; horretarako, eraikitako ondarea optimizatzea bideratutako esku-hartze estrategiak edo indarrean dagoen plangintzako lurzoru hutsa dentsifikatzeko eragiketak lehenetsiko ditu, lurzoru berriak barne hartzearen ginetik, eta lurzoru berriak, edozein kasutan ere, beharrezkoa izanez gero LPP honetan definitutako okupazioaren muga barruan ezarriko dira.
3. LPP honek ondorengo esku-hartze estrategia hauek proposatzen ditu Egoitza Ezarpenetarako:
 - Eraikitako egoitza ondarearen optimizazioa: etxebizitza hutsen eta alokairuko mobilizazioa eta etxebizitza izatedunaren birgaitzea, eta tipologiaren aldatzea.
 - Plangintzaren Erabili gabeko Gaitasuna optimizatzea.

48. artikulua. Eraikitako Egoitza Ondarearen Optimizazioa.

1. Ondare Eraikiaren gaineko jarduera da LPPak esku hartzeko ezarritako modua, indarrean dagoen legeriaren arabera, dauden eraikinak optimizatzeko, etxebizitza-eskaintza errealaren eta zenbagarriaren parte izan dadin.
2. Hortaz, esku hartzeko moduaren aplikazioa lehenetsi egingo da beste esku-hartze modu batzuen aurretik, nekazaritzarako erabil litezkeen lurzoruen kontsumoa murrizteko eta etxebizitza-merkatuaren eskaintza areagotzeko, dagoeneko dauden eta okupa litezkeen eraikinak barne hartuz.
3. Eraikitako eta urbanizatutako ondarearen optimizazioa, funtsean, ondorengo jarduera-lerro hauetan kontzentratuko da:
 - Hutsik dagoen eta alokairuan dagoen etxebizitzaren gainean esku hartzeko mekanismoak artikulatzea.
 - Etxebizitza birgaitzea. Dauden eraikinak zaindu eta hobetzea.
 - Tipologiak aldatzea eta moduluak egokitzea egungo eskaerekin bat etor daitezen.
4. Hutsik dagoen eta alokairuan dagoen etxebizitzari dagokionez, ondorengo irizpide hauek ezartzen dira:
 - Okupatzeko moduko etxebizitzaren gaitasuna, hutsik dagoen etxebizitzan esku hartzearen ondoriozkoa, berez ez da eskaintza eragilea eta eskuragarria; izan ere, esku-hartze mekanismoak behar ditu etxebizitza merkatuaren parte izan dadin eta eskaintza bideragarri bihur dadin.

Plangintza berriz aztertzeke prozesuan, udalerriko etxebizitza hutsen ehunekoari erreparatuz, Udalak etxebizitza-ahalmena doitu daitekeen aztertzeke aukera izango du. Azterketa hori egin ahal izateko, esparru horretan eskumena duen Sailak aldeko txosten bat egin beharko du.

Ildo horretan, komenigarritzat jotzen da Udalak analisi sakon eta zehatz bat egitea udalerriko etxebizitza hutsen egoerari buruz, alderdi horrek izugarri baldintzatzen baitu aurreikusi beharreko etxebizitza-eskaintzaren neurriak ezartzea.

 - Hutsik dagoen etxebizitzari dagokionez, kontuan hartuko da indarrean dagoen araudia, eta honakoak barne hartzen ditu:
 - 316/2002 Dekretua, abenduaren 30koa, eta haren osteko aldaketak, "Etxebizitza Hutsen Programa" sustatzen eta abian jartzen duena. (EHAA 249. zenbakia, 2002ko abenduko 31koa)
 - 2003ko apirilaren 22ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuena, "Etxebizitza Hutsa Programa"ren lagapen-baldintzei eta esleipen-prozedurari buruzkoa (EHAA 96 zenbakia, 2003ko maiatzaren 19koa), 2004ko azaroaren 26ko Aginduak (EHAA 2004-12-16) eta 2009ko azaroaren 4ko Aginduak (2009-11-23) aldatua.
 - 126/2007 DEKRETUA, uztailaren 24koa, "Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler/ Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, S.A." sortzen duena. (EHAA 249 zenbakia, 2009ko irailaren 14koa).
 - Alokairua sustatu eta norberaren etxebizitza publikoko ondarea kudeatzeko irizpideari dagokionez, jabetzaren edo alokairuaren araubideen tipologiei dagokienez, udal-plangintza izango da biztanleen beharrezko azterlana egin eta dagokion eran jokatu duena.

LPPak 2010-2013 hiri-birsorkuntza eta Etxebizitzaren Zuzendaritza Planeko irizpideak onartzen ditu, eta horrek alderdi hauek barne hartzen ditu, eta bere helburu orokorra alokairuko etxebizitza babestuzko parke iraunkorraren dimentsioa areagotzea da, dela alokairuan dagoen etxebizitza babestuaren sustapenaren bitartez, dela errenta babestuen mailan etxebizitza erabiliak alokatzea lortzera bideratutako neurriak sustatuz.

5. Etxebizitza birgaitzeari dagokionez, ondorengo irizpide hauek ezartzen dira:

- Udal plangintzak ondare historiko eta arkitektonikoaren gaineko jarduerak aztertuko ditu, Herriko egitura, monumentu, eraikin eta eskualdean dagoen ondare kultural eraikia eta arkeologikoa osatzen duten gainerako elementuak balioetsi, babestu, antolatu eta eguneratzeko beharrezkoak diren obrak gauzatzeko.
- Dauden eraikinen gaineko esku-hartzea sustatu beharko da, eraikita dauden egoitzak egokitzeko.

6. Egoitzen tipologiaren eraldaketari dagokionez, ondorengo irizpide hauek ezartzen dira:

- Familien batez besteko neurriarekin (kontuan hartuz gero eta txikiagoak direla) bat datozen neurriko moduluekin garatutako etxebizitzaren egokitzapena aztertu beharko da.

Lurzoru urbanizaezinean kokatutako eraikinen ageriko salbuespena berresten da, etxebizitza kolektiboaren tipologia ez baitator bat era honetako lurzoruarekin.

- Eraikinen beheko aldeak etxebizitza gisa erabiltzea ekidingo da, bereziki, kale nagusietako eraikinetan eta herri-gune finkatuen barruan daudenak.

49. artikulua. Plangintzaren Erabili gabeko Gaitasuna optimizatzea.

1. LPP honek erabili gabe dauden eta udal-plangintzak legezko baldintzekin alderatuta behar baino erabilera-maila txikiagoarekin zedarritu dituen lurzoruen parametroak aldatzeko ezarritako esku-hartze modua da.
2. Udal-plangintzek lehentasuna eman beharko diote esparru horiek erabiltzeari lurzoru berrien kolonizazioaren gainetik.
3. 2/2006 Legeko Bigarren Xedapen Iragankorra aplikatuz, behin betiko onetsita dauden eta beren aurreikuspenetan Lege horrek ezarritako gehienezko eta gutxieneko mugen arabera ez diren hirigintza-eraikigarritasunak ezartzen dituzten udal-planek automatikoki geratuko dira muga horietara egokiturik, baldin eta ez baldin bada behin betiko onetsi esparruko antolamendu xehakatuak.

Esparru horietan, Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasuna aplikatuko da. Halaber, etxebizitzaren dentsitatea LPP honetan ezarritako dentsitate-tarteen gutxienekora egokituko da.

4. Eraikigarritasun hau ezartzen diren inguruekiko bolumetrikoki egokiak diren tipologikoen bidez egin beharko da, eta nahi ez diren eraginak ekiditen saiatu beharko da.

3. ATALA

EREDUAREN KALKULUA

50. artikulua. Egoitza-lurzorurako proposamenaren esparrua eta kuantifikaziorako irizpideak.

1. Lurralde-plan partzial honek, Lurralde Antolamendurako Arteztarauetan ezarritakoarekin bat etorriz, egoitza-lurzorurako proposamenaren esparru bar osatzen du izaera horretako lurzoria Kapitulu honetako 1. Atalean ezarritako irizpideen arabera garatzea ahalbidetzeko.
2. Esparru-proposamena etxebizitza-beharren estimazioaren arabera osatu da, 16 urteko epea erreferentzia gisa hartuz, eta faktura hauek kontuan hartuz:
 - a) Epe hori zehaztu da kontuan hartuz denbora erreferente hori ezin hobea dela uda-plangintzako instrumentuetan beharrak 8 urteko epeka islatu eta asetzea bermatzeko, instrumentu horiek 8 urteko indarraldia izan ohi baitute.
 - b) Estimaturako benetako beharrei harrotze-koefiziente bat aplikatzen zaie behar horiei erantzutea bermatzeko, baina LPP honen kuantifikazio-helburua da antzemandako beharrei behar bezala erantzute eta eskaintzaren kalkulua hori lortzeko bide bat besterik ez da.
3. LPPak emandako kuantifikazioa udalerriek egokitu ahalko dute Plangintza berrikusten den unean.

51. artikulua. Egoitza-lurzoruaren beharra. LPParen Egoitza-Proposamena 16 urteko epean.

Beharren estimazioa 16 urteko eperako egiten da, eta epe hori da LPP honetan aurreikusitako Ereduaren arabera erreferentzia-esparrua.

52. artikulua. Ereduaren Osagaiak.

1. LPP honek ezartzen duen kalkulu-metodoaren helburua da etorkizuneko Lurralde Eredurako egoitza-kuantifikazio bat lortzea, okupagarriak izan beharko luketen etxebizitzak kopurua lortzeko.
2. Kalkulatzen metodoa osagai hauen gehiketan oinarritzen da:
 - A. Ereduaren hazkuntza selektiboa, zehatza eta loteslea.
 - B. Barne-oreka, zehatza eta loteslea.
 - C. Behar endogenoak, 2011ko FBN eta populazioan oinarrituz kalkulaturik, eta loteslea familien batez besteko neurria urtero 0,03ko murrizten dela.
 - D. Bigarren egoitza, zehatza eta loteslea.

53. artikulua. Ereduaren Hazkuntza Selektiboa. A Osagaia.

1. LAAek bultzatutako Lurralde Orekarako Estrategiaren erantzun gisa, LPP honek aurreikusitako Lurralde Ereduak bere kuantifikazioan Kanpoko Oreka-faktore bat barne hartzen du, edo Bilbao Metropolarreko eremu funtzionaleko biztanleria hartzeko beharrezkoa den etxebizitza-kopurua.
2. Ez dagoenez desoreka garrantzitsurik, hazkuntza selektiboari dagozkion etxebizitzak hazkuntza endogenoarekiko modu proportzionalan banatzea proposatzen da.
3. A osagaia LPP honetatik modu loteslean ezartzen da.

54. artikulua. Barneko oreka. B Osagaia.

1. Mungiako eremu funtzionala osatzen duten udalerrietako bakoitzak beren behar propioei erantzuteko nahikoa harrera-gaitasun dauka, eta Barneko Orekarako B osagaiari balio nulua edo zeroren baliokidea egozten dio.
2. B osagaia LPP honetatik modu loteslean ezartzen da.

55. artikulua. Behar Endogenoak. C Osagaia

1. C Osagaia etxebizitza-beharren areagotzearen bidez zehazten da, kontuan hartuz datozen urteetarako aurreikusitakoaren arabera familien batez besteko neurria murriztuz joango dela.
2. C osagaia kalkulatzeko, formula hau aplikatzen da:

$$C = \frac{P}{(FBN - 0,03 \times n)} - \frac{P}{\frac{FB}{N}}$$

Bertan, P eta FBN udalerriko 2011ko populazioa eta familien batez besteko neurria dira.

3. Hazkuntza endogenoaren osagaia bere metodologiarekiko soilik da loteslea. Kalkulu zehatza udal-plangintzaren bidez egingo da, populazioaren eta familien batez besteko neurriaren datu eguneratuekin, Plangintzaren berrikuspena egiten den urteko datu eguneratuekin, alegia.

Hala ere, etorkizuneko proiektiorako loteslea izango da Familien Batez besteko Neurria urtero 0,03 murriztuko den hipotesia, eta, ondorioz, murrizketa osoa koefiziente hori udal-plangintzak estimatutako aurreikuspen-aldia edo –epearekin biderkatuz lortzen den emaitza izango da.

56. artikulua. Bigarren Egoitza. D Osagaia.

1. LPP honek 0 hazkuntza ezartzen du bigarren egoitzarako, eremu funtzionaleko udalerriz guztietarako.
2. D osagaia LPP honetatik modu loteslean ezartzen da.

57. artikulua. Ereduko Etxebizitza-beharren kuantifikazioa Esparru-proposamenean 16 urteko epean.

1. A, B, C eta D osagaien batuketa, izatez ere, LPPko Ereduan ezarritako etxebizitza-kopuru garbiaren kuantifikazioa da. A, B eta D osagaiak lotesleak izan arren, ondoriozko zenbatekoa, ostera, ez, C osagaiaren kalkulua berriro kalkulatu behar delako nahitaez, xede horretarako ezarri den metodologia loteslea erabiliz.
2. Udal-plangintzak ziurtatu behar du Ezarpenen Lurralde Ereduan xedatutakoa aplikatzetik ondorioztaturiko etxebizitza-zenbatekoa dagoela, azaldu diren estrategiak lehentasunez aplikatuz. Beste batzuen artean, honako hauek ikusten dira: eraikitako ondarea optimizatzea, hutsik dagoen etxebizitzak mugitu eta oraingo eraikuntza birgaituz, edo indarreko Plangintzan hutsik dagoen lurzorua birdentsifikatzeko jarduketa posibleak. Hori guztia 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasun-irizpideen arabera.

3. LPParen indarraldian aurreikusitako etxebizitza kopuru garbiaren zenbatekoa III. eranskinetako taulan ("Ereduko Etxebizitza-beharren kuantifikazioa Esparru-proposamenean 16 urteko epean") jasota dago.

58. artikulua. Egoitza-lurzoruaren beharra. 8 urteko epeko eredua.

1. Bere Plangintza Orokorra berrikusten duen udalerrri bakoitzak bere ereduko etxebizitzaren kalkulua egin beharko du plan horretan ezartzen den aldirako, LPP honetan ezarritakoan oinarrituz.
2. Ereduko etxebizitzaren kuantifikazioa, 8 urteko eperako, egiteko, A, B, C eta D osagaiak batuko dira, 8 urteko eperako kalkulatuak:
 - Hazkuntza Selektiboaren A osagaiak balio zehatz eta loteslea dauka, eta, 8 urteko eperako, 16 urterako aurreikusitako lurralde-orekaren osagai gisa ezarritako etxebizitza-bolumenaren erdia da.
 - Barneko orekaren B osagaia, 16 urteko epera bezala, Okoa dela ulertzen da, udalerrri bakoitzak behar propioei erantzuteko adinako gaitasuna duelako.
 - Bere plangintza berrikusten duen udalerrri bakoitzak bere Hazkuntza Endogenoaren C osagaia formula hau aplikatuz kalkulatu du:
$$C = P / (FBN - 0.03xn) - P/FBN$$
non P eta FBN populazioa eta familien batez besteko neurria diren berrikuspena egiten den urteko datuen arabera, eta n Udal-plangintzaren aplikazioaldiaren urte-kopurua den.
 - Bigarren Egoitzaren D osagaia Lurraldeko Ereduaren arabera ezartzen da, eta bigarren etxebizitzaren eskaera nulua da eremu funtzionalerako.
3. A, B eta D osagaiak balio zehatzak eta lotesleak dira. Kopuru osoa berriz kalkulatu beharko da udalerrri bakoitzaren plangintza orokorra berrikusterakoan, C osagaiaren aldaketaren ondorioz, aurreko puntuan zehaztutako irizpideen arabera.
4. Udal-plangintzak lehentasunen oinarritzko ordena definitu beharko du eta programazio-baldintzak ezarri beharko ditu egokituz jotzen dituen esparruetarako, Ereduko etxebizitzaren zenbatekoaren eskuragarritasuna eta gauzatzeko helburua bete dadin Udal-plangintzari dagokion aldirako.
Aldi baterako plangintza honetan, indarreko plangintzetan hutsik dauden aldean jarduketaren garapena ezarri beharko da lehentasunekotzat.
5. LPParen 8 urteko indarraldian aurreikusitako etxebizitza-kopuru garbiaren zenbatekoa IV. Eranskinetan («Ereduko Etxebizitza-beharren behin-behineko kuantifikazioa Esparru-proposamenean 8 urteko epean») jaso da.

4. ATALA

EGOITZA-ESKAINTZAREN MUGAK

59. artikulua. Egoitza-eskaintzaren mugak, 16 urterako esparrua.

1. LPParen plangintza metodologikoaren arabera, harrotze-koefizienteak, aplikagarriak dira eremuan oinarrituz (beharrak) kalkulaturiko etxebizitza kopuru garbia kalkulatu ondoren, hori egoitza-lurzoruaren eskaintza bihurtzeko. Helburua ez da aurreikusitako etxebizitza-kopurua handitzea, lurzoruaren aurreikuspen nahiko lasaiak egitea baizik, behar diren etxebizitza guztiak eraiki ahal izateko, hiri-garapeneko prozesuak zurrinak izan daitezkeen arren.
2. LPP honek harrotze-koefiziente hauek aplikatzen ditu:
 - 16 urtera eskainitako etxebizitzaren gehienezko balioak ezin du gainditu etxebizitza-kopuru garbia bider 2ko koefizientea. Mungiarako, koefiziente hori 1,5ekoa da.
 - 16 urtera udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gutxieneko balioa eta, gutxienez, plangintzak bermatu behar duena ezin da izan LPPak proposatutako etxebizitza-kopuru garbia bider 1,25eko koefizientearen emaitza baino txikiagoa izan.
3. Udalek, beren garapen-ereduaren arabera, kopuru handiagoa edo txikiagoa aukeratu beharko dute muga horien barruan, udal-plangintzaren aurreikuspenak zenbateteko.
4. 16 urtera Mungiako eremu funtzionalean eskaintzaren kalkuluaren emaitza jasotzen duen taula V. Eranskinean ("Egoitza-eskaintzaren mugak 16 urterako esparru-proposamenean") jaso da.

60. artikulua. 8 urterako eskaintzaren mugak aplikatzea.

1. Udal-plangintzari Esparru-proposamenaren eskaintzaren mugak aplikatzea ahalbidetzeko, esparru-proposamena 8 urtera ezarritako plangintzaren aldira egokitu behar da.
2. Udalerrri bakoitzak bere hazkuntza-eredu propioaren marjina horien barruan erabakitzea ahalbidetzeko, 8 urterako eskaintzaren gehienezko eta gutxieneko balioak honakoak dira:
 - Udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gehienezko balioa, eta ezin du gainditu zortzi urterako etxebizitza-kopuru garbia bider 3ko koefizientea. Mungiarako, koefiziente hori 2koa da.
 - Udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gutxieneko balioa, eta ase egin behar ditu zortzi urterako etxebizitza-kopuru garbi harrotua bider 1,5eko koefizientea.
3. 8 urtera Mungiako eremu funtzionalean eskaintzaren kalkuluaren emaitza jasotzen duen taula VI. Eranskinean ("Egoitzaren behin-behineko eskaintzaren mugak 8 urteko aldirian") jaso da.

5. ATALA**EGOITZA-EREDUAREN KARAKTERIZAZIOA****61. artikulua. Jarduera-motak.**

1. Mungiako eremu funtzionalerako egoitza-eskaintza hiru jarduera-motaren arabera proposatzen da:
 1. Indarrean dauden plangintzetan jasotako eremuak.
 2. Dentsitate-berrikuspena duten eremuak.
 3. Okupazioaren muga-esparruak.

62. artikulua. Indarrean dauden plangintzetan jasotako eremuak.

1. Egun kalifikatuta eta hutsik dauden eremuak dira, dentsifikatzeko irizpideak aplikatzen ez zaizkienak, dela beren dentsitatea bat datorrelako LPPak proposatutako dentsitateekin, dela beren antolamendu xehakaturak garatuta edo garapen bidean dagoelako.
2. LPPak arlo horiek hirigintzako parametroekin jasotzen ditu. Hala ere, garapen plangintzak LPP honetan proposaturiko dentsitateei egokitzea gomendatzen dugu, horren garapen mailak ahalbidetzen duen heinean.

63. artikulua. Dentsitate-berrikuspena duten eremuak.

1. Indarrean dauden plangintzetan kalifikatuta eta hutsik dauden eremuak dira, zehazki, beren eraikigarritasuna legalki exijitzen dena baino txikiagoa da eta beren antolamendu xehakatuaren plangintzak ez da garatu.
2. LPPak eremu horientzat proposatzen du 30 etx./Ha-ko gutxieneko dentsitatea aplika dadila, eta udal-plangintza izango da azkenean aplikatuko den dentsitatea zehaztuko duena.
3. Aurreikusitako eremu batzuen dentsitatea aldatzea LPP honetan udalerrri osorako jasotakoa baino eskaintza handiagoa dakarren udalerrietan, komenigarria da udalak kalifikatutako gainazala murriztea, hirigintza-estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuak jasotzen duen bezala.

64. artikulua. Okupazioaren muga-esparruak.

1. Gaur egun uda-plangintzetan kalifikatuta ez dauden eta LPP honetatik egoitza-beharrak osatzeko proposatzen diren eremuak dira.
2. "Okupazioaren muga-eremua" gisa identifikaturiko mugaketa bakoitzari, LPPak dentsitateen (A, B eta C) urkila esleitzen dio; hori gehienezko eta gutxieneko baten artekoa da, eta plangintza egokiena aukeratuko du.
3. Eremu funtzionaleko udalerrietarako, oro har, 30 eta 50 etx./Ha arteko dentsitate ertain-baxuko tarte bat ezartzen da, Mungiarako izan ezik, barruti horretarako dentsitate ertain-altua (50-75 etx./Ha) edo altua (75-100 etx./Ha) ezartzen baita.
4. Esparru bakoitzerako eraikigarritasunak onartzen den etxebizitzaren batez besteko azalera dentsitate horiei aplikatzearen emaitza izango da, eta LPP honen irizpidea da eraikigarritasun horien berehalako inguruarekin erlazionatuta egotea, bateragarriak izan daitezzen udalerrri bakoitzaren fisonomia bereizgarria mantentzearekin eta proposamen berriak dauden guneeetan barne hartzearekin.
5. Tipologiak aplikatzen den dentsitatearen arabera egokiena izan beharko du, eta bi irizpideri erantzun beharko die: batetik, eremuko eraikuntza-patroi tradizionalak errespetatzea; eta, bestetik, hirigintza-eredu konpaktua eta lurzoru gutxi kontsumitzea sustatzea.
6. Edozelan ere, eredu bakoitzak Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 77. artikuluan ezarritako hirigintza eraikigarritasunaren mugen araubidea bete behar du.

65. artikulua. LPParen proposamenaren ahalmena. Malgutasuna.

1. LPP honek ezarritako egoitza-ahalmenaren multzoak, Atal honetan definitutako hiru jardueramoten bitartez formalizatuak, 16 urteko eperako gehieneko eskaintza erreala hartzeko ahalmena bermatzen du, baita dokumentu honetan aurreikusitako gutxieneko dentsitateak aplikatuz ere.
2. Behar den etxebizitza-eskaintzaren eta proposatutako ahalmenaren arteko malgutasuna erreserba gisa ezartzen da eskaintza onartzea bermatzeko, baita horiekin lotutako zuzkidurak ere, eta hirigintza-plangintzaren bitartez beren garapenean kokapen-aukera desberdinak ahalbidetzen dira .
3. Lehenetsi egingo dira indarrean dauden plangintzetako bilketa-eremuak garatzeko jardueramotak eta hutsik dagoen plangintzaren dentsitatearen berrikuspenera okupazioaren muga-esparruen okupazioaren aurretik.

6. ATALA**BABES PUBLIKOKO ERREGIMENEN BATEN PEAN DAUDEN ETXEBIZITZETARAKO ERRESERBA****66. artikulua. Babes publikoko erregimenen baten pean dauden etxebizitzetarako erreserba.**

1. Hirigintza-plangintzek derrigorrez ezarri beharko dute babes publikoko erregimenen baten menpe dauden etxebizitzetarako erreserba, populazio-mugen arabera, 2/2006 Legeak zehazten duen bezala: oro har, 3.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek, baita hiri-lurzoruko gune jarraituetan guztira 2.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek ere. Erreserba, gutxienez, Lege horretan ezarritako zenbatekoekin formalizatuko da.

Babestutako etxebizitzaren estandarra aplikatu behar duten udalerrien zerrendan Mungia eta Bakio ageri dira (Premiazko neurrien 105/2008 Dekretua, aipatutako 2/2006 Legea garatzen duena). Halere, 1692/08 zenbakidun administrazioarekiko auzi errekurtsioan eman zen epai irmoa argitaratzeari buruzko EDIKTUAN adierazi zen ekainaren 3ko Premiazko neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren I. eranskina (Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatu zuena) zati batez baliogabea zela, Bakio babestutako etxebizitzaren estandarra aplikatu behar duten udalerrien zerrendan sartu zuelako.

2. Erreserba hori ezarri behar ez duten udalerrietan, nagusiki bizitegitarako diren antolamendueremutan haztatutako hirigintza-eraikigarritasunaren %15en lagapena zuzendu behar izango dute babes publikoko etxebizitzara, urbanizazio kargarik gabe, lursail eraikigarrian gauzatua edo orube edo lursail eraikigarri baten jabetza osoa eskuratzen ez denean dirutan ordaindu ahal izango da, dagokion balioaren arabera, eta diru hori Udal Lurzoru Ondareari atxiki beharko zaio Hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 12. Artikulua arabera.

Halaber, komenigarria izango litzateke alokatzeko etxebizitza-parke bat izatea. Helburu horretarako eta Sustapen Publikoko Etxebizitzaren parke egonkorra mantentzeko, udalaren lurzoru-ondarea sortu nahi da.

7. ATALA

EGOITZA-LURZORUETARAKO ZEHAZPENAK ETA IRIZPIDEAK

67. artikulua. Egoitza-ezarpenak barne hartzeko lurzoruaren gainean aplikatzeko zehazpenak.

Egoitza-ezarpenetara bideratutako lurzorian lurralde-eredua ezartzeko, oro har, ondorengo irizpide hauek aplikatuko dira:

- Udal-plangintzak aurreikusitako hirigintza-garapen berriek ezingo dituzte gaintitu LPP honetako Lurralde Ereduaren planoan islatutako okupazioaren mugak, eta proposatutako dentsitatea errespetatuko dute.
- Garapen-esparru bakoitzeko dentsitateak (etx./Ha) egoitza-sektorearen azalerari egiten dio erreferentzia, hau da, okupazioaren muga-esparruek Sistema Orokorrak barne hartzeko ahalmena dute, eta, kasu horretan, dentsitatea lurzoruaren azalerari aplikatzen zaio, sistema orokorra kendu ondoren.
- Mungian eta Bakion 30 etx./Ha baino dentsitate handiagoa duten eta egoitza-dentsitate ertaina edo altua duten okupazioaren muga-esparru guztietan, eremuko egoitza-eraikigarritasuna %10 hainbat jarduera ekonomiko kokatzeko erreserbatuko da, hauek, adibidez:
 - etxebizitzarekin bateragarriak diren erabilera industrialak.
 - hirugarren sektoreko erabilerak, hala noa, merkataritza eta bulegoak
 - zuzkidura pribatuko zerbitzuak, hezkuntzarekin lotutakoak, sanitarioak, sozialak, kirol-arlokoak, kulturalak eta antzekoak.

Erreserba hori LPP honetan gutxieneko gisa ezartzen da, eta udal-plangintzaren zehazpen bidez areagotu ahalko da. Kopuru horren barruan jasotzat joko da Lurzoruaren Legeko 79.2.b artikuluan aurreikusten den tokiko sistemen sareko ekipamendu pribatuetarako erreserba.

Era berean, nahi izanez gero, eremu funtzionaleko beste udalerrietan ere irizpide bera aplikatu ahalko da.

3. KAPITULUA

JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUAREN ANTOLAMENDU-EREDUA

1. ATALA

JARDUERA EKONOMIKOEN EZARPENEN EREDUA

68. artikulua. Jarduera Ekonomikoen Ezarpenen ereduen helburu orokorrak.

Jarduera Ekonomikoen lurzoruaren ereduen helburuak honela laburbil daitezke:

- Eremuko enpresa-sarea dibertsifikatzeko beharra, gaur egun espezializatuegi baitago industria-jardueran, bereziki elektrizitatea, galdaragintza, forjaketa eta arotzeria metalikoaren jardueretan.
- Eremuaren egitura ekonomikoa hirugarren sektorera bideratzeko beharra. Gaur egun hirugarren sektorearen garrantzia ez da nahikoa perspektiba ekonomiko berrien aurrean. Enpresei zerbitzuak

eskaintzeko adarrek, zuzkidura publikoek eta komertzialek lurraldearen esparru hori hirugarren sektorerara bideratzeko prozesuaren oinarri izan behar dute.

- Eskualdeko ekonomia hirugarren sektorerara bideratzen laguntzen duten ekimenek, nagusiki, behar propioei eta barneko eskaerei erantzutera egon behar dute zuzenduta, eremu funtzionala berezko espazio gisa osa dadin, eta, bertan, bere biztanleriaren beharrak ase daitezten.
- Merkataritzako jarduerak herri-guneetara zuzenduta egon behar dute, Mungiaren kasuan bereziki, jarduera soziala eta herrikoa dinamizatzeko.

69. artikulua. Jarduera Ekonomikoen Ezarpen sistemaren eredua.

Jarduera ekonomikoen establimendurako Lurralde-eredua titulu honetan eta O-02 Egoitzen eta Jarduera Ekonomikoena establimendu sistema antolamendu-planoan ezarritako zehazpenen bitartez eratzen da.

2. ATALA

ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK

70. artikulua. Xedapen orokorrak.

LPPak lurzorua kontsumoa mugatzea proposatzen du, azken urteotako joerari buelta emateko. Horretarako, antzemandako beharrak, ahal dela, jarduera ekonomikoetako esparruak birsortuz eta indarrean dagoen Plangintzan beterik gabe dagoen ahalmena erabiliz, eta, beharrezkoa den neurrian soilik, okupazioaren muga-esparruen barruan lurzoru berriak garatuz.

71. artikulua. Eraikitako Ondarearen Optimizazioa.

Dauden eraikin industrialetan esku hartzea sustatuko da, parke eraikia egokitzeko, jarduera ekonomikoen esparruak birsortuz, lurzoru berrien kontsumoa murrizteko.

72. artikulua. Plangintzaren Erabili gabeko Gaitasuna optimizatzea.

Udal-plangintzak, 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko okupazioa aplikatu ondoren, gutxienez, aplikatzen den eraikigarritasunaren arabera, hutsik dauden lurzorutzat jotzen jarraitzen diren lurzoruetan eragingo lukeen azaleraren areagotzea kontuan hartuko du.

73. artikulua. Birsortzea.

1. Esku hartzeko modu hori egungo industria-paisaiaren eta, beren erabileraren arabera, proposatzen den lurralde-ereduan integratzeko erreforma behar duten eremuen irudia hobetzeko eta egokitzeko dago pentsatuta.
2. Esku hartzeko modu horren eragina jasaten duten lurzoru-esparruetan egungo irudia egokitu behar da, helburu hauekin:
 - Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzea.
 - Zaharkitutako industrialdeak birmoldatzea.

- Okupatuta ez dauden, industria-kalifikazioa duten eta tipologia berriak barne hartzeko egokiak diren lurzoruen garapena.
3. LPPTik, ondorengo birsortze-eremu hauek proposatzen dira:
- Poligono hauek: Belako, Trobika, Atxuri-Billela eta Zabalondo, Mungian.
 - Gatikako Industrialdea.
- Eskualdean jarduerarik gabe dauden tokiak:

Udalerrria	Izena	Azalera (m ²)	Kokapen-mota	Oharrak
Bakio	Compoplas, S.A.L.	1.305	Jarduerarik gabe	* Plastikozko kirol-ontziak ekoizten zituen
Gatika	Majestic	337	Hondatuta	* Eraikinaren gehiena hondatuta dagoen arren, gaur egun, sektore batean beste jarduera txiki batzuk garatzen dira, inbentarioaren sartzen ez direnak
Mungia	Serrerías industriales. S.A.	2877	Industrial jarduerarik gabe	* Zerrategi zaharra, lurzoru urbanizaezin orokor gisa kalifikatutako eremu batean, Trobika Auzoan
	Suministros y Fundiciones, S.A.	308	Industrial jarduerarik gabe	* Lubrifikatzaileen biltegi gisa erabiltzen da. Trobikan herri-lurzoru industrial gisa kalifikatutako lurzoruan kokatuta.

Hori guztia LPPak esku hartzeko modu hori berariaz aurreikusi ez duen udalerrietan birsortze-lanak egitea beharrezkotzat jotzen den eremuetan helburu horrekin jarduerak gauzatzeari kalterik egin gabe.

Gaur egungo sarbideen egoera egiaztatu behar da Atxuri-Billela poligonoaren biziberritzearen garapena gauzatu aurretik, eta zirkulazio ikerketa baten bidez ikusi nahikoak diren ala ez, eta ez betetzekotan segurtasun eta erosotasun oinarriko parametroak mantentzeko behar diren eraldaketak egingo dira

74. artikulua. Industria-lurren birkalifikazioa.

Gaur egun lurzoru industrial gisa edo jarduera ekonomikoetarako lurzoru gisa kalifikatutako lurzoruak egoitza-lurzoru gisa edo antzera birkalifikatzeko prozesuak onartuko dira, baldintza hauekin:

- Aldez aurretik eta behar bezala dokumentatuta justifikatuko da teknikoki, ekonomikoki edo urbanistikoki ezinezkoa dela hirigintza-eragiketa alternatibo bat planteatzea, hau da, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak jasotzeko esparru gisa eta modu osagarrian beren aparkaleku-zuzkidurarekin ekipaturik eraldatzea.

Jarduera ekonomiko berriek herri-bilbearen barruan izango duten kokapen zehatzarekin bateragarria den osaketa tipologiko bat izan beharko dute (jarduera aurreratuak, hirugarren sektoreko zerbitzuak, etab.).

- Hirigintza-plangintzan bere udalerrri-esparruan edo, bestela, eremu funtzionalean jarduera ekonomikoak ezartzeko lurzoru berrirako azalera baliokidea barne hartzea exijituko da. Lurralde Plan Partzialaren lurralde-ereduan zehaztutako okupaziorako muga-esparruan baitan egingo da gehikuntza hori beti.

3. ATALA

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU-BEHARRAK. LPP-AREN ESPARRU-EREDUA

75. artikulua. LPP-aren Esparru-eredua.

Beharren estimazioa, LPPak aurreikusitako Eredua araberako, 16 urteko eperako egiten da, eta epe hori da LPP guztien eta 8 urterako egokitzapenaren erreferentzia-esparrua.

Gainera eredu honen egokitzapena dago, 8 urteko eperako, udal plangintzetan erabili ohi dena.

76. artikulua. Jarduera Ekonomikoren Eredua kalkulatzeko oinarriak.

LPP honek ezartzen duen kalkulu-metodoaren helburua da LPP honetan aurreikusi den etorkizuneko Lurralde Eredurako kuantifikazio egokia lortzea, behar den Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru beharrezkoen azalera lortzeko.

77. artikulua. 16 urterako Esparru-eredua.

1. LPP honek Jarduera Ekonomikorako lurzoruaren beharra lurzoru okupatzeko 1,66 Ha/urtea areagotze-ratio bat aplikatuz kuantifikatzen du, 1990 eta 2002 ko epean okupatutako azalera oinarritzat hartuta.
2. Lurzoruaren kontsumo hori, etorkizunera begirako joera gisa ulertuz, beharren kuantifikaziorako oinarria da, eta Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru berrien 27 Ha-ko beharra eragiten du, 16 urterako LPParen esparru-ereduan.
3. Udal-plangintzak lurzoru-azalera hori dagoela ziurtatu behar du azaldutako estrategiak erabiliz, eta horien artean, aipatzekoa da eraikitako eta urbanizatutako ondarearen optimizazioa.
4. Jarduera Ekonomikorako lurzoruaren banaketa, udalerrri bakoitzari dagokionez, udalerrri bakoitzean erabili gabe dagoen lurzoruarekiko eta harrera-ahalmenarekiko proportzionalki egiten da.
5. VII. eranskinean ("Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-beharren kuantifikazioa Esparru-proposamenean 16 urteko epean") jarduera ekonomikoetako erabilerak barne hartzera bideratutako lurzorurako LPPko 16 urterako eredu-esparrua jaso da.

78. artikulua. Jarduera Ekonomikoko Eredua 8 urteko epera.

1. Bere Plangintza Orokorra berrikusten duen udalerrri bakoitzak jarduera ekonomikoetarako eskatutako lurzoruaren kalkulua egingo du, hark xedatzen duen eperako, 16 urterako LPParen esparru-ereduan zehaztutakoan oinarrituta.
2. LPPak 8 urterako Jarduera Ekonomikoko ereduaren zehazten du, eta, kuantitatiboki, udalerrri bakoitzean, 16 urterako esparru-ereduaren erdiaren baliokidea da, hau da, 13,5 Ha eremu funtzionalerako.
3. Udal-plangintzak proposatzen den ereduaren strategiaren araberako lurzoru-azalera dagoela ziurtatu behar du, eta, bertan ere, eraikitako eta urbanizatutako ondarearen optimizazioa barne hartzen da.

4. Udal-plangintzak lehenetsuen oinarriko ordena definitu beharko du eta programazio-baldintzak ezarri beharko ditu egokitzat jotzen dituen esparruetarako, Ereduaren arabera jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azaleraren eskuragarritasuna lortzeko helburua bete dadin.
Aldi baterako plangintza honetan, indarreko plangintzetan hutsik dauden aldean jarduketan garapena ezarri beharko da lehenetsunekotzat.
5. Jarduera Ekonomikorako lurzoruaren banaketa, udalerrri bakoitzari dagokionez, udalerrri bakoitzean erabili gabe dagoen lurzoruarekiko eta harrera-ahalmenarekiko proportzionalki egiten da.
6. VIII. Eranskinean (“Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-beharren behin-behineko kuantifikazioa Esparru-proposamenean 8 urteko epean”) ereduaren kuantifikazioa 8 urteko eperako jasotzen da, eta, bertan, esparru-ereduaren aplikazio gisa, zortzi urteko epean gauzatzea bermatu behar den lurzoru-azalera, jarduera ekonomikoetarako dena, adierazi da.

4. ATALA

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN ESKAINTZAREN MUGAK. LPP-AREN ESPARRU-PROPOSAMENA

79. artikulua. Eskaintzaren mugak: 16 urterako Esparru-proposamena.

1. Harrotze-koefizienteak esparru-ereduaren arabera aurreikusitako jarduera ekonomikoetarako lurzoru-beharretan aplikatzen dira, eskaintza bihurtzeko.
2. 16 urterako garapen bat planteatuz, ondorengo harrotze-koefiziente hauek aplikatu dira:
 - Udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gehieneko muga kalkulatzeko, hamasei urterako ereduko kuantifikazioa eta 2ko koefizientea biderkatu behar dira.
 - Udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gutxieneko muga kalkulatzeko, hamasei urterako ereduko kuantifikazioa eta 1,25eko koefizientea biderkatu behar dira.
3. Horren arabera kalkulaturako 16 urterako eskaintzaren gehieneko eta gutxieneko mugak IX. Eranskinean (“Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintzarako mugak, 16 urterako Esparru-proposamena”) jaso dira.

80. artikulua. 8 urterako eskaintzaren mugak aplikatzea.

1. Udal-plangintzaren Esparru-proposamena aplikatzea ahalbidetzeko, esparru hori Plangintzako aurreikuspen-aldira egokitu behar da.
2. Hiri plangintzetan ohizkoa den 8 urterako garapen bat planteatuz, ondorengo harrotze-koefiziente hauek aplikatu dira:
 - Udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gehieneko muga kalkulatzeko, 8 urterako ereduko kuantifikazioa eta 3ko koefizientea biderkatu behar dira.
 - Udalerrri bakoitzeko eskaintzaren gutxieneko muga kalkulatzeko, 8 urterako ereduko kuantifikazioa eta 1,5eko koefizientea biderkatu behar dira.
3. Horren arabera kalkulaturako 8 urterako eskaintzaren gehieneko eta gutxieneko mugak X. Eranskinean (“Jarduera Ekonomikoetarako lurzoruaren behin-behineko eskaintzaren mugak, 8 urtera”) jaso dira.

5. ATALA

EKONOMIA-JARDUEREN ERRESERBA ESTRATEGIKOA

81. artikulua. Ekonomia-jardueren erreserba estrategikoa.

1. Ekonomia-jardueren erreserba estrategikoko eremu bat proposatzen da Bilbao-Mungia korridorearen mendebaldean, 40 Ha baino handiagoa ez zena.
2. Mugatutako okupaziorako muga-esparruen garapenak lehentasunezko zat jotzen da, eta hori dela eta, esparru horietan Planaren indarraldian erabilgarri dagoen eskaintza osoaren zati handiena finkatuko balitz soilik garatu ahal izango zen planteatutako erreserba estrategikoa, behar bezala arazoituta, edo aukera estrategikoa duen egoera bat sortuko balitz, aipatutakoak bezalakoak, lurzorua azalera handia behar duen interes publikoko jardura bat ezartzeko.
3. Esparruaren garapenaren aurretik, beharrezkoa izango da berara sarbide ematen duten bide elementuen ahalmena estudiatzea, baita ere beraren ingurunean aurrez ikusitako jardueren osotasuna burutuko duen zirkulazio ikerketa egitea balioesteko gaurko irisgarritasunaren egokitasuna edo aitzitik osatzen duten elementuak gutxiegi ateratzen badira eta beraz beraien edukiera handitu behar duten, handitzea lurzorua kontura izango da.

Halaber, eta Mungiara proiektatutako sarbideko bidegorria lurzorura sarbidea emango lukeen errepidetik igarotzen dela kontutan izanda, hau sektorarako karguarekin eraiki behar izango litzateke ere.

IV. TITULUA

LURRALDE BIGUNA

1. KAPITULUA

LURRALDE BIGUNERAKO LURRALDE-EREDUA

82. artikulua. Lurralde Bigunerako helburuak eta irizpide orokorrak.

1. Lurralde Bigunarekin lotutako helburu orokorrak, zehazki, honakoak dira:

- «Lurraldearen iragazkortasuna» bultzatzea herritarrentzat, herritarrek natura gozatzea ahalbidetzeko mekanismoak bilatuz, baina eremu desberdinen helburuekiko modu bateragarrian.
- Herritarren eta lurraldearen arteko kontaktua eta elkarrekintza, ingurumen-kalitatearen mantentzearekin bat datorren jokabide parte-hartzailea sortzen duen ingurumen-kointzidentzia bilatuz.
- Lurraldearen erabilpena eta bere balio ekologikoak, paisaiarenak, produktiboak, zientifikoak eta kulturalak herritarren lurralde horiekin gozatzeko eta ongi pasatzeko nahia bateratzea.

83. artikulua. Lurralde bigunerako Lurralde-eredua.

1. Lurralde Bigunerako Lurralde-eredua titulu honetan eta O-03.1 eta O-03.2 Lurralde Biguna antolamendu-planoan ezarritako zehazpenen bitartez osatzen da.

2. KAPITULUA

LANDA-NUKLEOAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

84. artikulua. Landa-guneetako ereduaren helburuak.

LPPko helburu zehatzak, eremu funtzionaleko landa-guneei dagokienez, honakoak dira:

- Lurzoru Urbanizaezinean nekazarietzako ezarpen berriak lehenestea, egoitzenak soilik diren ezarpen berriak egiteko aukeraren aurretik.
- Biztanle-guneen landa-izaera berreskuratuz. Beren zedarripena berriz planteatzea.

85. artikulua. Landa-guneen eredua.

LPP honetako landa-guneei buruzko eredua kapitulu honetan zehaztutakoaren eta O-03.1 Lurralde Biguna-Landa-guneak antolamendu-planoko informazioaren arabera osatzen da.

Kapitulu honetan jasotako proposamenak orientazio-modukoak dira udal-plangintzarako.

2. ATALA

LANDA-GUNEEN ARAUKETA

86. artikulua. Definizioa.

1. Kapitulu honetan Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera definitutako Landa-guneak arautzen dira, sei eta hogeita bost baserri arteko multzo bat, biltzen dituen eta beren izaera ematen dien espazio publiko baten inguruan bilduta.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen eraikinari deritzo baserri.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak bere lurralde historikoko landa-guneen inbentarioa egingo du lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien 105/2008 dekretuaren 7. artikuluan ezarritako prozedura jarraituz.

Hirigintza plangintzan ezin ezar daiteke inbentarioan halakotzat agerrarazi ez diren landa-guneak.

87. artikulua. Landa-guneen arauketa.

1. Landa-guneak EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan horri buruz ezarritakoaren arabera arautuko dira, arau hauetan LPPak plazaratzen dituen irizpideei kalterik egin gabe.
2. Lurzoru Urbanizaezinean dauden gainerako eraikinak 2/2006 Legean eta udal-plangintzan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

88. artikulua. Landa-guneak berrikusteko irizpide orokorrak.

1. Bizkaiko landa-guneen inbentarioa onetsitakoan, LPP honek ezarritako landa-guneari nagusituko zaio. Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden landa-guneen inbentarioa onesten ez den bitartean, honako xedapen iragankor hauek ezarri ditu LPP honek:
 - Legearen baldintzak argi eta garbi betetzen dituzten landa-guneek (eta, beraz, udal plangintzak) landa-gunearen kalifikazioari eutsi ahal izango diote. Hauexek dira: Agarre, Goiri y Jainko, Arrietan; Andeko, Botiola y Mandaluniz Fruizen; Olagorta Gamiz-Fikan; Billabaso, Maruri-Jataben; Amezaga, Meñakabarrena y Mesterika, Meñakan eta Larrauri-1 Mungian.
 - Gutxienez 6 baserri izateko baldintza betetzen ez duten landa-guneek ezin izango diote eutsi landa-gunearen kalifikazioari eta, beraz, deskalifikatu egin beharko dituzte udal plangintzek. LPPn, modu iragankorrean deskalifikazio egin arten, eraikuntza berriak egiteko aukera ezeztatzen da. Hona hemen landa-guneok: Madariaga-Samese, Urebarri eta Urtialde Arrietan; Batiz, Lotina eta Ugane Fruizen; Garaioltza Gamiz-Fikan; Basaldu, Gorordo, Gorordo-Landaluze, Gorordo-Santune, Libarona, Ugarte eta Zurbano Gatikan; Etxezuri eta Mentxaka Laukizen; Asteinza Maruri-Jataben; Bekoetxe eta Ugarte Meñakan, eta Zabalondo Mungian.

- Gaur egun 25 eraikin edo gehiago dituzten landa-guneek ezin izango dute eraikuntza berririk garatu landa-gunearen barruan. Landa-gune horiek dagoeneko garatuta daudela irizten zaio eta, beraz, ez dute hazkunderik izateko aurreikuspenik. Hona hemen landa-guneok: Belako-Llona, Atxuri, Billela, Elgezabal, Emerando, Iturbaltza, Laukariz eta Markaida 2 Mungian
 - Egoitza-erabilera eta 25 eraikin baino gehiago dituzten aurreikusitako garapenak egiten diren landa-guneetan, berriz egin beharko du zedarripena udal plangintzak, halako moldez non eraikuntza posibilitateak ez baitira 25 eraikinetik gorakoak izango. Egoera hori dago Larrauri-2n Mungian.
 - Landa-gune izaera ematen dien ageriko herri gunerik ez duten landa-guneetan, Udal Plangintzan begiratu behar da horrelakorik dagoen ala ez ezarrita dagoen jakiteko. Hauexek dira sei eta hogeita bost baserri biltzeko baldintza bete arren ageriko landa-gunerik ez dutenak: Baieneta Arrietan; Goitisolola eta Zubiaur Bakion; Beaskoetxe, Landaberde, Azillona eta Soietxe Gamiz-Fikan; Garai Gatikan; Emerando, Meñakan; Atela eta Atekene, Markaida-1 eta Ipintxe Mungian.
2. Udalek eremu funtzionaleko Landa-guneak berrikusten dituztenean, ondoren azaldutako irizpide hauek bere beharko dituzte:
- 1 Landa-gunearen lege beharkizunak betetzen direnean, landa-gune bakoitzaren zedarripena berrikusi egin beharko da beren azalera eta eraikuntza-ahalmena landa-guneei dagokionera egokituz, abeltzaintzako eta nekazaritzako ahalmena duten lurzoruen babesa defendatzeko.
 - 2 Landa-gunea gisa sailkatutako azalera murriztuz gero, lurzoru liberatuari dagokionez Ingurune Fisikoaren kategorizazio berria inguruarekiko koherentea izango da.
 - 3 Lehenengo sektoreko jarduera bermatzeko ahaleginak egingo dira, eta egoitza-erabilera baino ez duten eraikinak eraikitzea ekidingo da.
 - 4 Landa-guneen zedarripena eta erregularizazioa beren izaera historikoa eta nekazaritzakoa babesteko neurrien barruan jaso behar da.
 - 5 5/1998 Legeko aurreikuspenen arabera garapena burutu duten landa-guneen kasuan, baserrien kopurua 25etik gorakoa bada ere, landa-izaerakotzat jotzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatu beharko da, hau da, beren etxebizitzak espazio publiko baten inguruan pilatuta dauden ala, aitzitik, sakabanatutako esparruak diren.
 - 6 5/1998 Legeko aurreikuspenen arabera landa-gunearen garapena burutu ondoren, LPPak okupazioaren muga-esparruen barruan sartu dituen landa-guneetan soilik gauzatu ahalko dira garapenak, eta hazkuntza horiek udal-ereduetan justifikaturik daudenean soilik.
LPP honetan ez dago egungo landa-guneetarako herri-hazkuntzarik egiteko proposamenik.
 - 7 Landa-guneetako eraikuntza-tipologia dagoenaren antzekoa izango da, landa-guneak berezko dituen ezaugarriak mantenduko dira, multzoak sortzeko gai direnak.

89. artikulua. Landa-guneak antolatzeako irizpideak.

Eremu funtzionaleko guneen berrikuspena Plangintza Orokor baten edo Plan Berezi baten bitartez egingo da. Horretarako, dokumentu honetako XI. Eranskinean aipatutako informazioa emango da.

3. KAPITULUA

AISIALDIRAKO EREMU NATURALAK

1. ATALA

EREDUAREN XEDAPEN OROKORRAK

90. artikulua. Aisialdirako eremu naturalen ereduaren helburuak.

LPPko helburu zehatzak, eremu funtzionaleko Aisialdirako Eremu Naturalei dagokienez, honakoak dira:

- Herritarrak naturara iristea eta kontaktuan egotea erraztea, landa-gunea inolako bereizketarik egin gabe inbaditzea ekiditea, baita sarrera itoak ere, eta herritarren aukeratzeko alternatibak eskaintzea.
- Zubiek aisialdirako duten balioa sustatzea.
- Aisialdirako eremu naturalen sistema bat ezartzea.

91. artikulua. Aisialdirako Eremu Naturalen eredia.

LPP honetako Aisialdirako Eremu Naturalen inguruko eredia Kapitulu honetako zehazpenen eta O-03 Lurralde Biguna antolamendu-planoko informazioaren arabera osatzen da.

Kapitulu honetan eremuen zedarripenari buruz jasotako proposamenak orientatiboak baino ez dira, eta beren garapenean egokitu ahalko dira.

2. ATALA

AISIALDIKO EREMU NATURALEN ARAUKETA

92. artikulua. Aisialdirako Eremu Naturalen Arauketa.

1. Eremuen multzoaren antolamendu integrala ondorengo irizpide orokor hauetan oinarrituz egingo da:

- Kontuan hartuko da zerbitzua eskaintzen zaion populazioa, termino kuantitatibotan nahiz kualitatibotan.
- Lurraldearen potentzial naturala eta balioa kontuan hartuko dira, natur balio horiek lehenetsiz baimendutako zabalaldirako erabileren aurretik.
- Espazioa ahal bezain eskaera anitzari erantzuteko moduan antolatu beharko da, aintzat hartuta eremurik urrakorrenetako osagai naturalaren gehienekotik irisgarritasun handieneko eremuetako erabilera-intentsitate handieneko eremuetara bitarteko gradientea.
- Erabileraren intentsitatea harrera-gaitasunaren azpitik planifikatuko da beti, bere bi alderdietan: ekologikoa eta pertzepziokoa nahiz psikologikoa.
- Aisialdirako Eremu bakoitzean, zerbitzuaren jasotzaileei arreta ona eskaintzea ahalbidetzeko behar diren ekipamenduak eta zerbitzuak instalatuko dira.

- Erabilera anitzak ezarriko dira, kirolerako azpiegitura bakunei eta didaktikoei lehentasuna emanez.
 - Proposatutako aisialdi-erabilerak dagoen nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerarekin bat etorritik ezarri beharko dira.
2. Aisialdirako Eremu Naturalak etapa-, lehentasun- eta baliabideen eskuragarritasun-plan baten arabera programatu eta garatu beharko dira, eta, ahal dela, modu mankomunatuaren kudeatua beharko dira.

93. artikulua. Aisialdirako Eremu Naturalen Kategorizazioa.

Aisialdirako Eremu Naturalak honela kategorizatuko dira, beren oinarritzko tipologiaren arabera, kontuan hartuz zein esparrutarako diren:

- Herri-inguruko Aisialdi Eremuak
- Eskualdeko Aisialdi Eremuak
- Eskualdez gaindiko Aisialdi Eremuak.

94. artikulua. Herri-inguruko Aisialdi Eremuak.

1. Udalaz gaindikoa ez den esparru batekin lotutako aisialdi-esparruak barne hartzen dituzte.
2. Beren zedarripena, antolamendua eta esku-hartze erregimena kasuan kasuko udal-plangintzako instrumentuek
3. Kategoria honetan sartzen dira Mungiako Urigen-Zugastian eta Torrebilletan dauden parkeak.

95. artikulua. Eskualdeko Aisialdi Eremuak.

1. Natura-, paisaia- eta kultura-interesekoak diren, harrera-ahalmen handiagoa dute, aisialdiko erabilerarekin lotuta dauden eta udalaz gaindiko esparrukoak diren eremuak barne hartzen dituzte.
2. Ekipamendu eta zerbitzu egokiak eduki behar dituzte aisialdia sustatzeko, eta horien titulartasunak ez du zertan publikoa izan.
3. Aisia eskaintzeaz gain, ingurumen-arloa babestu eta hobetzea proposatzen da, kontuan hartuz balio natural handiko lurzoruak barne har ditzaketela. Planteatutako erabilera eta esku-hartze posibleek babes horrek ezarritako mugak eta baldintzak errespetatu beharko dituzte.
4. LPPak Aisialdirako Eremu Natural hauek proposatzen ditu eskualdean:
 - San Pelaio baselizako Aisialdi Eremua
 - Jatako Aisialdi Eremua, Sollube
 - Unbe-Berreagako Aisialdi Eremuak
 - Butroe ibaiko Aisialdi Eremu lineala
 - Morterondoko Aisialdi Eremua
 - Gondra-Basobil-Erdikolandako Aisialdi Eremua.

96. artikulua. Eskualdez gaindiko Aisialdi Eremua.

1. Kategoria honen barruan daude eskualdez gaindiko esparrukoak izanik balio natural eta ekologiko handiagoko eremuak, paisaia- eta kultura-arloetan interesgarriak eta enblematikoak direnak EAE mailan.
2. Aginte publikoek lehentasunezko jarduketa egin behar dute bertan, bertako baliabide naturalen ustiapena nahiz erabilera publikoa bateragarria izateko balio ekologikoak, estetikoak edo hezkuntza-balioak kontserbatzearekin edo berreskuratzearekin.
3. Horiek balioesteko, ezinbestekoak dira beren ingurumen-hobekuntza eta oinarrizko egokitzapena (behatokiak eta zidorrak, interpretazio-lekuak), eta saihestu egin behar dira kontrolik gabeko garapenak.
4. LPPak Aisialdiko Eremu Natural gisa, Eskualdez gaindiko kategoriaren barruan, Bakioko labarren esparrua proposatzen du.

4. KAPITULUA**NATURA-IBILBIDEAK****1. ATALA****EREDUAREN XEDAPEN OROKORRAK****97. artikulua. Natura-ibilbideen ereduaren helburuak.**

LPPko helburu zehatzak, eremu funtzionaleko natura-ibilbideei dagokienez, honakoak dira:

- Lurralde Bigunaren elementuen artikulazioa ezartzea aisialdirako ibilbide-sare bat prestatuz oinez nahiz bizikletaz egiteko.

98. artikulua. Natura-ibilbideen eredia.

LPP honetako Natura-ibilbideen inguruko eredia kapitulu honetako zehazpenen eta O-03.2 Lurralde Biguna antolamendu-planoko informazioaren arabera osatzen da.

2. ATALA**NATURA-IBILBIDEEN ARAUKETA****99. artikulua. Natura-ibilbideen arauketa.**

1. Natura-ibilbideen trabadura irizpide hauen arabera ezarri beharko da:
 - ibilbideetan lehentasuna ematea eremuko paisaia-interesari, etnografikoari eta kulturalari.
 - ahal dela, lehendik dauden landako bideetan eta errepideetan kokatzea, eta, ahal den neurrian, ibilgailuen zirkulazio-dentsitaterik handiena duten errepideak saihestea, eta nekazaritzako eta basogintzako erabileretan eraginik ez izateko prebentzio-neurriak hartu beharko dira.

- oraingo ibilgailuen plataforma berrantolatzea, ibilgailuen galtzada estutuz eta oraingo bazterbideak handituz; horrela, zirkulazioaren noranzko bakoitzean norabide bakarreko errea egokituko da.
- bide-zorua egokitzea behar duten tartetean eta markatutako puntuetan trazadurak osatzea.
- trafiko gehiago duten bideetatik igarotzen diren tartetean, bi erabilerak bereizteko jarduerak aurreikusi beharko dira.
- balizen eta informazio-seinaleztapenaren zuzkidura.

5. KAPITULUA

ONDAREA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

100. artikulua. Ondare-ereduaren helburuak.

LPPko helburu zehatzak, eremu funtzionaleko Ondareari dagokionez, honakoak dira:

- Eskualdeko natura-ondarearen, ondare arkeologikoaren, historikoaren eta kulturalaren elementu katalogatuak babestu eta kontserbatzea.
- Katalogatu gabeko elementu interesgarriak behar bezala baloratzea.
- Eskualdeko ondarea osatzen duten elementuen sareko konexioa sustatzea.

101. artikulua. Ondare-eredua.

LPP honetako Ondareari buruzko kapitulu honetako zehazpenen eta O-03.2 Lurralde Biguna antolamendu-planoko informazioaren arabera osatzen da.

2. ATALA

ONDAREAREN ARAUKETA

102. artikulua. Ondarearen arauketa.

1. LPPak 7/1990 Legeak babestutako Ondasun Kulturalak jasotzen ditu, hau da, Euskal Herriko Ondare Kulturala osatzen dutenak, eta, ondorioz, udal-plangintzetan jaso beharko lirateke. Elementu horiek XII. Eranskinean geratu dira jasota.

- a) Monumentu kategoria duten Kultura-ondasunak
- b) Monumentu-multzo kategoria duten Kultura-ondasunak
- c) Presuntzio arkeologikoko eremu deklaraturako eremu arkeologikoak.

Halaber, halakotzat hartuko dira lege horrek edo berorren ordezkoez etorkizunean babestu ahal dituztenak, LPPan jasota ez badaude.

2. Udal-plangintzari dagokio katalogoetan integratuko den ondare eraikiaren elementuak zehaztea eta, gutxienez, katalogatutako eta artikuluko honen 1. puntuari aipatzen diren ondasun kulturalak jaso beharko ditu, XII. Eranskinean bilduak, baita EAEko Monumentu edo Monumentu Multzo izendatzeko proposaturiko ondasunak ere (XIII. Eranskinean bilduak).

Era berean, gomendatzen da udal katalogoetan Euskal Kultura Ondarearen Zentroko kultura-intereseko elementuen katalogoen babes-proposamenen bat duten elementuak sartzeko, katalogo orokorretan eta berriazko beste babes-erregimen batzuetan jaso gabeko intereseko beste elementu batzuk sartzeari utzi gabe.

LPPak orientatzeko informazio gisa XIV. Eranskinean interes lokala diren, katalogatu gabe dauden eta udal-mailan jasotzeko eta babesteko proposatzen diren beste elementu batzuk jasotzen ditu.

Dokumentu honetan Eranskin gisa sartutako zerrendetan egindako edozein aldaketa, Lurralde Zati Plana indarrean sartu ondoren onartutakoa, zerrendan sartua izan dela iritziko da eta egungo zerrendak ordezkatzeko ditu, Lurralde Zati Plana aldatu behar izan gabe.

3. Garapen plangintzetan, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea oinarri hartuta babestuta dauden kultur ondasun higiezinaren babesari buruzko araubide sartu behar da.

4. 1. puntuari aipatzen diren kultur ondasun kalifikatuei dagokienez, kalifikazio dekretuek zehazturiko babes araubidea eta zedarripena bildu beharko ditu plangintzak.

Plan Gidarian ezarri diren dagozkien zehaztapenek arautuko dituzte Urdaibaiko Biosfera Erreserbako arkeologia-ondare gisa kalifikatutako elementuak.

5. Inbentariaturiko ondasunei dagokienez (Lege horren 20. artikulua), osotasuna bermatu beharra ezarriko da, suntsitu, galdu edo kaltetu ez dadin.

6. EAEko Monumentu edo Monumentu Multzo izendatzeko proposaturiko ondasunei dagokienez, espedienteak noiz egingo zain, hauxe gomendatzen da: jarduketak Lehengoratze Zientifikoaren eta Kontserbazio Lehengoratzearen gainekoak izatea, Ondare Urbanizatua eta Eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuak dakartzan "Lehengoratze jarduketak" I. eranskinean zehazturikoaren arabera.

7. Interes Kulturalako Ondasun gisa aitortuta ez daudelako inolako sektoreko babes-araudirik ez duten eta eraikin historikoak izateagatik, beren motagatik edo beste ohar batzuegatik udal-katalogoan jasota dauden elementuetarako, Udal-plangintzak erabakiko du zein den egokitzat jotzen duen babes-erregimena, eta, horrek XV. eranskinean ezarritako babes-erregimena jaso beharko du, gutxienez.

8. Udalerri bakoitzak inbentarioaren katalogo baloratu bat sortze proposatzen da, bere egungo egoerari, kontserbazio-lehentasunari, jarduera-planari eta jarraipen-programari erreferentzia eginez, eta artikuluko honetan jasotako elementuak minimoki jasoz.

9. Administrazio eskudunek herriko egitura, monumentu, eraikin eta eskualdean dagoen kultura-ondare eraikia eta arkeologikoa osatzen duten gainerako elementuak balioetsi, babestu, antolatuta eta eguneratzeko beharrezkoak diren obrak gauzatu ahalko dituzte, edo, bestela, azterlanak, planak edo proiektuak finantzatu ahalko dituzte.

6. KAPITULUA

PAISAIA

1. ATALA

EREDUAREN XEDAPEN OROKORRAK

103. artikulua. Paisaia-ereduaren helburuak.

1. Arlo Funtzionaleko Paisaiari dagokien LPPko helburu estrategikoak honakoak dira:

- Bere izaera natural edo kulturalagatik, jarduera integratuak edo espezifikoak eskatzen dituzten paisaien balioen kontserbazioa.
- Baserri-eremuko paisaien mantenua, hobekuntza eta zaharberritzea.
- Paisaiaren artikulazio harmonikoa, biztanleriarentzako irisgarritasuna handiena dituzten paisaietan arreta berezia jartzen, baita ere hiri eta baserri eremuen eta lurreko eta itsas eremuen arteko lotura espazioak.
- Lurraldearen gaineko esku-hartzeen integrazio paisajistiko egokia, bereziki azpiegiturei buruzkoak.
- Baliabide turistiko bezala paisaiari balioa ematea.

2. LPPko helburu zehatzak, eremu funtzionaleko Paisaiari dagokionez, honakoak dira:

- Paisaia-adierazgarritasun handiena duten eremuak sustatzea.
- Jata-Sollube mendigunea eta hegoaldeko zubia paisaiaren eremu enblematiko gisa sustatzea.
- Mungia haranaren paisaia bereizgarria mantentzea bermatzea.
- Zerbitzuen sare eta elementuen eragin negatiboak, izaki bizidunen eta paisaiaren gainekoak, prebenitu eta zuzentzea.

104. artikulua. Paisaia-eredua.

LPP honetako Paisaiaren inguruko eredua Kapitulu honetako zehazpenen eta O-03.2 Lurralde Biguna antolamendu-planoko informazioaren arabera osatzen da.

2. ATALA

PAISAIAREN ARAUKETA

105. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Eremu funtzionaleko paisaia analizatzeko, LPPak lurraldea sektore hauetan banatzen du: Bakioko kostaldea, Jata-Sollubeko mendigunea, Mungia-Butroe harana eta hegoaldeko perimetroko mosaikoa.
2. Atal honetan, esparru bakoitzaren berezko ezaugarrien arabera balioesteko irizpideak ezartzen dira.

106. artikulua. 3. LPP honetan ezartzen diren zehaztapenak jarraibide bezala erabiliko dira Paisaiaren Katalogoak eta 90/2014 Dekretuan identifikatzen diren babesak, kudeaketa eta paisaiaren antolamenduaren gaineko tresnak lantzean..Kostaldeko jabetza.

1. Eremu hau Balioko labarretako Eskualdez gaindiko Aisialdi Eremuarekin pareka daiteke. Eremu horretan, paisaia-mailan erakargarriak diren guneak daude, ikusteko interesgarriak direnak, adibidez, Gaztelugatxeko multzoa, Atxuloko labarrak, Bakioko hondartza, etab., eta horiei Bakio-Armitza errepideko hainbat gunetan ikusten diren panoramikak gehitzen zaizkie, baita hurbileko mendietako gailur batzuk ere, eta horien inguruan eskaera turistikoa eta aisialdikoa dago.
2. Horiek balioesteko, ezinbestekoak dira beren ingurumen-hobekuntza eta oinarrizko egokitzapena (behatokiak eta zidorrak, interpretazio-lekuak), eta saihestu egin behar dira kontrolik gabeko garapenak.

107. artikulua. Jata-Sollube mendiguneko jabetza.

1. Eremu hau Jata eta Sollubeko Eskualdeko Aisialdi Eremuekin pareka daiteke. Eremuko paisaia enblematikoa denez, paisaia-intereseko eremuaren zedarripenak gailur eta hegal ikusgarri batzuk barne hartzen ditu.
2. Basogintzako aprobetxamenduaren erabileretan kontuan hartu beharko da paisaiaren babesak, eremu horiek aisialdirako duten potentziala ahaztu gabe.
3. Beharrezkoa izango da erabilerak erregulatzea, gailurrak tramankuluekin (antenak, itxidurak, eraikuntzak, etab.) modu desegokian tratatzea ekidin beharko da, baita lur orotako ibilgailuekin lotutako erabilera kontrol gabeen ondoriozko higadura ere.

108. artikulua. Mungiaiko haraneko jabetza.

1. Paisaia-interes bereziko eremuak dauden landazabaleko bi aldagaien eremu adierazgarriei dagozkie: ibarreko landazabala eta muinoetako landazabala.
2. Beren balioespenerako, ezinbestekoa da proposatutako natura-ibilbideak sustatzea Butroe ibaiaren dinamikak modelatutako erliebe leuna eta bere nekazaritzako landazabal tradizionalaren paisaia erakargarria balioztatzea.
3. Paisaian duten eragina dela-eta arazotsuenak diren eta paisaia-arloa hobetzeko jarduerak proposatzen diren elementuak honakoak izango lirateke:
 - Landako egoitza-garapen handia. Lurzoru Urbanizaezineko eraikin berriak kontrolatzera eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera tradizionala mantentzera bideratutako proposamenak ezarri beharko dira.
 - Bide- eta energia-azpiegiturek. Zehazki, Gatikako elektrizitate-guneak aireko hamar linea elektriko handi barne hartzen ditu eta eremua norabide guztietan zeharkatzen dute.

109. artikulua. Hegoaldeko perimetroko mendi-hegaletako jabetza.

1. Eremu hau Berreagako Zubiko Eskualdeko Parkearekin pareka daiteke.
2. Jata-Sollube mendiguneko jabetzaren zehazpenak aplikatuko dira.

7. KAPITULUA

BIGARREN EGOITZA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

110. artikulua. Bigarren egoitza.

LPP honek ez du esku-hartze estrategikorik aurreikusten bigarren egoitzari dagokionez.

111. artikulua. Lehentasuna duten baliabide turistikoak.

Lehentasuna duten baliabide turistikotzat joko dira:

- Puntu honetan Eskualdeko eta Eskualdez gaindiko Aisialdi Eremu gisa jasotakoak
- Bakioko hondartza
- Ondare-ondasun babestuen inbentarioko monumentuak, eraikinak, etab.

112. artikulua. Lehentasunezko baliabide turistikoen arauketa.

LPP honen garapenean, azterlan, plan edo programa integratuen bitartez, alderdi hauetan sakonduko da:

- Irisgarritasuna hobetzea eta aparkalekuak Bakioko hondartzan.
- Eskualdeko irudi korporatiboaren diseinua, baita baliabide naturalen, bideen, auzoen, elementuen, eraikinen eta Eskualdeko irudia osatzen duten gainerako elementuen seinaleztapena hobetzea.
- Bakio-Bermeo errepidea paisaia-intereseko turismo-ibilbide gisa egokitzea. Ingurumenaren kalitatea, behatokiak, laguntza-zerbitzuak eta jolaserako ekipamenduak mantendu behar dira.

V. TITULUA

MUGIKORTASUNA

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

113. artikulua. Mugikortasun-sistemaren xedea eta definizioa.

1. LPPak proposatutako lurralde-ereduak mugikortasunaren arloan ekintza batzuk barne hartzen ditu eremu funtzionala behar bezala antolatzeko eta lurralde-eredu hori definitzen duten irizpideen arabera.
2. Titulu honen edukia ondorengo eskema honen arabera egituratuta geratzen da:
 - a) Mugikortasun alternatiboa
 - b) Garraio publikoa. Intermodalitatea
 - c) Bide-sarea.

114. artikulua. Mugikortasun-eredua.

1. LPP honetako Paisaiaren inguruko eredua Titulu honetako zehazpenen eta O-04 Bide-sarea eta O-05 Mugikortasun Alternatiboa antolamendu-planoen arabera osatzen da.

2. KAPITULUA

MUGIKORTASUN ALTERNATIBOA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

115. artikulua. Ereduen helburu orokorrak.

Hauek dira Lurralde Zati Planaren helburuak eremu funtzionaleko mugikortasun alternatiboari dagokionez:

- Autoarekiko menpekotasuna murriztea, eta modalitateen banaketan autoaren garrantzia alderantzikatzea.
- Garraiobide alternatiboan aukerak areagotzea, herritarrei oinez eta bizikletan edo garraiobide publikoan erosotasun- eta segurtasun-baldintza egokietan ibiltzea ahalbidetzen dieten baldintzak sustatuz.
- Leku-aldaketa motordunen eraginak murriztea, beren kontsumoak eta tokiko eta mundu-mailako isurketak murriztuz eta kaleen gainerako erabiltzaileekin segurtasun-baldintza onargarrietan biziz.
- Automobilaren menpeko guneak hedatzea ekiditea eta autoaren menpeko hirigintza—ereduaren hedapena geldiaraztea.

- Hurbiltasuna herrien balio gisa berreraikitzea, eguneroko bizitzak distantzia handiko lekualdaketarik gabeko baldintzak izateko.
- Espazio publikoa bizikidetzarako toki gisa berreskuratzea. Igarotzeko leku eta kirolerako leku izan beharrean, kaleek topaketarako gunee eta forma anitzeko bizikidetzarako toki izan behar dute.

116. artikulua. Mugikortasun Alternatiboko Eredua.

LPP honetako Mugikortasun Alternatiboaren inguruko eredua Titulu honetako zehazpenen eta O-05 Mugikortasun Alternatiboa antolamendu-planoaren arabera osatzen da.

2. ATALA

MUGIKORTASUN ALTERNATIBOKO SAREAREN ARAUKETA

117. artikulua. Jarduera-lerroak.

1. LPP honek lau jarduera-mota proposatzen ditu hiri barruan lehentasunezko bideetan:

- Ibilgailu motordunak eta bizikletak aldi berean erabilgarriak diren sarearen tarteak bizikletan ibiltzeko sarean batu.

Behar duten tarte haietan zorua egokituko da eta seinalizatutako puntuetan ibilbideak osatuko dira.

- Zikloturista praktikarako errepidearen egokitzapena.
- Horretarako ibilgailuentzat hiri artean dauden bideen plataforma egokitzeko eta zalbaltzeko jarduketak egindo dira, plataforma berrantolazioaren bidez: ibilgailuentzako galtzada estutuz, abiadura gutxitzea eragingo baitu, eta egungo bazterbideak zabalduz (gorriz pintatzen dira eta lehentasunez txirringulaz erabiltzeko seinaleztatzen dira), eta, ondorioz, zirkulazio-noranzko bakoitzean norabide bakarreko errei bakarria jarriaz piegitura berriak existitzen den bide sarera paraleloan. Bereziki motordun trafiko handietako guneetan teknikoki posible gertatzen denean.
- Bizikletan ibiltzeko bide berriak. Kasu berezietan bide berriak sortzea proposatzen da.

2. Herri-lurzoruen gaineko jarduerak:

- herri-lurzoru finkatuen gainean, bidegorriak ezartzea ahalbidetzeko moduko neurriak dituzten kaleak edo trafiko motordunerako debekatutako tarteak daudela aprobetxatuz.
- garapen berrietan, beren antolamendu-proiektuetan bidegorriak barne hartuz.
- udalerriei 30 km/ordukoko eremuak ezartzea gomendatzen zaie. Eremu horietan, ibilgailuen trafikoa zorrozki mugatzen da 30 km/ordura, eta bizikletei, gainerako ibilgailuen trafikoari bezala, mundu osoak mundu osoa errespetatzen duen espazioak partekatuz behartzen zaie, eta hiri-espazio bat da, non bizikidetzak lehentasuna duen.

3. Bide horien gauzatze materialak jarduten den esparrura hoberen egokitzen diren tipologiaren eta materialen araberakoak izango dira, landako eremuetan, bereziki.
4. Herri Lan eta Garraio Sailak idazten duen Bizkaiko Bizikleten Bideen LPPa Bizkaiko lurraldea egituratu beharko duten bizikletan ibiltzeko ardatzak zehaztuko ditu eta lehentasunezko izaera duten hiri tarteak bigarren mailako izaera dutenen artean bereiztuko ditu.

118. artikulua. Eskemaren eta trazaduraren definizioa.

1. Motorrik Gabeko Mugikortasun Sarearen azpiegituraren eskema grafikoa, LPP honen ondorioetarako, herri-garapeneko eremuetan dauden egoitzak eta jarduera-, lan- edo aisialdi-gune nagusiak lotzeko irizpideen formalizazio definitzen da.
2. LPPak Motorrik Gabeko Mugikortasun Sarearen azpiegituraren proposamena ezartzen du azpiegitura horren eskema O-05 Mugikortasun Alternatiboaren Antolamendu-planoan definitzen da.

Sare honetan barne hartutako ibilbide nagusiak honakoak izango lirateke:

- Mungia-Trobika-Larrauri-Bakio (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan).
 - Bakio-Gaztelugatxe (dagoen bidea egokituz).
 - Mungia-Billela-Jatabe-Igartua-Butroe (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan).
 - Mungia-Gatika-Laukiz (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan).
 - Gatika-Jatabe (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan).
 - Bilbainarako lotura dagoen bidegorritik.
 - Mungia-Atela-Belako-Fruiz-Arrieta (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan).
 - Belako-Meñaka-Larrauri (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan).
 - Belako-Ikastola" Larramendi"-Gamiz-Fika (errei propioarekin, plataforma partekatuz edo dagoen errepidearekiko pixka bat paraleloan eta Ikastolaren eta Gamizen arteko bide txikiagoak egokituz).
3. Ibilbide horien eskema, definizio grafikoari dagokionez, orientazio gisa proposatzen da.
Eskema horren garapen xehakaturia eta kokapena plangintzako instrumentu egokiek garatuko dute, betiere ezarritako konexio-irizpidea errespetatuz eta, edozein kasutan ere, LPPak definitutako Motorrik Gabeko Mugikortasun Sarearen zentzua justifikatuz.
 4. LPP honetan aurreikusi gabeko oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen planifikazioa, bai herri-esparruetan, bai landako eremuetan, hemen ezarritako oinarriko egituraren osaketa-irizpidean oinarrituz, kasuan kasuko udalerriri dagokio.

3. KAPITULUA

GARRAIO KOLEKTIBOA. INTERMODALITATEA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

119. artikulua. Garraio Kolektiboaren Helburuak.

Lurralde Zati Planak helburu hauek zehazten ditu:

- garraio kolektiboa ezartzea, prestazioak hobetu, bai maila materialean bai zerbitzu mailan.
- Dauden garraio kolektiboen artean sinergiak bilatzea
- Garraio pribatuarekin alderatuta, maiztasunean eta ibilbidean lehiakorra eta jasangarria izan daitekeen zerbitzu bat sustatzea.

Helburu nagusia da garraiobide pribatuarekin alderatuta maiztasunari eta ibilbideei dagokienez lehiakorra eta iraunkorra den zerbitzu bat sustatzea.

120. artikulua. Garraio kolektiboko eredia.

LPP honetako garraio kolektiboko eredia titulu honetako zehazpenen eta O-05 Mugikortasun Alternatiboa ordenamendu-planoaren arabera osatzen da.

2. ATALA

GARRAIO KOLEKTIBOAREN ARAUKETA. INTERMODALITATEA

121. artikulua. Garraio kolektiborako jarduera-lerroak eta –irizpideak.

1. LPP honek eremu funtzionala Mungiatik Txorierriko Haranarekin trenbide bitartez lotzeko aurreikuspena ezartzen du. Trenbide bidezko esku-hartze horren definizio zehatza (metroa, tranbia edo trena) geroago baloratuko da kasuan kasuko populazio-mugaren arabera, eta beharrezkoak diren maiztasunak, inbertsioa eta, azken finean, proposamenaren jasangarritasuna kontuan hartuz.
2. minibus motatako autobus-garraio kolektiboarekin lotutako jarduera nagusiek eremuko gainerako udalerrietatik Mungiako herri-gunerako irisgarritasuna areagotzera bideratuta egon behar dute:
 - Mungiako udalerria lurraldeko beste esparru batzuekiko lotura-gune intermodal gisa, baita jarduera ekonomikoko lurzoruetara eta zuzkidurakoetara ere.
 - “Y” formako trabadura-eskemarekin Laukiz-Gatika eta Maruri-Jatabe-Billela adarrak Mungiarekin lotuko lituzkeen autobus-zerbitzu baten proposamena, aipatutako intermodalitate-guneetatik igaroz, eta Larramendi Ikastolaraino Belakotik igaroz hel dadin.
- Mungiako gunearen inguruan intermodalitate-gune biren proposamena: Atxuriko inguruan eta Trobikako inguruan.

122. artikulua. Intermodalitate-guneetarako jarduera-lerroak eta –irizpideak.

1. Intermodalitate Gunezat jotzen da, LPP honen ondorioetarako, garraio publikoa eta beste mugikortasun-modu batzuen arteko konexiorako eta koordinaziorako elementua.
2. Intermodalitate-guneak ezartzerakoan, honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - Garraio publikoko sareak, ibilgailu pribatuen fluxuak eta garraiobide alternatiboak (aurreko Kapituluari aipatutakoak) lotzea, eta batetik bestera modu eroso eta eraginkorrean igarotzea ahalbidetuz.
 - Konexioa egiten den ibilgailu-motaren arabera (motorduna eta bizikleta) egokia den aparkaleku bat barne hartzea.
 - Oinezkoen irisgarritasuna erraztea eta igarotzeko eta itzaroteko altzari egokiak dauzkaten guneak eta elementuak jartzea.
3. “Intermodalitate Gunearen” zedarripena, antolamendua eta esku-hartze erregimena kasuan kasuko udalaz gaindiko udal-plangintzako edo plangintza orokorreko udal-esparruko edo instrumentuek ezarritakoak izango dira.

4. KAPITULUA**BIDE-SAREA****1. ATALA****XEDAPEN OROKORRAK****123. artikulua. Bide-sarearen ereduaren helburu orokorrak.**

Errepideen arloan, dokumentu honetako proposamenak eremu funtzionala helburu hauetan oinarritutako sare egituratu batez hornitzera daude bideratuta:

- Eremuko biderik gatazkatsuenak pixkanaka desagerraraziz joatea, esate baterako, Bakio, Fruiz eta Larrauriko guneak.
- plataformako baldintza hobetzea bazterbidearen zabalerari dagokionez, eta, eremu jakin batzuetan, trazadurakoak ere bai.
- eremu hauekiko bideen lotura egokitzea:
 - Bermeo eta bere portua.
 - Bakio eta bere hondartza.
 - Uribe Kosta.

124. artikulua. Bide-sarearen eredia.

LPP honetako Bide-sarearen inguruko eredia Titulu honetako zehazpenen eta O-04 Bide-sarea antolamendu-planoaren informazioaren arabera osatzen da.

2. ATALA

BIDE-SAREAREN ARAUKETA

125. artikulua. LPPko bide-sarearen hierarkizazioa.

1. LPParen bide-sarearen proposamena bide-ardatzetan morfologikoki hierarkizaturik sailkatuta artikulatzen da.
2. LPP honek ezarritako sailkapenaren barruan, ondorengo bide-sare hauek bereizten dira:
 - Sare Egituratzalea: eremu funtzionaleko goiburuen eta azpi-goiburuen (Mungia eta Bermeo) eta Bilbo Metropolitarraren arteko zuzeneko konexio-mugimenduetarako egokiak diren korridoreek osatzen dute.
 - Hornikuntza Sarea: eremu funtzionaleko udalerrien edo eremu funtzionalaren eta aldameneko beste eremu funtzional batzuen arteko harreman-sarea osatzen duen errepideek osatzen dute.
 - Sare Kapilarra: tokiko irisgarritasuneko sareak osatzen du. Errepideak beste sare batzuek zerbitzatzen ez dituzten garapen-eremuetara eta eremu funtzionaleko gune nagusietara iristen dira.
3. Funtzionalitatea, tipologia, lurraldearekiko harremana eta garraio-fluxuekiko eta motorrik gabeko baliabideen bitartez lekualdatzeko moduekiko harremana, lurralde-plan partzialak definitutako sarearen multzokoak, XVI. eranskinean islatzen dira.

126. artikulua. Jarduera-lerroak eta –irizpideak.

1. LPPan bide-sarearekin lotutako jarduerak ondorengo mota hauetakoak dira:
 - Bide-azpiegitura berrien ezarpena
 - Dauden azpiegituren hobekuntza
 - Perimetroko herri-bide berrien ezarpena
 - Igarotze-trafikoetarako bide liberatuen tratamendua
 - Bizikidetzak hobetzeko neurriak.
2. Bide-azpiegitura berrien ezarpena:
 - Mungia-Bermeo: oinplano berrien errepidea, foru titulartasunezkoa, gaur egungo BI-631 errepidea ordezkatzeko duena Mungia eta Bermeo artean.
 - Mungia-Bermeo errepide berria eta BI-2101 Larrauri Bakio errepidearen arteko konexioa.
3. Dauden azpiegiturak hobetzea bazterbidearen eta trazaduraren zabalerari dagokionez:
 - BI-2120 errepidearen gaineko lehentasunezko jarduerak.
 - Ibilbide-zuzenketa jarduerak BI-2704, Unbeko Korridorean.- BI-3111 errepidea egokitzeko jarduerak (BI-2120 errepidearen eta BI-634 errepidearen arteko konexioa)
 - BI-634 Urduliz-Mungia eta BI-2101 Bakiora errepideak egokitu eta zabaltzeko jarduerak.
 - BI-2121 Mungia-Muxika errepidearen trazadura egokitu eta zabaltzeko nahiz zuzentzeko jarduerak.

4. Herriko bide perimetral berriak ezartzea, herriguneak inguratzen dituzten ibilbide alternatiboak sortzeko:

- Bakioko eta Fruizko herri-eremuak inguratzen dituzten bideak, udal-plangintzan eta LPP honetan egun dauden eta aurreikusten diren hirigintza-garapenen erremate gisa.
- zerbitzuko bidea BI-2121 errepidean, Belakoko industrialdea dagoen eremuan, eta sektoreko administrazioak aurreikusitako jarduera BI-4105 errepidearen bidegurutzetik hurbil dagoen eremuraino hedatzea aztertzea proposatzen da, industrialde hori maila funtzionalean birsortzea ahalbidetzeko eta Ekialdeko muturrarekiko konexio egokia faboratzeko.

5. Igarotze-trafikoetarako bide liberatuen tratamendua: esku hartzeko modu hori lotuta dago aurreko kategorian deskribatutako esparruekin; alegia, dagozkien ingurabideak gauzatzeagatik herri-bideak desagerraraztea proposatzen den eremuekin.

Bide horiei trafikoa baretzeko neurriak aplikatu beharko zaizkie eta beren diseinua eta materialak xeheki tratatu beharko dira ibilgailuen trafikoaren eta herriko bizitzaren arteko bizikidetza-baldintzak hobetzeko.

LPParen proposamenak trafikotik liberatutako bideen tratamendurako:

- Bakioko herriko eremua
- Fruizko herriko eremua
- Larrauriko gunea.

6. Bizikidetza hobetzeko neurriak: antolamendu finkatua duten esparruetan eta foru-bideen titulartasuna udalerriei laga ondoren, udal-mailan ibilgailuen trafikoaren eta herriguneko bideen arteko bizikidetza-baldintzak hobetzeko jarduerak planteatzen dira, trafikoa baretuz eta bideen materialen eta diseinuaren tratamendu xehearen bitartez.

LPParen proposatutako bizikidetza hobetzeko neurriak:

- Gatika. BI-634 errepidean Garaiko guneean.
- Maruri-Jatabe. Ergoiengo gunerako sarbidean.
- Oro har, Lurralde Zati Plan honetan zehaztutako kapilar-sarean sartutako bideek zeharkatutako herrigune guztietan.

5. KAPITULUA.

ZORTASUNAK

1. ATALA

ZORTASUN AERONAUTIKOAK

127. artikulua. Araudi sektorial aplikagarria.

1. Zortasun aeronautikoek kaltetutako eremuek araudi sektorial aplikagarria aintzat hartu beharko dute, batez ere hauek:

- 48/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, aireko nabigazioari buruzkoa (BOE, 176 zk., uztailaren 23koa), 55/1999 Legeak, abenduaren 29koak, Zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurriei buruzkoak, aldatutakoa (BOE, 312. zk., abenduaren 30ekoa).
- 21/2003 Legea, uztailaren 7koa, Aireko Segurtasunari buruzkoa (BOE, 162 zk., uztailaren 8koa).
- 13/1996 Legearen, abenduaren 30ekoaren, zerga, administrazio eta gizarte mailako neurriei buruzkoaren, 166. artikulua (BOE, 315. zk., abenduaren 31koa).
- Zortasun Aeronautikoei buruzko 584/72 Dekretua, otsailaren 24koa (BOE, 69 zk. martxoaren 21a), abuztuaren 19ko 1189/2011 Errege Dekretuaz (BOE, 204 zk., abuztuaren 25a) eta apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuaz aldatua. (BOE, 118 zk., maiatzaren 17a).
- 2591/1972 Dekretua, abenduaren 4koa, Interes Orokorreko Aireportuak eta dagozkien Zerbitzuguneak antolatzekoa (BOE, 292 zk., abenduaren 7koa), 297/2013 Errege Dekretuak, apirilaren 26koak (BOE, 118 zk., maiatzaren 17koa), aldatutakoa.
- 370/2011 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoak eguneratzen dituen (BOE, 77 zk., martxoaren 31koa).
- Sustapen Ministerioaren Agindua, 2011eko uztailaren 17koa, Bilboko Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duena (BOE, 188 zk., abuztuaren 7koa).

128. artikulua. Zortasun aeronautikoak.

1. Araudi aplikagarria eta erreferentziako irizpideak.

- Hauen arabera ezarritako zortasun aeronautikoak: 48/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, aireko nabigazioari buruzkoa (BOE, 176 zk., uztailaren 23koa); eta Zortasun Aeronautikoei buruzko 584/72 Dekretua, otsailaren 24koa (BOE, 69 zk. martxoaren 21a), abuztuaren 19ko 1189/2011 Errege Dekretuaz (BOE, 204 zk., abuztuaren 25a) eta apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuaz aldatua. (BOE, 118 zk., maiatzaren 17a),- 370/2011 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoak eguneratzen dituen (BOE, 77 zk., martxoaren 31koa).
- Sustapen Ministerioaren 2001eko uztailaren 17ko Aginduak (BOE, 188 zk., abuztuaren 7koa) onartutako Bilboko Aireportuko Plan Zuzentzailean jasotako zortasun aeronautikoen proposamena. Zortasun Aeronautikoei buruzko Dekretua eta Nazioarteko Hegazkigintza Zibileko Organizazioaren indarreko irizpideak oinarri hartuta zehaztu dira zortasun horiek.

2. Bilboko Aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoek Mungia eremu funtzionaleko esparrua kaltetzen dute, I-05 Zortasun aeronautikoak izeneko planoan jasotzen den bezala.7.

3. Zortasun aeronautikoen azpian ez dauden lurralde-planaren esparruko eremuetan, edozein eraikuntza edo egitura (posteak, antenak, aerosorgailuak eta beren palak eta abar) egiteko, eta haiek eraikitze beharrezko baliabideak instalatu ahal izateko (eraikuntza-garabiak eta antzekoak baita), lursailaren gainetik edo jurisdikziopeko uren barruan itsasoaren mailaren gainetik 100 metro baino gehiagoko altuera dutenak, beharrezkoa izango da Aireko Segurtasuneko Estatuko Agentziak aurretik erabaki bat hartzea, aireko eragiketen segurtasunean izan dezakeen eraginarekin lotuta, 584/1972 Dekretuaren egungo idazketaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

4. Lurralde Zati Plan honen edukia garatzen duten hirigintza- eta lurralde-plan guztiek artikuluko honetako xedapenak jaso beharko dituzte eta araudi honetarako XVIII eranskinean .5. Lurralde planeamenduaren edozein xedapenarekin kontraesanik egotekotan, aireportuko arloko estatuko araudiak ezarritakoa gailenduko da, eta bereziki Plan Gidatzailearen xedapenetan eta Zortasun Aeronautikoen inposatutako mugaketan.

129. artikulua. Zortasun Aeronautikoen urra ditzaketen Lurralde Zati Planeko esparruak.

1. Lurraldeak berak zortasun aeronautikoak urratzen dituen eremuetan edo baimen daitezkeen eraikinek zortasun aeronautikoak urratzeko arriskua dagoen eremuetan, Lurralde Zati Plan honek horietan jarduketaren bat egiteko proposamena egiten duenetan, zehaztutako hauek jaso beharko dira:

- Ekonomia-jardueren erreserba estrategikoa:
 - Esparruak aldeztu aurretik bere garapen-plangintza onartua izan behar du, Hegazkingintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako berariazko aldeko txostenarekin edo Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren baimenarekin eraikinetarako edo instalazioetarako, egin aurretik, ondoko hirigintza-tresna bat behar ez dutenean.
 - Bere garapen-plangintzak Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoen errespetatu behar ditu.
 - Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoen urratzen badira, salbuespen gisa, sustatzaileak aurkeztutako azterlan aeronautiko bat onartu ahal izango da. Azterlan horretan ziurtatu beharko da, Aireko Segurtasuneko Estatuko Agentziaren aburuz, AENAK txosten tekniko bat egin ondoren, aireko operazioen segurtasuna eta erregularitasuna ez direla arriskuan jartzen nabarmen.
 - Zortasun aeronautikoetatik eratorritako mugek plangintzak zehaztutako aprobetxamendu guztiak gauzatzeko aukerarik emango ez balute, kasu horretan, Sustapen Ministerioak, aireportuko kudeatzaileak eta Aireko Nabigazio Zerbitzuen zerbitzu-emaileak ez lukete kalte-ordainik emateko derrigortasunik izango.
 - Esparru honetako eraikinek, instalazioek edo edozein jarduketa motak, haiek eraikitzeko beharrezko baliabideak barne (besteak beste, posteak, antenak, aerosorgailuak eta beren palak, eraikuntza-garabiak, kartelak, zaintza-dorreak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak) eta abarrek Aireko Segurtasuneko Estatuko Agentziaren aurretiko aldeko ebazpen bat beharko dute, 297/2013 Errege Dekretuaz aldatutako 584/1972 Dekretuaren egungo idazketaren 30. eta 31. artikuluei jarraiki. Beharrezkoa balitz, segurtasuneko azterketa aeronautiko batekin batera aurkeztu beharko litzateke.
- Eskualdeko atsedenlekuak: Unbe-Berreaga-Gamizmendi hegoaldeko mendatea eta Sollube-Irugane-Kurtzegañe-Arkotxamendi ekialdeko mendatea, baita ere Eremuen Okupazio Mugekin eta aurreko puntuan seinalatutako erreserbarekin zerikusirik gabeko lurzoruei dagozkien gainerako azalera: ez daude onartuta eraikin berriak, instalazioak, lursaila aldatzea edo objektu finkoak (posteak, antenak, kartelak, aerosorgailuak eta abar), ez eta jada daudenen altuera handitzea ere, zortasun aeronautikoen urratzen baditu.

- Salbuespen gisa, 297/2013 Errege Dekretuaz aldatutako Zortasun Aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuaren, , 33. artikuluari jarraiki zortasun aeronautikoei ezarritako mugak gainditzen dituzten instalazioen edo eraikuntzen eraikuntza-proiektuak baimenduak ahal izango dira, ziurtatzen dutenak, Aireko Segurtasuneko Estatuko Agentziaren iritziz, ez dela arriskuan jartzen segurtasuna eta ez dela nabarmen kaltetzen aireontzien operazioen erregulartasuna edo apantailatze kasu bat dela. Helburu horretarako, jarduera berrien sustatzaileek segurtasun aeronatikoko ikerketa aurkeztu ahal izango dute.

2. ATALA

ZORTASUN AKUSTIKOAK

130. artikulua. Araudi sektorial aplikagarria.

1. Zortasun akustikoei kaltetutako eremuek araudi sektorial aplikagarria aintzat hartu beharko dute, batez ere hauek:
 - Estatukoak:
 - 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, garatzen duena ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez.
 - 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, eta 1038/2012 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, aldatzen duena.
 - Autonomia-erkidegokoak:
 - 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurunea babestekoa.
 - 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

131. artikulua. Zortasun akustikoak.

1. Bide-azpiegitura igorle akustikoak dira Zaratari buruzko 37/2007 Legearen arabera.
2. Aipatu Legearen 10. artikulua ezartzen duenaren arabera, bide-azpiegituren inguruan kokatutako lurraldearen sektoreak kargatuko dituzte zortasun akustikoei, eremu horietako erabilera onargarriak baldintzatuko direlarik.

Jarduera berriak ezartzeko eremuetan zer ingurumen-zarata dagoen aztertu beharko da, zer ondorio izan ditzakeen, immisio-mailekiko kalitate-helburuak eta zer neurri zuzentzaile ezarri behar diren.
3. Foru-errepideetako zortasun akustikoko eremuak I-06 Zortasun akustikoak izeneko planoan daude jasota.

VI. TITULUA**ZERBITZUEN OINARRIZKO AZPIEGITURAK****1. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****132. artikulua. Zerbitzuko azpiegitura-sistemaren xedea eta definizioa.**

1. LPPak proposatutako lurralde-ereduak zerbitzuen azpiegituren arloan ekintza batzuk barne hartzen ditu eremu funtzionala behar bezala antolatzeko eta lurralde-eredu hori definitzen duten irizpideen arabera.
2. Titulu honen edukia ondorengo eskema honen arabera egituratuta geratzen da:
 - a. Ur-hornidura
 - b. b.
 - c. Kutsatutako Lurzoruak eta Hondakinak
 - d. Energia
 - e. Telekomunikazioak
 - f. Lan hidraulikoak; Obra hidraulikoak; Ur-obrak.
3. LPPak zerbitzuen azpiegituren plangintza helburu hauek erdiestearen menpe jartzen du (helburu horiek bat datoz Garapen Iraunkorreko Euskal Estrategian planteatutako Ingurumen Xedeekin):
 - a) Aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea.
 - b) Baliabide naturalak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
 - c) Natura eta biodibertsitatea babestea.
 - d) Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
 - e) Klima-aldaketaren gaineko eragina mugatzea.

133. artikulua. Zerbitzuen Azpiegituren eredia.

1. LPP honetako Zerbitzuen Azpiegituren inguruko eredia titulu honetako zehazpenen eta 06-1 eta 06-2 Zerbitzuen Azpiegiturak antolamendu-planoetako zehazpenen arabera osatzen da.
2. Dokumentazio grafikoan agertzen diren talde bakoitzeko sareen trazadurei eta elementu puntualen kokapenari dagokienez, izaera orientatiboa dute.

2. KAPITULUA

ZERBITZUEN AZPIEGITUREN SAREAREN ARAUKETA

134. artikulua. Ur-hornidura.

1. Programa nahiz ekintza sektorialekin koordinatzeko (zehaztapen grafikoetan adierazitakoak), ur-horniduraren arloan aukeraturiko lurralde-ereduaren helburuak honako hauek dira:
 - Uren Partzuergoaren sareko udalerrietara sartuz joatea, norbere horniduraren egungo sistemak baztertu gabe.
 - Dauden harguneak eskualdeko baliabide natural estrategikotzat jotzea.
 - Ura aurreztea eta arrazoiz erabiltzea, ondasun urri gisa.
2. Jarduketa zehatz gisa, hauxe proposatzen da LPP honetan:
 - Akuiferoak betetzeko prozesuetan eragina duten faktoreak kontrolatzera bideratutako neurriak hartzea (landare-estaldura, kutsadurarekiko urrakortasuna, higadura-arriskuak, etab.), eta lurraldearen erabilerarekin eta okupazioarekin lotutako ingurumen-arriskuak prebenitzea.
 - Dauden azpiegituren egoera eta trazadura jasotzen duten inbentarioak egitea sustatzea, behar dituzten inplementazioak eta hobekuntza-jarduerak gauzatzea errazteko, eta, horrela, beren funtzionamendua hobetzea.
 - Mungiako gunearen eremuko Sistema Orokorra lehentasunez indartzea, bere inguruan gauzatuko diren garapenengatik, eta LPP honetan proposatutako gainerako garapenek behar dituzten inplementazioak aurreikustea.
 - Ur-sare bat ezartzea kontsumitzaile industrial handientzat hondakin-urak Mungiako araztegian tratatu ondoren zuzenean berrerabiliz.
 - Ura aurreztea eta zentzuz erabiltzea sustatzen duten udal-planak egitea sustatzea, hala nola 1.3. Plana: Berrikuntza uraren udal-kudeaketan, 2007-2010 aldirako Mungiako jasangarritasunerako Ingurumenerako II. Ekintza Planaren baitan.
3. Dokumentazio grafikoan eskematikoki jaso da eskualde-banaketako hornidura-sarearen trazadura, udal-plangintzek kontuan hartu behar dute, dagokion lurzorua zedarripena eta kalifikazioa egiteko, bat etor dadin azpiegitura hori gauzatzeko proiektuekin.
4. XVII. Eranskinean jasotzen dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren egungo azpiegiturekin eta egingo diren azpiegiturekin lotutako irizpideak eta haietan jarri nahiko litzatekeen hirigintza-araubidea, Udal Plangintzak berrikustean kontuan hartu beharko dena.

135. artikulua. Saneamendua.

1. Programa nahiz ekintza sektorialekin koordinatzeko, udalaren hirigintza-plangintzarako erreferentzia-esparru gisa (zehaztapen grafikoetan adierazitakoa), estrategia eta jarduketa hauek proposatzen dira saneamenduaren arloan:
 - Dauden azpiegituren egoera eta trazadura jasotzen duten inbentarioak egitea sustatzea, behar dituzten inplementazioak eta hobekuntza-jarduerak gauzatzea errazteko, eta, horrela, beren funtzionamendua hobetzea.

- Aurreikusitako garapen berrietan bereizketazko saneamendu-sistemak sustatzea, eta dauden sare unitarioak ordezkatzeko.
 - Butroe Garaiko kolektorearen adarraren zatia, Fruiz eta Arrieta udalerrietatik gorako uretan jarraitzen duena, egitea. Horretarako, beharrezkoa izan zen lehenik Arrieta udalerria partzuergoaren barruan sartuta egotea.
 - Erdiko Butroeko Saneamendu Sistema Orokorrari dagozkion hiru faseen proiektuak egitea eta hiru proiektu horiek egitea.
 - Lurzorua erreserbatzea, Mendebaldea-Billelako ponpaketa-estazioaren ondoan, edateko uren balizko araztegi bat egin ahal izateko, biltzaile orokorraren Ugarta-Maruri zatian. Bere behin betiko kokapenak bateragarria izan beharko du uholdea izateko arriskua duten eremuetan erabileren baldintzekin, kutsatua egotearen susmoa hartu zaion lurzoruaren lursail batekin bat batez ere.
 - Mungiako gunearen eremuko Sistema Orokorra lehentasunez indartzea, bere inguruan gauzatuko diren garapenengatik, eta LPP honetan proposatutako gainerako garapenek behar dituzten inplementazioak aurreikustea. Zehazki, agian, Bakioko araztegia handitzeko.
 - Bigarren sarea gauzatzea, landako guneen eta industrialdeen egungo saneamendu-sistema hobetzeko.
2. Dokumentazio grafikoan eskematikoki jaso da eskualde-banaketako hornidura-sarearen trazadura, udal-plangintzek kontuan hartu behar dute, dagokion lurzoruaren zedarripena eta kalifikazioa egiteko, bat etor dadin azpiegitura hori gauzatzeko proiektuekin.
3. XVII. eranskinean jasotzen dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren egungo azpiegiturekin eta egingo diren azpiegiturekin lotutako irizpideak eta haietan jarri nahiko litzatekeen hirigintza-araubidea, Udal Plangintzak berrikustean kontuan hartu beharko dena.

136. artikulua. Hondakin solidoen eta lurzoru kutsatuen kudeaketa

1. Oraingo sektore-plangintzan oinarrituz, hondakin solidoen tratamenduaren arloko helburuak, lurralde-eredua eta horren eraginezko jarduketak horrekin behar bezala koordinatzeko, honako estrategia eta jarduketa hauek proposatzen dira hondakinen kudeaketaren arloan:
- Planaren denbora-esparrurako dagoen hondakin solidoen tratamendurako eredua finkatzea:
 - Hiri-hondakin solidoak Lemoizko "Monte Jata" (arlo funtzionaltik kanpo dago): hondakindegira eramatea.
 - Bilketa selektiboko zerbitzuak eta gaikako bilketako bi zentro Mungian eta Bakion.
 - Esparruko gune nagusietan hondakinak jasotzeko eta tratatzeko elementuak ezartzea, modu eraginkorrean banatuta eta nahikoak, udal-mailan edo mankomunaturik.
 - Bilketa selektiboko guneak ezartzea, jarduera ekonomikoak dituzten industrialdeetan, hirikoen moduko hondakineterako edukiontzia instalatzeko eremuak sortuta.
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen gaineko kontrol handiagoa: jokabidea hobetzen duten kontzientziazio-kanpainak sustatzea, bereziki, landa-eremuetan.
 - Arlo funtzionalean materia organikoa konpostatzeko instalazioak txikiak eta/edo ertainak izango dira soilik, eta tokiko esparruan edo udal esparruan emango dute zerbitzua.

Landa-ingurunearen balio txikieneko eremuetan kokatuko dira batez ere (landazabal arrunta eta ekoizpenerako baso-eremuak) edo jada andeatutako eta/edo antropizatutako eremuetan. Edonola ere, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren protokoloa egin behar da instalazio horiek ezarri ahal izateko.

2. Azpiegitura horiek adierazten dituzten ikonoak sinbolikoak baino ez dira, eta udal-plangintzek horien kokaleku zehatza eta behin betikoa adierazi beharko dute, kasuan kasuko betearazpen-proiektuetan ezarritakoaren arabera.

3. Arriskutsuen tratamenduari dagokionez:

- Udal-plangintzak kontuan hartu beharko du lurzoruaren kalitatearen aldagaia, Eusko Jaurlaritzaren 165/2008 Dekretuaren bidez onetsitako "Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dauzkaten edo izan dituzten lurzoruen Inbentarioa"ren arabera eta Legea eta Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen arabera.

Inbentario honetan egin daitekeen edozein aldaketak egungoa aldatzen duela iritziko da, Lurralde Zati Plana aldatu behar izan gabe.

- Lurzoru kutsatuak egon litezkeen eremuetan edo inbentario horretan sartutako eremuak dauzkatenetan, Lurzoru Kutsatuak Prebenitu eta Zuzentzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta ekainaren 11ko 5/2013 Legea, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko, 16/2002 Legea eta Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak aldatzen dituen ezarritakoa bete beharko da. Besteak beste, instalazio edo lurzoru kalifikatuen titularrek lurzoruaren kalitatearen aitortpena lortu beharko dute horietan edozein jarduera gauzatzeko ahalbidetzen duten lizentziak, baimenak eta bestelako ebaspenak eman ondoren.
- Lehentasuna emango zaio kutsatuta dauden lurzoruak garbitzeari, lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik.
- Eraikuntza-prozesuekin lotutako lurrak eta hondarrak kentzeko modua gehiago arautu beharko da, hondakin geldo horiek edo beste batzuk lurraldeko elementu negatiboak kentzeko erabiltzea aintzakotzat hartuz (harrobi abandonatuak, zuloak, etab.).

137. artikulua. Energia.

1. Energia arrazionalki erabiltzeko xede orokorraren barruan, ondorengo helburu hauek planteatu daitezke (Euskadiko 2010eko Garapen Iraunkorreko Energia Estrategiaren —3E-2010— helburuak dira):

- Energia aurrezte eta arrazionalki erabiltzea ahal beste sustatzea.
- Sektore guztietan energia-eraginkortasunerako jarduerak azpimarratzea eta energia-intentsitatearen kontsumoa murriztea.
- Ingurumena gehien errespetatzen duten energiak erabiltzea.
- Energiaren autohornidura lortzen ahalegintzea, eta, horretarako, baliabide berriztagarri autoktonoak gehiago eta hobeto aprobetxatzeko ahaleginak areagotzea.
- Energia-iturriak dibertsifikatzea eta gas naturala eta energia alternatiboak bultzatzea.
- Energia-azpiegiturek paisaia eta ondare naturalean duten eragina arintzea.

2. Argindarraren kontsumoaren arloko estrategia eta jarduketa hauek ezarri dira:

- Baliabide berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea elektrizitate-horniduraren arloko beharren zati bati erantzuteko energia sortzeko sistema osagarri gisa, halakoak bezala:
 - Energia eolikoa, batez ere deszentralizatua.
 - Eguzki-energia termikoa eta fotovoltaikoa eraikitako edo eraiki beharreko gainazaletan, batez ere pabilioietako, kiroldegietako, autobus geltokietako eta familia bakarreko etxeetako teilatuetan, bai eta jada artifizializatutako azaleretan ere (aparkalekuetako azaleretan eta abar).
 - Baso-biomasako instalazioak baldin eta ekonomia-jardueren lurzoruetan ezartzen badira.
 - Abeltzaintza-ustiapenarekin lotutako pixorren biomasa-instalazioak, baldin eta arlo funtzionalean behar adina abeltzaintza-karga badago.
 - Zentral hidroelektriko txikiak, baldin eta arroaren Plan Hidrologikoetan ezarritako emari ekologikoak errespetatzen badira, urei buruzko legedia betetzen bada eta ibaiaren ingurunean ingurumenaren gaineko eragina onargarria bada. Egingo den Butroe ibaiaren ibarraren babes-plan bereziak zentral minielektrikoak garatzeko aukera aztertu ahal izango du, beren ahal hidraulikoa, ingurumenean zer eragin duten, bai eta zer jasangarritasun ekonomiko duten ere.
- Energiaren, industriaren eta zerbitzuen sektoreetan kogenerazio-instalazio berriak ezartzea sustatzea.
- Elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sarea hobetzea, baita azpiestazioak eta beste elementu osagarri batzuk ere, horniduraren segurtasuna sustatzeko, eremu batzuetako ahuleziak ekiditeko, energia-fluxuak errazteko eta beren kalitatea hobetzeko.
- Zaintza- eta aurrezte-jarduketak sustatzea, eraginkortasun txikiko erabilerak murriztuz, eta industria-instalazioen zaharberritzea eta modernizatzea eta baterako sorkuntzarako planak sustatuz. Halaber, ekipoen eta instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzeko langileen prestakuntza-programak eta eraikinak eta instalazioa hobeto isolatzeko helburua duten neurriak ere sustatu behar dira.
- Jendarteko iritzitari energiaren inguruko problematikari buruzko kontzientzia harraraztea, bai eta energia zentzuz erabiltzeko beharrari buruz ere, kontsumo-ohiturak pixkanaka aldatzen lagunduko duten informazio-kanpainen bidez.

3. Elektrizitatea garraiatu eta hornitzearen arloko ekintza eta estrategiak, lurralde-eredua eta horrekin lotutako jardueren eta sareen sektoreko plangintza behar bezala koordinatzeko, honako hauek dira:

- Linea jakin batzuk bateratzeak eragiten duen Aireko Sare Elektrikoen Eragina Murrizteko Plan bat lantzea (beharbada beren trazadurengatik edota ustiapen-bermeengatik erredundanteak izan litezke), eta gatazkarik larrienak murriztea, atzeraemanguneen bitartez edo baita lurperatuz ere.

Zehazki, Lemoizko zentral nuklearretik irteten diren Goi-tentsioko 4 linean aztertu beharko dira, horietako zeinek duen jarduera zehazteko eta gainerakoak desmuntatzeko aukera aztertzeko.
- Etorkizunean egon litezkeen lineen trazadura bakarrak izango liratekeen korridore elektrikoen sare bat zehaztea. Horietan barne hartuta ez dauden egungo lineetan kontserbazio-lanak soilik ahalbidetuko dira.

- Tentsio ertain eta baxuko sareak indartzea.
4. Gasa garraiatu eta hornitzearen arloko ekintza eta estrategiak, zehazpen grafikoetan islatuta daudenak, lurralde-eredua eta horrekin lotutako jardueren eta sareen sektoreko plangintza behar bezala koordinatzeko, honako hauek dira:
- Herri-esparru eta industria-eremu nagusietan ezarriz joatea sustatzea, alternatiba energetiko gisa dakartzan abantailengatik.
 - Aurreko letran aipatzen den ezarpenerako, birgaitze edota azpiegituren berrikuntza jarduerak aprobetxatzea.
5. Dokumentazio grafikoan eskematikoki jaso da Goi-tentsioko elektrizitatea banatzeko eskualdeko hornidura-sarearen trazadura, udal-plangintzek kontuan hartu behar dute, dagokion lurzorua zedarrigena eta kalifikazioa egiteko, bat etor dadin azpiegitura hori gauzatzeko proiektuekin.

138. artikulua. Telekomunikazio-zerbitzuak.

1. Telekomunikazio-zerbitzuen arloko ekintza eta helburuak, zehazpen grafikoetan islatuta daudenak, lurralde-eredua eta horrekin lotutako jardueren eta sareen sektoreko plangintza behar bezala koordinatzeko, honako hauek dira:
- Esparruko gune nagusietara iristen diren teknologia aurreratuaren enborreko azpiegiturak sustatzea.
 - Gainerako oinarriko inplementazio- edota berrikuntza-programa osagarrietan, zerbitzurako sarrerarako sarerako aprobetxamendua.

139. artikulua. Lan hidraulikoak.

1. Lan hidraulikoen arloko ekintza eta helburuak, zehazpen grafikoetan islatuta daudenak, lurralde-eredua eta kasuan kasuko lanen sektoreko plangintza behar bezala koordinatzeko, honako hauek dira:
- Mungian Butroe ibaia Bideratzeko Proiektua gauzatzea.
 - Bakion Estepona ibaia Bideratzeko Proiektua gauzatzea.
2. Lurzoru-erabilerei, lerrokadurei eta higadura arriskua duten alderdiei, urez bete daitezkeen eremuei eta gainerako xedapen aplikagarriei dagokienez, EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSak ezarritako zehaztapenak bete beharko dira.
3. Butroe eta Estepona ibaietako uholdeak izateko arrisku esanguratsua duten eremuetan, uholdeak izateko arriskua kudeatzeko planak egiteko fasean zehatz-mehatz aztertuko da zer defentsa-jarduketa egin daitezkeen gune finkatueta uholdeen aurka.
4. Jabari Publiko Hidraulikoari eragiten dioten Lurralde Zati Plan honetako jarduketek, bere zortasun-eremuetan edo polizia-eremuetan kokatuta daudenean, eta uholdeak izateko arriskuak dituztenek, lehenik URA Uraren Euskal Agentziaren administrazio-baimen bat beharko dute.

VII. TITULUA

ESKUALDEKO EKIPAMENDUAK

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

140. artikulua. Titulu honetako aurreikuspenen izaera eta irismena.

1. Titulu honetako arauak ekipamendu-sistemaren eta horren barruko azpisistema bakoitzaren (hezkuntza, osasuna, gizarte-ongizatea, kirola, kultura, eta udalez gaindiko ekipamenduak) lurralde-egitura ezartzen dute, Lurralde Antolamendurako Artezpideekin eta Eskualde-egiturarako hartutako lurralde-ereduarekin koherentzian.
2. Aurreko zenbakian aipaturiko lurralde-egiturak bermatu egiten du zuzkidura-sistemak lurraldea egituratzeko elementutzat duen eginkizuna; erreferentziako eta koordinazioko lurralde-esparrutzat, jarduketako irizpide eta jarraibide orokorren bitartez ezartzen da, eta horiek programa eta jarduera sektorialen berri (osasuna, hezkuntza, gizarte-ekintza, kultura, kirolak) eman behar dute administrazioetan (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, udalak).

141. artikulua. Eskualdeko Ekipamenduen ereduaren helburu orokorrak.

LPParen Eskualdeko Ekipamenduen proposamena ondokora bideratutako ikuspegi estrategiko batetik aurreikusten da:

- Lurralde-proiektu koherente bateko sail sektorialek berezko duten plangintza-jarduera koordinatzea.
- Plangintza-jarduera hori bideratzea, lurraldearen egituraren errealitatearekin eta eremu funtzionalerako planteatutako Lurralde Ereduarekin bat datorren erreferentzia-esparru komuna erantsiz.
- Plangintza sektorial espezifikoetan definitutako ekipamenduen (sanitarioa, hezkuntzako, gizarte-ongizatearekin lotutakoa) kokapen zehatza jasotzea.

142. artikulua. Ekipamenduen sistemaren lurralde-egitura antolatzeko estrategiak.

1. LPP honetako Lurralde-ereduak udalaz gaindiko ekipamenduak finkatzen ditu, zuzkidura berriak ezartzeko eta handitzeko esku-hartzeak, beharrezkoak direnak, proposatzen ditu, eta horien zerrenda xehea ondorengo puntuetan jaso da.
2. Mungiaiko udalerria Ekipamenduen arloko eskualdeko gune nagusi gisa finkatu da, eta bere eragin-eremuak eremu funtzional osoa barne hartzen du.
3. LPP honek ekipamenduen eredia udalerrri bakoitzak bere lehen mailako beharrak asetzea lortzera bideratzearen alde egiten du apustu, betiere zerbitzu horiek eskaintzeko beharrezkoak diren populazio-mugak kontuan hartuz.

- 4 Muga horretara iristen ez denean, eta udalerrian ekipamendu-beharrei erantzutea ezinezkoa izanik, irtenbide mankomunatuak ezarri beharko dira inguruko udalerrri guztiei aukera berdinak eskainiz zerbitzua emateko.

143. artikulua. Eskualdeko Ekipamenduen Eredua.

1. LPP honetako Eskualdeko Ekipamenduen inguruko eredua titulu honetako zehazpenen eta O-07 Eskualdeko Ekipamenduak antolamendu-planoaren informazioaren arabera osatzen da.
2. LPPan ekipamenduen sistemaren harira jasotako proposamenak Sektoreko Administrazioetarako orientazio eta erreferentzia-puntu gisa interpretatu behar dira, beren jarduna zuzenean nahiz Lurraldeko Sektore Planak idatziz gauzatu.

2. KAPITULUA

ESKUALDEKO EKIPAMENDUEN ARAUKETA

144. artikulua. Hezkuntza-ekipamenduaren arloko ildo eta irizpide orokorrak.

Sektoreko jarduketarekin behar bezalako koordinazioa lortzeko, ondorengo jarduera-irizpide hauek ezartzen dira hezkuntzako ekipamenduekin lotuta, ekipamenduek beren egiteko bikoitza bete dezaten, hau da, populazioa heztea eta lurraldea egituratzeko elementu izatea:

- Udalerrri bakoitzean haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoen sarea mantentzea eta indartzea.
- Mungian gainerako hezkuntza-mailetako ikastetxe publikoen sarea indartzea, dauden instalazioak berrerabiliz eta errentagarri eginez.

145. artikulua. Ekipamendu sanitarioaren arloko ildo eta irizpide orokorrak.

1. Lurraldearen antolamenduak bere gain hartzen ditu osasun-arloko plangintzak (beren eskumenari eta Osasun Arloa osatzen duten zentroen dimentsionamenduari dagokienez Lurraldeko Sektore Plan maila izango lukete), baldin eta beren kokapenak LPPan zehaztutako Lurralde Antolamendurako irizpideak betetzen baditu.
2. Sektoreko jarduketarekin behar bezalako koordinazioa lortzeko, ondorengo jarduera-irizpide hauek ezartzen dira osasun-arloko ekipamenduekin lotuta, ekipamenduek beren egiteko bikoitza bete dezaten, hau da, populazioari zerbitzua eskaintzea eta lurraldea egituratzeko elementu izatea:
 - Mungiako Osasun Zentro berria amaitzea.
 - Kontuan hartu beharko da Urdulizen eraikiko den ospitalea, baita eremu funtzionalean izango duen eragina ere, eta Laukizen izango duena, bereziki, garraio publikoaren ereduari dagokionez.

146. artikulua. Gizarte-zerbitzuen arloko ildo eta irizpide orokorrak.

1. Sektoreko jarduerarekiko koordinazioa lortzeko eta aplikatutako lurralde-ereduaren arabera, ondorengo jarduera-irizpide hauek ezartzen dira gizarte-zerbitzuen ekipamenduen arloan

ekipamenduek beren egiteko bikoitza bete dezaten, hau da, populazioari zerbitzua eskaintzea eta lurraldea egituratzeko elementu izatea:

- Gizarte-zerbitzuen egungo tokiko esparruaz gaindiko antolamendua finkatzea.
- Udalerri bakoitzean Zahar-etxeen sarea mantentzea eta indartzea.
- Mungian Eguneko Zentro bat egitea paralisi zerebrala edo ezgaitasun funtzionala duten pertsonentzat.
- Gizartetik baztertua geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko pisu bat jartzea.
- Ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonak beren independentzia-maila areagotu ahal izateko etxebizitza gehiago eskuragarri jartzea.
- Mungiako partzuergoko gizarte-zerbitzuak gaur egun dauden instalazioak indartzea.

147. artikulua. Kirol-ekipamenduaren arloko ildo eta irizpide orokorrak.

1. Sektoreko jarduketarekin behar bezalako koordinazioa lortzeko, ondorengo jarduera-irizpide eta arteztarau hauek ezartzen dira kirol-ekipamenduekin lotuta, ekipamenduek beren egiteko bikoitza bete dezaten, hau da, populazioari zerbitzua eskaintzea eta aplikatutako lurralde-ereduaren esparruan lurraldea egituratzeko elementu izatea:

- Mota honetako ekipamenduen funtzionamendu mankomunatua sustatzea, udalerri gehienek irismenetik kanpo baitaude.
- Udalerri bakoitzean kirol-jardueren sarea mantendu eta indartzea, beharrezkoak diren tokiko zuzkidurak gauzatu.
- Mungiako egungo kiroldegia handitzea.
- Mungiako igerilekuak estaltzeko proiektu bat gauzatea.
- Jarduera berriak edo indarra lortzen ari direnak sustatzea, esate baterako, skate pisten eskaera.

148. artikulua. Kultura-ekipamenduen arloko ildo eta irizpide orokorrak.

1. Sektoreko jarduketarekin behar bezalako koordinazioa lortzeko, ondorengo jarduera-irizpide eta arteztarau hauek ezartzen dira kultura-ekipamenduekin lotuta, ekipamenduek beren egiteko bikoitza bete dezaten, hau da, populazioari zerbitzua eskaintzea eta aplikatutako lurralde-ereduaren esparruan lurraldea egituratzeko elementu izatea:

- Mota honetako ekipamenduen funtzionamendu mankomunatua sustatzea, eremu funtzionaleko udalerri gehienek irismenetik kanpo baitaude.
- Udalerri bakoitzean zentro ludiko eta kulturalen sarea mantendu eta indartzea, Arrietan, Gamiz-Fikan, Laukizen, Meñakan eta Mungian mota horretako lokalak gauzatu.

149. artikulua. Udalez gaindiko beste ekipamendu batzuekin lotutako ildo eta irizpide orokorrak.

Aurreko artikuluetan aipatutakoaren eskaintza osagarri gisa, LPPak Gernikarako saihebidetako Hegoaldean Suhiltzaile Parke bat gauzatea aurreikusten du, Trobikako Poligonoaren aurrean, bere kokapen estrategikoagatik eta lurzoruaren jabetza publikoaren ehuneko altuagatik.

VIII. TITULUA

UDAL-PLANGINTZEN BATERAGARRITASUNA

1. KAPITULUA

PLANGINTZEN BATERAGARRITASUN-SISTEMA

1. ATALA

KONTZEPTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

150. artikulua. Kontzeptua eta justifikazioa.

1. Plangintzak Bateratzeko Sistematzat hartzen da, LPP honen ondorioetarako, LPPak planeamendu orokorreko xedapenak ondo koordinatzeko ezarri duen prozedura; izan ere, koordinazio hori beharrezkoa da, bai horrelaxe zehaztuta daudelako, bai tipologia nahiz ezaugarri jakinak dituztelako, udalerriz gaindiko eremuren batean eragina duten lurzoru-eremuetan, baldin eta udalerriz gaindiko eremu horrekiko koordinazioa ezinbestekoa bada.
2. LPP honen Plangintzak Bateratzeko Sistema osatzen duten esparruen egiturazko antolamendua Bateragarritasun Planaren bitartez garatuko da, Plan hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 63. eta 92. artikuluetan xedatutakoaren arabera definituta.

2. ATALA

PLANGINTZAREN BATERAGARRITASUN-ESPARRUAK

151. artikulua. Plangintzaren Bateragarritasun-esparruen Sailkapena.

1. «Bateragarritasun-esparrua», lurralde-plan partzial honen ondorioetarako, egiturazko hirigintza-antolamenduko xedapenak harmonizatzeko beharra duen azalera da (sailkapena, kalifikazioa eta sistema orokorrak, gehienbat komunikaziokoak eta eremu askekoak).
2. LPPak Plangintzen Bateragarritasun-esparruen sailkapen hau ezartzen du, motibatzen dituzten alderdien arabera:
 - a. Bateragarritasun Orokorreko Esparruak: Eskualde Egiturako udalerrri guztietan aplikatzeko modukoa, beren artean zein beste eremu funtzional batzuetako alboko udalerriekin, Ingurune Naturalaren Kategorizazioak eta Gainjarritako Baldintzatzaileek udalerrrien artean beren zehaztapen grafikoan jarraipena izan dezaten, eta koherentzia izan dezaten beren arauketari dagokionez.
 - b. Bateragarritasun Espezifikoko Esparruak: Eremu hauen mugetako eremuetan, beren egitura-antolamendua orokorrean koordinatzeko beharra antzematen da.
 - c. Trazaduraren Bateragarritasun-esparruak: Eremu hauetan, LPParen proposamen berriak era askotako sareak eta azpiegiturak sartzten dituzte eta beharrezkoa da beren trazadura modu xehean bateratzea.

152. artikulua. Bateragarritasun Orokorreko Esparruak.

1. Bateragarritasun Orokorra da, Mungiako Eskualde Egiturako udalerrien plangintza orokorreko tresnen beharrezko koordinazioa beren artean zein Mungiako eremu funtzionaletik kanpoko alboko udalerriekin, hurrengo alderdi hauetan: Inguru Naturalaren Kategorizazioan eta Kategorizazioari Gainjarritako Baldintzatzailleetan, izan ere, koordinazioa beharrezkoa da Antolamenduaren koherentzia bermatzeko. Bi alderdiak bateragarri egin dira Planean bertan, eta Arautegi honen II. Tituluan ezaugarriak zehaztuak izan dira, bai eta, eremu funtzionaleko dokumentazio grafikoan ere bere osotasunean.
2. LPParen beraren Arauetan eta Antolamendu Planoetan xedatutakoa betez, bi alderdion bateragarritasun orokorra ziurtaturik dago Mungiako eremu funtzionaleko udalerrientzat.
3. Eskualde Egituratik kanpoko alboko udalerriekiko bateragarritasuna bermatze aldera, betekizun hori bete behar da udal-plangintzen aurkezpen- edo berrikuspen-aldian, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 90.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, helburu horrekin, aurrerapeneko agiria bidaliko da alboko udalerrietara.

153. artikulua. Bateragarritasun Espezifikoko Esparruak.

1. Eremu hauen bateragarritasuna beharrezkoa denean baino ez da egin behar, baldin eta adierazitako okupazioaren muga-eremuak garatzea aukeratzen bada eta, horren eraginez, udal-plangintza desberdinetako eremu mugakideen arteko bateragarritasuna ezinbestekoa bada.
2. LPP honetan, Plangintzen Bateragarritasun Espezifikoko Esparru posibletzat jotzen dira ondorengoak:
 - Mungia-Gatika Atxuri-Billela Jarduera Ekonomikoen eremuan
 - Mungia-Meñaka Larrauri 2/Emerando landako gunean.
3. Esparru horien antolamenduaren koordinazioa bermatzeko definitutako egiturazko antolamendu-instrumentua Bateragarritasun Plana da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 63. eta 92. artikuluetan xedatutakoaren arabera definituta.

154. artikulua. Trazaduraren Bateragarritasun-esparruak.

1. LPParen proposamenen eraginez, Trazatuaren Bateragarritasun-esparruak ezarri dira, udalerriz gaindiko sareen, ardatzen edo azpiegituren txertaketari dagozkionak; horien eskemak lotesleak dira eta Plan honen dokumentazio grafikoan bateratuta daude.
2. LPPak Trazaduraren Bateragarritasun-esparru hauek barne hartzen ditu:
 - BI-631 Mungia-Bermeo errepidearen trabadura berria eta BI-2101 Larrauri Bakio errepidearekiko lotura, O-05 planoan jasotakoa.
 - Mugikortasun alternatiboa: Proposatutako Mugikortasun Alternatiboko Sarea osatzen duten azpiegituren eskema, O-06 planoan jasotakoa.
3. Trazatuetan Plan honek adierazitako eskemak ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko, eraginpeko udalerriek antolamendu-tresnak (elkarrekin bateratuta) batera edo aldi berean tramitatu egin behar dute antolamendu xehatua, trazatuak (antolamendu xehatuta jasota edukitzearen ondorioz) udal-plangintzak bateratuta dituzten azpiegituren kasuan izan ezik.

I. ERANSKINA**ERABILEREI JARRITAKO BALDINTZATZAILEAK UHOLDEAK IZATEKO
ARRISKUA DUTEN EREMUETAN****Erabilerei jarritako baldintzatzaileak uholdeak izateko arriskua duten eremuetan.**

1. Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uraren Legearen testu bategineko 11.3. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, 903/2010 Errege Dekretuan, uztailaren 9koan, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoan, zehazten diren uholdeak izateko arriskua kudeatzeko planek ezartzen dutenari kalterik egin gabe, eta uholdeak izateko arriskua duten lursailetakoa landa-lurzoruaren oinarritzko egoera alde batera utzita, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Legearen testu bategineko 12.2.a) artikuluan xedatutakoari jarraiki, ondoko atal hauetan uholdeak izateko arriskua duen polizia-eremuaren erabilera zer muga dauden ezartzen da.
2. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 9.2. artikuluari jarraiki, lehentasunezko fluxu-eremuan Administrazio Hidraulikoak soilik baimendu ahal izango ditu eremu horretan egin daitezkeen erabilera eta jarduera onargarriak, uholdeak daudenean kalteberatasunik ez dutenak eta eremu horren husteko gaitasuna nabarmen murrizten ez dutenak. Horren ondorioz, oro har, eremu horretan ezin izango dira hauek baimendu:

Oro har, eremu horretan ezin izango dira hauek baimendu:

 - a. Garajeak eta sotoak.
 - b. Kanpaketak, inolaz ere ez.
 - c. Eraikin berriak, beren erabilera edozein izanda ere, baita ikastetxeak eta osasun-zentroak ere, adindunen edo minusbaliatu fisikoen edo psikikoen egoitzak, suhiltzaile-parkeak, Babes Zibileko zerbitzuen instalazioak, erregaiak hornitzeko estazioak, landetxeak eta animalia-haztegiak.
 - d. Sendotzeko obrak, bolumena handitzekoak, modernizatzeak edo desjabetze-balioa handitzekoak edo dauden eraikinen erabilera aldaketa, uholdeen aurrean kalteberatasuna areagotzea berekin dakartenak, higiezinaren higieinak, apainketak eta kontserbazioak eska ditzaketen konponketa txikiak izan ezik.
 - e. Berotegiak, itxitura eta hesi iragazgaitzak, hala nola fabrikako hormen edozein itxitura mota.
 - f. Edozein material edo hondakin moten betegarriak eta metaketak, are gehiago husteko sekzioan murrizketa nabarmena eragin badezakete, jabari publiko hidraulikoaren kutsadura edo andeatzea eragin badezakete eta/edo uraren gainean egon badaitezke edo herrestan eraman badaitezke, drainatze-obrak eta zubiak buxatuz.
 - g. Ibilguarekiko paralelotasunari jarraiki diseinatutako azpiegitura linealak, saneamendu- eta hornidura-azpiegiturak eta lur azpiko beste kanalizazio batzuk izan ezik, edonola ere, beste irtenbide bideragarriak ez dagoen eremu zehatzetan salbu, jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremutik kanpo kokatu beharko dira.
3. Salbuespen gisa, Plan Hidrologikoa indarrean jartzean lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeran dagoen lurzoru batean, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Legearen testu bategineko 12.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki, lehentasunezko fluxu-eremuan eraikinak eraikitzea baimendu ahal izango da alde batean edo bietan eraikin

finkatuko mehelinak dituzten orubeetan eta aurretik dagoen lurzoru urbanizatuan erabat txertatuta dauden orube bakartuetan.

Salbuespenezko bi egoera horietako edozeinetan, bertan dauden eraikinek eta/edo erabilerek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a. Ingurumeneko uholdeak izateko arriskua nabarmen ez handitzea eta hiriguneko uholdeen aurka egin daitezkeen defentsa-jarduketak ez baldintzatzea.
- b. Bizitegi-erabilerak 500 urteko itzulera-aldiko uholde-kotatik gora kokatzea.
- c. Hala badagokio, udalerrri horretarako uholdeak izateko arriskua kudeatzeko planean ezarritako irizpideekin eta prebentzio-neurriekin bateragarria izatea.
- d. Herrestan eramateagatik, disolbatzeagatik edo infiltratzeagatik giza osasunerako eta ingurunerako (lurzorua, ura, landaredia edo fauna) kaltegarriak izan daitezkeen produktuak biltegitratzen, eraldatzen, manipulatzeko, sortzen edo isurtzen dituzten instalazioak ez izatea, eta ikastetxeak edo osasun-zentroak, adindunen edo minusbaliatu fisiko edo psikikoen egoitzak, suhiltzaile-parkeak, Babes Zibileko zerbitzuen instalazioak, erregaiak hornitzeko instalazioak, araztegiak, estazio elektrikoak, landetxeak eta animalia-haztegiak ez izatea.
- e. Baimenaren eskatzaileak berriaz adieraztea badakiela zer arrisku dagoen eraikin berrian eta bere gain hartzen duela, eta kasu horretan babes zibileko zer neurri hartu behar dituen badakiela, eraikina babesteko egokitzen jotzen dituen neurri osagarriak alde batera utzita.

Lehentasunezko fluxu-eremuan eraikitzeke ematen diren baimenetatik, betekizun horiei jarraiki, Jabetza Erregistrora eramango dira bertan inskribatzeko, eskatzailearen kontura, eskaeraren xede den finkarekiko jabariaren baldintza gisa.

4. Uholdeak izateko arriskua duen polizia-eremuan baimenen eskaerak egiteko, lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo, Plan Hidrologikoa indarrean jartzean lurzoru urbanizatuaren egoeran dagoen lurzorian, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Legearen testu bategineko 12.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki, azterketa hidrauliko zehatz bat eskatu ahal izango da, jarduketa egin ahal izateko behar diren neurri zuzentzaileak zehaztu eta arazoitzen dituen. Neurri horiek ingurumenaren aldetik onargarriak izan beharko dute, eta ez dute ingurunean aurretik dagoen uholdeak izateko arriskua eta arriskua larriagotu behar.

Oro har, eremu horretan ezin izango dira hauek baimendu:

- a) Garajeak eta sotoak, itxitura hermetikoekin iragazgaizten direnean, uholde-kotaren gainetik haizebideak dituztenean eta sarbideak arrapalen edo eskailera-mailen bidez altxatuta daudenean izan ezik.
- b) Kanpaketak, inolaz ere ez.
- e) Uholde larriengatik larrialdi-egoeran bertara sartu ahal izatea ziurtatu behar den funtsezko azpiegitura publikoetan, hala nola ikastetxeetan edo osasun-zentroetan, adindunen edo minusbaliatu fisikoen edo psikikoen egoitzetan, suhiltzaile-parkeetan eta Babes Zibileko zerbitzuen instalazioetan.
- d) Edozein material edo hondakin moten metaketak, are gehiago husteko sekzioan murrizketa nabarmena eragin badezakete, jabari publiko hidraulikoaren kutsadura edo andeatzea eragin badezakete eta/edo uraren gainean egon badaitezke edo herrestan eraman badaitezke, drainatze-obrak eta zubiak buxatuz.

Lurzoru urbanizatuan, behar bezala arrazoitutako ezintasun materialen bat dagoenean izan ezik, bizitegi-erabilera berriak 500 urteko itzulera-aldiko uholdeak atzean ezin duen kokatu beharko dira. Landa-lurzoruaren oinarritzko egoeran dauden lursailetan zaugarriak diren erabilera guztietara hedatuko da muga hori, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Legearen testu bategineko 12.2. artikulua araber.

Uholdeei aurre egiteko babes-neurriak.

1. Ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Legearen testu bategineko 12.3. artikulua araber lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeran dagoen lurzorian, pertsonak eta ondasunak babesteko egiturazko defentsa-jarduketak egitea beharrezkoa denean, hala badagokio, udalerrri horretarako ezarri den uholdeak izateko arriskua kudeatzeko planak ezarriko du babes-maila. Aurreikuspen horren ezean, eta oro har, kanalizazioa diseinatuko da, herrigunea gutxienez 100 urteko itzulera-aldia duen uholdeak izateko arriskudun eremutik kanpo geratzeko.
2. Lurzoruaren Legearen testu bategineko 12.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki landa-lurzoruaren oinarritzko egoeran dauden lursailetan, behin-behineko jarduketak, baita pertsonak eta ondasunak uholdeen aurka babesteko behar diren egiturazko neurriak eta egiturazkoak ez direnak ere, 903/2010 Errege Dekretuaren, uztailaren 9koaren, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoaren, 8.1.a) artikuluko uholdeak izateko arrisku handia duen eremutik kanpo kokatu beharko dira, jarduketan aurretiko uholdea izateko arriskuko egoeran, eta hartu beharreko neurriek bermatzen badute 500 urteko itzulera-aldiko uholdeetan uraren mailen aurkako babesa.

Salbuespen gisa, 903/2010 Errege Dekretuaren, uztailaren 9koaren, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoaren, 8.1.a) artikuluko uholdeak izateko arrisku handia duen eremuan jarduketa horiek kokatu ahal izango dira, baldin eta hartu beharreko neurriek uholdeei aurre egiteko babesa bermatzen badute eta Administrazio Hidraulikoaren aurretiko aldeko erabakia badute berariaz, eta horrek ezinbestean berekin ekarri gabe aurreikuspenik egin behar izatea landa-lurzoruaren oinarritzko egoeran egotetik lurzoru urbanizatura egoterako urrats horri buruz lurralde-eta hirigintza-antolamenduko tresnek.
3. 10/2001 Legearen, uztailaren 5ekoaren, Plan Hidrologiko Nazionalaren, 28. artikuluan xedatutakoarekin, eta uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uraren Legearen testu bategineko 23. artikuluan xedatutakoarekin bat, Administrazio Hidraulikoak lankidetzako protokolo orokorrak sustatuko ditu autonomia-erkidegoetako administrazioekin eta tokiko administrazioekin, uholdeak izateko arriskua duen eremuan erabileren antolaketa ahalbideratzeko neurrien programa bat ezartzeko. Programa horrek lagungarria izan behar du ibai baten edo ibai baten zatien uholdeen aurka pertsonak eta ondasunak babesteko, jabari publiko hidraulikoaren egoera zaintzeko helburuak betetzeko, uretako ekosistemen andeatzea prebenitzeko, ekosistema horiek hobetzen lagunduz, eta uholdeetan korronteen erregimena babestuz, ibilguen lursail mugakideen funtzioa erraztuz emarien eta garraiatutako karga solidoen zapaltzean.
4. Hirigintza-plangintza orokor bat lehen aldiz egiteko aurrerapen-fasean edo indarrean dagoen bat osorik edo partzialki berrikusteko proiektua egiten denean, eta uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategineko 25.4. artikuluko txostenari kalterik egin gabe, protokolo horiek administrazioen arteko koordinazio-tresnak izango dira, uholdeak izateko eremuan landa-lurzorua lurzoru urbanizatu bihurtzea aurreikusten den kasuetan irtenbide egoki bat lortzeko.

5. Uholdeen kudeaketan kontuan izan dira Ministroen Kontseiluko Erabakia, 2011ko uztailaren 29koa, uholdeen arriskuen aurrean Babes Zibileko Estatuko Plana onartzen duena, eta Ministroen Kontseiluko Erabakia, 1994ko abenduaren 9koa, uholdeen arriskuen aurrean oinarrizko araua onartzen duena, autonomia-erkidegoetako planen edukia eta oinarrizko funtzioak ezartzekoa. Xede horretarako, dagozkien lurralde-esparruetan Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdea izateko Arriskuen aurkako Babes Zibileko Plana (1999ko martxoaren 23ko Babes zibileko Batzorde Nazionalak homologatua), Nafarroako Uholdea izateko Arriskuen aurkako Babes Zibileko Plana (2002ko otsailaren 21ean homologatua) eta Gaztela eta Leongo Uholdea izateko Arriskuen aurkako Babes Zibileko Plana (2010eko martxoaren 24an homologatua) aplikatuko dira.

2016ko maiatzaren 17a, asteartea

II.ERANSKINA

INGURU FISIKOA ANTOLATZEKO MATRIZEA

	A1 EAEko babes-eredu propioak dauzkaten Inguru Naturalak	A2a Babes Berezia. Kostalde eta Sollube-Garbolako troka	A2b Lurgainazako Uren Babesa. Butroeko Ibarrenen Ibal-sistema	A3 "Arasner" eta entretzenimendu mailako lotutakoak	A4 Gainazaleko Uren Babesa	F.1 Basogintzako Mugekin	F.2 Basogintzako Produktiboa	C.1 Balio Handiko Landazabala	C.2 Nekazaritzako Landazabala Arrunta
A) INGURUMEN BABESA									
A1 KONTSERBAZIOA		2	2	2	2	2	2	2	2
A1.1 Kontserbazio zorrotza eta/edo aktiboa	+	1	1	1	1	1	2	2	2
A1.2 Zientzia- eta ikerketa-jarduerak	+	2	2	2	2	2	2	2	2
A2 INGURUMEN HOBEKUNTZA		1	1	1	1	1	2	2	2
B) AISIALDIA ETA JOLASALDIA									
B1 ASTIALDI ESTENTSIBOA		3	3	2	3	2	2	2	2
B1.1 Kirol-jarduerak naturan (uretako jarduerak, ekitazioa, txangozaletasuna eta antzekoak alde batera utzita)	+	3	3	2*	3	2*	2	2*	2
B1.2 Aurreko erabilerekin lotutako obra txikiak	+	3	3	2	3	2	2	2	2
B2 RECREO INTENSIVO		3	3	2*	3	3	2	3	2
B2.1 Jolas-erabilera kontzentratua	+	3	3	2*	3	3	2	3	2
B2.2 Kanpina	+	3	3	3	3	3	2*	3	2
B2.3 Motordun ibilgailuen zirkulazioari loturiko jarduerak		3	3	2*	3	3	2*	2*	2
B2.3.1 Zirkulazio motorizatua errepideetatik kanpo, ibilgailu baimenduak izan ezik	+	3	3	2*	3	3	2*	2*	2
B2.3.2 Berariak egokituriko zirkuituen kokalekua	+	3	3	2*	3	3	2*	3	2
B2.4 Golf-zelaiak	+	3	3	2*	3	3	2*	3	2
B2.5 Aire zabaleko kirol-instalazioak	+	3	3	2*	3	3	2*	3	2
B2.6 Zientzia eta kulturako jarduerak, instalazioen eraikuntzarekin	+	3	3	2*	3	3	2*	3	2
B3 JARDUERA ZINEGETIKOAK ETA ARRAIN HAZKUNTZAKOAK		2	2	2	2	2	2	2	2
C) OINARRIZKO BALIABIDEEN USTIAPENA									
C1 NEKAZARITZA									
C1.1 Nekazaritza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak	+	3	2	2	3	3	2	2	2
C1.1.1 Lanabesak eta produktuak gordetzeko txabolak	+	3	2	2	3	3	2	2	2
C1.1.2 Ustiategi bereko produktuen lehen eraldaketa egiteko habearreak/biltegiak	+	3	2*	2*	3	3	2*	2*	2
C1.1.3 Dagoen nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotutako etxebizitza	+	3	2*	2*	3	3	2*	2*	2
C1.2 Nekazaritza-ustiategiarekin lotutako praktikak	+	3	2	2	2	3	2*	1	1
C1.2.1 Maila freatikoa aldatzea betegarriengatik, drainatzeengatik eta abar	+	3	3	3	3	3	3	2*	2
C2 BEROTEGIAK									
C2.1 Berotegi industrialen instalazioa	+	3	3	3	3	3	2*	2*	2
C2.2 Berotegi familiarren instalazioa	+	3	2	2	2	3	2	2	2
C3 ABELTZAINZA									
C3.1 Abeltzaintzako ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak	+	2*	2*	2*	2	2	2	2	2
C3.1.1 Itxiturak, bordak, uraskak, etab.		2*	2*	2*	2	2	2	2	2
C3.1.2 Ustiategi bereko produktuen lehen eraldaketa egiteko habearreak/biltegiak.	+	3	2*	2*	3	3	2*	2*	2
C3.1.3 Dagoen abeltzaintzako ustiategiari lotutako etxebizitza	+	3	2*	2*	3	3	2*	2*	2
C3.2 Abeltzaintza estentsiboa	+	2*	1	1	2*	2*	2	2	2
C3.4 Abeltzaintza Intentsiboa	+	3	3	3	3	3	2*	3	2
C4 AKUIKULTURA		2*	2*	2*	2*	3	2*	2*	2
C5 BASO ERABILERA									
C5.1 Babeseko baso-erabilera: autoktono masak erabiltzeari eta kontserbatzeari lotutako erabilerak.	+	1	2*	1	1	1	2	2*	2
C5.2 Produktzio baso-erabilera: masen ustiapenari loturiko baso-erabilerak.	+	3	3	2*	3	2*	1	3	2
C5.3 Basogintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak	+	3	3	3	3	3	2	3	2

2016ko maiatzaren 17a, asteartea

		A1 EAeko babes-eredu propioak dauzkaten Inguru Naturalak	A2a Babes Berezia, Kostaldea eta Sollube-Garbolako troka	A2b Lurgainazaleko Uren Babesa, Butroeko Ibarren Ibal-sistema	A3 "Ansara" eta entretanimendu mailako lekuak	A4 Gainazaleko Uren Babesa	F.1 Basogintzakoa Mugekin	F.2 Basogintzakoa Produktiboa	C.1 Balio Handiko Landazabala	C.2 Nekazaritzarako Landazabal Arrunta
C5.4	Nekazaritzako lurzorua bertako baso-espezieen baso-lurzu bihurtzea	+	1	2*	2*	1	1	2	3	2*
C5.5	Espezie aloktonoak pixkanaka kentzeko eta haien ordezt bertako espezieak jartzeko basogintzako erabilera.	+	1	1	1	1	1	2	2*	2
C5.6	Espezie aloktonoen basoberritze berriak	+	3	3	2*	3	3	2	3	2*
C6	NEKAZARITZA ETA BASOKO INDUSTRIAK									
C6.1	Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak	+	3	3	3	3	3	3	3	2
C6.2	Nekazaritzako elikagaien beste industria batzuk eta basogintzako beste industria batzuk	+	3	3	3	3	3	3	3	3
C7	ERAUZKETA JARDUERAK	+	3	3	3	3	3	2*	3	2*
d)	AZPIEGITURAK									
D1	GARRAIO-BIDEAK									
D1.1	Basoko bide berriak	+	3	2*	2*	2*	2*	2	2*	2
D2	AIREKO LINEAK	+	3	3	3	2*	2*	2*	2*	2
D3	LURPEKO LINEAK		2*	2*	2	2*	2*	2	2*	2
D4	LINEALAK EZ DIREN ZERBITZU INSTALAZIO TEKNIKOAK. A MOTA									
D4.1	Ibilgailuak aire zabalean uzteko parkingak (ez dira jolas-eremuekin lotutako erabileratzat hartzen)	+	3	3	3	3	3	2	3	2
D4.2	Ura tratatzeko instalazioak eta urtegiak, eta ur-biltegi handiak	+	3	3	2*	3	3	2*	3	2
D4.3	Energia berriztaezina ekoizteko instalazioak eta basogintzako eta nekazaritzako biomasa-zentralak.	+	3	3	3	3	3	3	3	3
D4.4	Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak, eta nekazaritzako eta basogintzako biomasa-zentralak eta abeltzaintza-hondakinen biomasa-zentralak	+	3	2*	2*	2*	3	2	2*	2
D4.5	Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak (Abeltzaintzako hondakinen biomasa-zentralak)	+	3	3	3	3	3	2*	3	2
D4.6	Energia eraldatzeko instalazioak	+	3	3	3	3	3	2*	3	2
D4.7	Hondakin-uren araztegiak	+	3	2*	2*	2*	3	2*	2*	2
D5	LINEALAK EZ DIREN ZERBITZU INSTALAZIO TEKNIKOAK. B MOTA									
D5.1	Dorreak, antenak, irrati-estazio igorleak eta hartzaileak eta abar	+	3	3	3	3	3	2	3	2
D5.2	Aparkaleku txikiak (<50 ibilgailu)	+	3	3	2*	3	3	2*	3	2
D6	BETEGARRIAK, HONDAKIN SOLIDOEN HONDAKINDEGIAK ETA ZABORTEGIAK									
D6.1	Hondakin solidoak eta/edo hondakin toxikoak eta arriskutsuak tratatzeko eta transferitzeko instalazioak	+	3	3	3	3	3	2*	3	2
D6.2	Hondakin toxikoen eta arriskutsuen zabortegia	+	3	3	3	3	3	2*	3	2*
D6.3	Hondakindegia eta beste zabortegi batzuk	+	3	3	3	3	3	2*	3	2*
D6.4	Lur eta harri betegarriak	+	3	3	3	3	2*	2	3	2
E)	ERAIKUNTZA ERABILERAK									
E1	LEHENGO GUNEETAN EUSKARRITURIKO HIRIGINTZA HAZKUNDEAK	+	3	3	3	3	3	2*	3	2
E2	LEHENGO GUNEETAN EUSKARRITU GABEKO HIRIGINTZA HAZKUNDEAK	+	3	3	3	3	3	3	3	3
E3	ERABILGARRITASUN PUBLIKOA ETA GIZARTE INTERESA DUTEN ERAIKINAK									
E3.1	Harrerako eta informazioko guneak, ekomuseoak, acuariumak eta antzekoak	+	2*	2*	2*	2*	2*	2	2*	2
E3.2	Beste onura publikoko edo gizarte-intereseko eraikuntzen hondarra	+	3	3	3	3	3	2	2*	2
E4	ISOLATURIKO EGOITZAKOAK	+	3	3	3	3	3	3	3	3
E5	INSTALAZIO ARRISKUTSUAK	+	3	3	3	3	3	2	3	2

ERABILEREN SAILKAPENA BERE ERLAZIO-ARAUBIDEAREN ARABERA.

- + Lurralde Antolamendurako Artezpideen arabera, arlo funtzionalean sartutako naturagune babestuen esparrua dagokion Natura Baliabideen Antolamendu Planak edo Erabilera eta Kudeaketarako Plan Artezkariak arautuko du, Lurralde Zati Planak planteatzen duen lurzoruaren antolamendutik kanpo geratuz.
- 1 Sustatua: oso egokiak lurraldearen kudeaketa iraunkorrarentzat.
- 2 Onargarria: eskaera xehea egin eta proiektuaren ingurumeneko ondorioak aztertu ondoren.
- 2* Erabilera onargarriak, planaren, programaren edo proiektuaren ingurumen-ondorioei buruzko analisi bat egin ondoren. Analisi horrek beste kokapen posible batzuei buruzko azterketa zorrotz bat ere egin behar du, ingurumen-aldagaiak kontuan hartuz. Analisi hori dagokion Funtsezko Organoak onartu beharreko dokumentazioaren zati da. Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko edo Proiektuen Ingurumenaren gaineko Inpaktuaren Ebaluazioko prozedura egin behar zaien planak, programak edo proiektuak indarreko berariazko legediak adierazten duenaren arabera ebaluatuko dira. Horrez gainera, balio altuko landazabalari eragiten badiote, baserri-jardueraren gaineko ebaluazio-protokoloa egitea beharrezkoa izango da, Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak jasotzen dituen baldintzetan.
- 3 Debekatua: lurraldearen kudeaketa iraunkorrerako desegokitzat jotzen delako.

LURZORUAREN ERABILEREN ETA ERABILEREN MATRIZEAREN APLIKAZIOAREN XEDEETARAKO JARDUEREN DEFINIZIOA.

Hau da Lurralde Zati Plan honetako erabileren sistematizazio orokorra erabileren matrizearen aplikazioaren xedeetarako:

INGURUMEN-BABESA.

- Kontserbazioa.
 - o Kontserbazio zorrotza eta/edo aktiboa.
 - o Zientzia- eta ikerketa-jarduerak.
- Ingurumen-hobekuntza.

AISIA ETA ATSEDENA.

- Jolas-erabilera estentsiboa.
 - o Kirol-jarduerak naturan (uretako jarduerak, ekitazioa, txangozaletasuna eta antzekoak alde batera utzita).
 - o Aurreko erabilerekin lotutako obra txikiak.
- Jolas-erabilera intentsiboa.
 - o Jolas-erabilera kontzentratua.
 - o Kanpinak.
 - o Ibilgailu motordunen zirkulazioari lotutako jarduerak.
 - Zirkulazio motorizatua errepideetatik kanpo, ibilgailu baimenduak izan ezik.
 - Bereziki egokitutako zirkuituen kokapena.

- Golf-zelaiak.
- Kirol-instalazioak aire zabalean.
- Zientzia- eta kultura-jarduerak eta/edo aisialdiko jarduerak instalazioen eraikuntzarekin.
- Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.

LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN USTIAPENA.

- Nekazaritza.
 - Nekazaritza-ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak:
 - Lanabesak eta produktuak gordetzeko biltegiak.
 - Ustiategi bereko produktuen lehen eraldaketa egiteko habearteak/biltegiak.
 - Dagoen nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotutako etxebizitza.
 - Nekazaritza-ustiategiekin lotutako praktikak.
 - Maila freatikoa aldatzea betegarriengatik, drainatzeengatik eta abar
- Berotegiak.
 - Berotegi industrialak instalatzea.
 - Familiako negutegiak instalatzea.
- Abeltzaintza.
 - Abeltzaintzako ustiategiarekin lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak
 - Itxiturak, bordak, uraskak, etab.
 - Ustiategi bereko produktuen lehen eraldaketa egiteko habearteak/biltegiak.
 - Abeltzaintza estentsiboa.
 - Abeltzaintza intentsiboa.
- Akuikultura.
- Basogintzako erabilera.
 - Masa autoktonoak erabiltzeko eta kontserbatzeko helburua duten baso-jarduerak dituen basogintzako erabilera.
 - Masak ustiatzeko helburua duten baso-jarduerak dituen basogintzako erabilera.
 - Basogintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak.
 - Nekazaritzako lurzoruak bertako baso-espezieen baso-lurzoru bihurtzea.
 - Espezie aloktonoak pixkanaka kentzeko eta haien ordeztu bertako espezieak jartzeko basogintzako erabilera.
 - Espezie aloktonoen basoberritze berriak.
- Nekazaritza- eta basogintza-industriak

- Ustiapenarekin lotuta ez dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen lehen eraldaketarako eraikinak.
- Nekazaritzako elikagaien beste industria batzuk eta basogintzako beste industria batzuk.

- Erauzketa-jarduerak.

AZPIEGITURAK.

- Garraiobideak
 - Landa-bide eta baso-pista berriak.
- Aireko hariterien lineak.
- Lur azpiko lineak.
- A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak.
 - Autoa uzteko eremu handiak aire zabalean (>50 ibilgailu).
 - Ur-biltegi handiak eta ura tratatzeko instalazioak eta urtegiak.
 - Energia berriztaezina ekoizteko instalazioak, eta nekazaritzako eta basogintzako biomasa-zentralak.
 - Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak, eta nekazaritzako eta basogintzako biomasa-zentralak eta abeltzaintza-hondakinen biomasa-zentralak.
 - Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak, abeltzaintza-hondakinen biomasa-zentralen bidez.
 - Energia eraldaketarako instalazioak.
 - Hondakin-uren araztegiak.
- B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak.
 - Dorreak, antenak, irrati-estazio igorleak eta hartzaileak eta abar.
 - Aparkaleku txikiak (<50 ibilgailu).
- Betegarriak, hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegiak.
 - Hondakin solidoak eta/edo hondakin toxikoak eta arriskutsuak tratatzeko eta transferitzeko instalazioak.
 - Hondakin toxikoen eta arriskutsuen zabortegia.
 - Hondakindegia eta beste zabortegi batzuk
 - Lur eta harri betegarriak.

ERAIKUNTZA-ERABILERA.

- Aurretik zeuden hiriguneak oinarri hartuta egin diren hirigintza-hazkunderak.
- Aurretik zeuden hiriguneak oinarri hartuta egin diren hirigintza-hazkunderak.
- Onura publikoko eta gizartearen intereseko eraikinak eta instalazioak.
 - Harrera- eta informazio-zentroak, ekomuseoak eta antzekoak.

- Onura publikoko eta gizartearen intereseko gainerako eraikinak.
 - Etxebizitza-erabilera bakartua .
 - Instalazio arriskutsuak.

Erabileren aurreko sistematizazioa eta ondoren egiten den sistematizazio horren garapena definizio irekitzat hartuko dira, ez baztertzailatzat.

INGURUMEN-BABESA.

A.1. Kontserbazioa

- **Kontserbazio zorrotza eta/edo aktiboa:** egungo ezaugarriei eta egoerari gizakiaren esku-hartzerik gabe eusteari dagokio edo esku-hartze zientifikoak edo kulturalak eginez soilik kasurik naturalizatuenetan. Lehentasuna ematen zaio balio naturalen zainketari (zorrotza), eta egungo erabilera mantentzeari eta gizakiak garapen jasangarriko dinamika batean aktiboki parte hartzeari gainerako kasuetan (aktiboa).
- **Zientzia- eta ikerketa-jarduerak:** ingurumena esperientzia eta ikerketa zientifikoak egiteko erabiltzea, behin betikoak ez diren eta ikerketa errazteko behar bezala egokituta dauden instalazioak barne, hala nola behaketa-puntuak, laginak biltzeko puntuak eta itsasontzien zirkulazioa, azterketa eta behaketa errazteko.

A.3. Ingurumen-hobekuntza.

Oso mota desberdinetako tratamendu teknikoak dira, berariaz jarduketak egiten zaizkion eremu andeatua beste oreka-egoera baliotsuago batzuetara bideratzeko helburua dutenak.

B. AISIA ETA ATSEDENA.

B.1. Jolas-erabilera estentsiboa

- **Kirol-jarduera naturan:** aisia, turismo, hezkuntza eta interpretaziorako xedearekin natura-inguruneaz gozatzea, jarduera bigunak, ekipamendu esanguratsu gabekoak, oinarri hartuta, eta ingurune fisikoan gertaera fisiko gutxi eragiten dutenak (uretako jarduerak, ekitazioa, txangozaletasuna eta antzekoak alde batera utzita), hala nola parapentea eta mendi-bizikleta.
- Kategoria honen baitan sartzen dira aurreko erabilerekin eta naturan egiten diren kirol-jarduerekin **lotutako obra txikiak** (erreken gaineko pasaguneak, bideen balizatzeak, behatokiak...), arduratsutzat eta paisaian uztartutzat hartzen direnak. Oro har, erabilera honetatik kanpo geratzen dira eraikin-garapenak eta bide-sareko instalazioak edo elementuak.

B.2. Jolas-erabilera intentsiboa

Aisia, turismo, hezkuntza eta interpretaziorako xedearekin natura-inguruneaz gozatzea sartzen dira erabilera horretan, hainbat motatako jolas-jardueretarako espazio bat egokitzea berekin dakarten aisialdi- eta/edo harrera-ekipamenduak oinarri hartuta.

Era berean, beste jarduera hauek erabilera horrekin **lotutakotzat** jotzen dira:

- Jolas-erabilera kontzentratua: espazio jakin bat egokitzea olgetarako, ekipamenduz hornituz, hala nola mahaiak, barbakoaz, iturriz, osasun-zerbitzuz, paperontziz, jokoaz edo eraikuntza txikiz.
- Beste jolas-jarduera batzuk: eraikin edo instalazio handiak eraikitzea berekin dakartenak:

- Kanpinak: hauek baimendutako kanpin motak ezarri ahal izango dira soilik: 41/1981 Dekretua, martxoaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kanpinen antolaketari buruzkoa, 178/1989 Dekretuak aldatzen duena. Horrez gainera, kanpinek dekretu horietan adierazitako erabilera-baldintzak eta plaza kopurua errespetatu beharko dituzte.
- Ibilgailu motordunen zirkulazioarekin lotutako jarduera, errepideetatik kanpo nahiz bereziki egokitutako zirkuituetan.
- Golf-zelaiak.
- Kirol-instalazioak aire zabalean.
- Zientzia- eta kultura-jarduerak eta/edo aisialdiko jarduerak instalazioen eraikuntzarekin.

B.3. Jarduera zinegetikoak eta arrain-hazkuntzako jarduerak.

Ehizaren eta arrantzaren praktika sartzen dira jarduera horietan.

Jarduera horien araudia aplikagarri zaizkion nazioarteko, estatuko, autonomia-erkidegoko eta foru-aldundiko legedietatik eratorritako da, eta batez ere, martxoaren 17ko 2/2011 Ehizari buruzko Legetik eta urteroko Foru Aginduetatik, ehizarako eta arrantzarako denboraldi baliiodunei eta debekualdi bereziei buruzkoetatik.

C. LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN USTIAPENA.

C.1. Nekazaritza.

Basokoak ez diren landare-baliabideen laboreekin zuzenean lotutako jarduerak sartzen dira hemen (belarki-laboreak eta zurezko laboreak, baratzezaintza, lorezaintza, haztegiko laboreak, perretxikoen laboreak eta labore hidroponikoak): lurra prestatzea laboreak lortzeko; kultura-lanak eta –praktikak; uztak biltzea, hautatzea eta sailkatzea garraiatuak izateko baldintzetan prestatuz, ondoren biltegitzeko edo kontsumitzeko; ura botatzea eta sail ureztatuen kasuan aprobetxamendu-intentsitate handiagoa lortzea; nekazaritza oro har hobetzeko beharrezko landa-azpiegituren obrak egitea. Kontzeptu horretan, aire zabalean nahiz estalkipean egiten diren nekazaritza-jarduerak sartzen dira.

Nekazaritza-ustiategiarekin lotutako **eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak**:

- Lanabesak eta produktuak gordetzeko **biltegiak**.
Lotura garraio-jarioekin	Ibilbide espreso-autobus-lineak. Bizikletak: debekatuta Oinezkoak: debekatuta Ez da egokia tranbietarako, oinezkoak dabiltzalako	Garraio publikoko lineak, geraldiekin erreserbatutako espazioetan; ibilbide espreso-autobusak. Bizikletak: errei soilekin edo bazterbide egokiekin Oinezkoak: pasaguneak dituzten bazterbideak edo espaloiak	Garraio publikoko lineen kanal nagusiak, geraldiekin erreserbatutako espazioetan Bizikletak: errei soilekin Oinezkoak: espaloiak eta pasaguneak Egokia igarobide soileko tranbientzat	Garraio publikoko lineen kanal nagusiak. Geraldiekin erreserbatutako espazioetan Bizikletak: errei soilekin edo bazterbide egokiekin Oinezkoak: pasaguneak dituzten bazterbideak edo espaloiak	Garraio publikoko lineak. Geraldiekin Bizikletak: errei soilekin edo ez Oinezkoak: pasaguneak dituzten espaloiak edo beste modu batzuekin batera Egokia tranbientzat, plataforma soilarekin edo ez	Garraio publikoko lineak. Geraldiekin Bizikletak: bazterbideak edo ez Oinezkoak: pasaguneak dituzten bazterbideak edo espaloiak

XVII. ERANSKINA**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO PROIEKTUEN ETA INSTALAZIOEN TRAZATUEK HIRIGINTZA-PLANGINTZAN/HIRIGINTZA-ARAUBIDE BERRIAN ERAGITEN DITUZTEN AFEKTAZIOAK****SANEAMENDUKO HORNIDURA-SISTEMA OROKORRAREN TRATATUAK PLANGINTZAKO ANTOLAMENDU-ARAU SUBSIDIOARIOETAN ERAGITEN DITUEN AFEKTAZIOAK.**

Bilboko eta bere Eskualdeko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren Aldaketan xedatutakoari jarraiki, aipatuko dokumentuko aginduak udalerriko Plangintzaren Antolamendu-arau subsidiarioetara lekualdatzeko xedez saneamenduko sistema orokorra sar dadin, indarreko Plangintzak emandako lurzoruen egungo kalifikazioan aldaketa hauek egiten dira, era berean, hornidura-sistema orokorri buruzkoak direnak.

- a) Indarreko plangintzak ematen zien kalifikazioa galtzen duten lursailak, **saneamenduko sistema orokorreko, saneamendu-sareko edo hornidura-sareko sistema orokorretako lurzoru** gisa kalifikatuak izateko.
- b) Indarreko plangintzaren kalifikazioari eusten dioten lursailak, baina beren baimendutako erabileretan **saneamendu-sarerako edo hornidura-sarerako zortasun** bat sartu zaiena.
- c) Era berean, indarreko plangintzak emandako kalifikazioari eusten dioten lursailak, eta horietarako baimendu diren erabileretan **saneamendu-sarerako edo tunel erako hornidura-sarerako muga** bat sartu delarik.
- d) Plangintzak emandako kalifikazioei eusten dieten lursailei eta bertarako baimendu diren erabileretan mugarik jarri ez zaienei, nahiz eta saneamendu-sarearen edo hornidura-sarearen trazatuak kaltetzen dituen, sare horren ezarpena erabilera horiekin bateragarria dela irizteagatik.

HIRIGINTZA-ARAUDIA.**1. HIRIGINTZA-ARAUBIDE BERRIA.**

Indarreko hirigintza-antolamenduak eta antolamendu hori garatzen duten plangintza-figurek aintzat hartuko dituzte saneamendu- edo hornidura-sistema orokorra sartzegatik berriz kalifikatu diren lurzoruen hirigintza-araubidea jarraian ezarritako erabilera eta zehaztapen hauei erasanda geratzen dira:

- a) **Saneamendu-sistema orokor, saneamendu-sare edo hornidura-sare sistema orokor gisa kalifikatutako eremuak.**

Epigrafe honetan sartutako lurzoruek **“Saneamendu-sistema orokorra. Saneamendu-sarea”** edo **“Hornidura-sistema orokorra. Hornidura-sarea”** izeneko sinbologiarekin agertu behar dute kartografian.

Eremu horretarako baimendutako erabilerak saneamendu- edo hornidura-sistema orokorra helburu dutenak dira.

Halaber, zerbitzu publikoei eta oinarrizko azpiegiturei dagozkien erabilerak ere baimentzen dira: komunikazioak, energiaren eta antzekoen hornidurak, baldin eta afekzioa eragiten duen saneamendu-instalazioaren eraikuntzarekin, ustiapenarekin eta mantentze-lanekin bateragarriak badira.

Definizio hori jaso duen afekzioaren azalera kasuan kasuko saneamendu- edo hornidura-instalazioak atzeman duen eremuak izango da, gehi perimetro osoan jarriko den **BOST (5) METROKO** zabalera errenkada, baldin eta instalazio konplexuagoak izateagatik, esaterako hondakin uren araztegia, edateko uraren biltegia etab., proiektuaren planoetan berariaz zehaztu ez bada.

b) **Arau subsidiarioek emandako kalifikazioari eusten dioten eremuak, saneamendu- edo hornidura-sarerako zortasun bat dutenak.**

Epigrafe honetan jasotzen diren lurzoruek "**Egungo erabilera saneamendu-sarerako mugarekin**" edo "**Egungo erabilera hornidura-sarerako**" izeneko sinbologiaren bidez zonifikatuta egon behar dute kartografian.

Saneamendu- edo hornidura-sareari dagokion erabilerez gain, Plangintzako Antolamendu Arau Subsidiarioetan kasu bakoitzean emandako kalifikaziorako ezarri diren erabilerak ere baimentzen dira eremu horretan. Horrez gainera, muga hauek ezartzen dira:

- 1.- Debebatuta dago goldatze-lanak edo antzekoak egitea berrogeita hamar zentimetro baino gehiagoko sakoneran, bai eta zurtoin altuko zuhaitzak edo zuhaixkak landatzea.
- 2.- Debebatuta dago edozein eraikin edo eraikuntza mota eraikitzea, behin-behinekoa edo aldi baterakoa bada ere, ez eta eroanbidearen eta ondoko elementuen funtzionamendu ona, zainketa, kontserbazioa eta beharrezko konponketak kaltetu edo aztoratu ditzaketen edozein egintza egitea ere.
- 3.- Instalazioen mantentze-lanetarako, ustiapenerako eta zainketara beharrezko langileen eta ekipamenduen sarrera askea, hala badagokio, sortzen dituzten kalteak ordainduz.

Saneamendu- edo hornidura-sareak inolako mugarik ezarri ez den erabilera eta jabari publikoko lursailak zeharkatzen baditu, ondasun horiek jabeak Ur Partzuergoari jakinarazi beharko dio lursail horietan gerta daitekeen edozein aldaketa eta aipatu sarearen instalazioak oztopa ditzakeena.

Barne-erreforma lanen esparrua hiri lurtean denean, baita urbanizatzeko lurtean ere, saneamendu edo hornidura sarearentzako mugaketarekin egungo erabilera gisa zonifikatu zerrenden mugak ezartzen dira zonifikazio honek atxikitako sektoreak gara ditzaten Plan Partzialentzako edo Plan Bereziarentzako eraikuntzaren muga bezala, zerrenda horrek bai aprobetxamenduaren ondorioetarako baita onartutako gehienezko okupaziorako kontuan hartzearen kaltetan gabe.

Horrela zehazturiko eremuei dagokien afekzio-bandak **HAMAR (10) METROKO** zabalera izango du saneamendu-eroanbideei dagokienez, eta bost (5) metro hornidura-eroanbideei dagokienez, eta eroanbidearen luzerako ardatzari dagokionez erdiratuta egongo da.

c) **Arau subsidiarioek emandako kalifikazioari eusten dioten eremuak, tunel erako saneamendu- edo hornidura-sarerako muga bat dutenak.**

Titulu honetan sartzen diren lurzoruek "**Tunel erako saneamendu- edo hornidura-sarerako muga duen egungo erabilera**" izeneko sinbologiaren bidez zonifikatuko dira kartografian, eta bost metro azpiko sekzioaren giltzarriaren gainean harrizko estalkiarekin tunel moduan garatzen den saneamendu-sistema orokorraren zati bat eransten zaizkionak dira.

Tunel erako saneamendu- edo hornidura-sareari dagozkion erabilerez gain, plangintzako antolamendu-arau subsidiarioen zehaztapenek erantsitako lurraldeei ematen dien kalifikaziorako ezarri dituzten erabilerak baimenduko dira eremu horietan. Erabilera horietan muga hauek ezarriko dira:

- «Eraikitzea baimentzen da, baldin eta gainazaleko zimendatze mota bat erabiltzen bada (zapata edo lauza).
- Berriaz debekatzen da zimendatze sakona erabiltzea (harrizko substratuaren sabaira kargak transmititzea) lurzoruaren erabilera hori mugatzen duen bandaren barruan».

Horrela zehazturiko eremuei dagokien afekzio-bandak **HAMAR (10) METROKO** zabalera izango du eta eroanbidearen luzerako ardatzari dagokionez erdiratuta egongo da.

d) **Arau subsidiarioek emandako kalifikazioari eusten dioten eremuak eta erabilera-mugarik ez dutenak.**

Atal honetan sartzen diren lurzoruek “**Saneamendu-sare orokorrerako mugarik ez duen egungo erabilera**” eta “**Hornidura-sare orokorrerako mugarik ez duen egungo erabilera**” izeneko sinbologiaren bidez adierazita agertu behar dute kartografian, eta indarreko plangintzak baimendutako erabilerak saneamendu- edo hornidura-sare orokorraren ezarpenarekin bateragarriak diren eremuak dira.

Plangintzako antolamendu-arau subsidiarioek baimentzen dituzte erabilerak eremu horietan, kasu bakoitzean ezarritako kalifikaziorako, eta ez da berriazko mugarik ezartzen saneamendu- edo hornidura-sare orokorraren ezarpenagatik.

Hala ere, lurzoruaren kalifikazioak eraikitzea baimentzen duenean eta eraikuntza Ur Partzuergoko eroanbide baten gainean egin behar duenean edo eremu horretan aurrerago eroanbide bat izateko aukera dagoenean dagokion plangintzan horrela aurreikusita egoteagatik, tunel moduan eraikita, ziurtatu behar da eraikuntzak eraikitzeke erabili beharreko baliabide teknikoak (zimendatzeak, sotoen indusketak eta abar) egokiak direla tunelaren egitura ez kaltetzeko.

2. SANEAMENDU- ETA HORNIDURA-SISTEMA OROKORREN GARAPENA.

Eraikuntza-proiektuei dagozkien zehaztapenak.

Saneamendu- edo hornidura-sarearen ezaugarri espezifikoak direla eta (kasu bakoitzeko xehetasunek eta egoera bereziek izugarri baldintzatzen dute sare horren ezarpena), plangintzako antolamendu-arau subsidiarioen garapena, gai honi dagokionez eta arau horietan jasotzen diren afekzioen definizio zehatzari dagokionez, finkatu egingo da oro har kolektoreen, biltzaileen eta eroanbideen kontuan, eraikuntza-proiektuen bidez, obra egin ondoren egokiak diren plangintzako berdoitzeei kalterik egin gabe, kontuan izanda zer-nolakoak izango diren gutxi gorabehera proposatutako aldaketak.

Edonola ere, eraikuntza-proiektuek zehaztuko dute zer lurzoruk geratu behar dute aldi baterako kaltetuta, beren kalifikazioa galdu gabe, obrak egiteagatik.

XVIII. ERANSKINA**A:ZORTASUNA ERONAUTIKOEN ERAGINPEKO EREMUAK.**

1. Lurralde-plan partziala garatzen duten lurralde antolamenduko tresna berrien proposamenek, hain zuzen ere Bilboko Aireportuaren Zortasun Aeronautikoen eraginpean daudenek, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena behar dute behin-behinean onetsi baino lehen, edo antzeko izapidetzea, 297/2013 Errege Dekretuaren bidez aldaturiko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatu denarekin bat etorritz. Hala denean, segurtasunari buruzko azterlan aeronautikoa aurkeztuko da, baina behin betiko ezin onetsi daitezke Sustapen Ministerioak eginiko oharrak onartzen ez dituzten planak, Estatuaren eskumen eskusiboei dagokienez.
2. Zortasun aeronautikoen zaugarritasuna handitzea aurreikusten bada, AESAk egiaztatu egin behar du segurtasuna bermatzen dela eta, modu esanguratsuan, aireko eragiketen erregularitasuna, betiere araudi aeronautikoan posibilitate hori ezartzen bada, sustatzaileak aurkeztu behar duen eta AENAREN txosten teknikoa duen azterlan aeronautikoa edo pantailamenduari brruzkoa aurkeztuta.
3. Baldin eta zortasun aeronautikoen ondoriozko mugek ez badute ahalbidetzen LPP hau garatzeko hirigintza planek finkaturiko aprobetxamendu guztiak gauzatzea, inguruabar horrek ez dakar Sustapen Ministerioaren kalte-ordainik, ez aireportuko kudeatzailearen edo Aire Nabigazioko Zerbitzuak ematen dituenaren kalte-ordainik ere.
4. Honako hauek ezin hautsi ditzakete Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoak: eraikuntzak, instalazioak eta Lurralde Zati Planaren antolamenduaren eremuko bestelako edozein jarduketa, horien osagai guztiak barne (antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire egokituko ekipoak, igogailu-kaxak, kartelak, akaberako apaingarriak) eta eraikuntza horien gaineko beste edozein eranskin, baita eraikuntza egiteko -garabiak, etab.-, lurra edo objektu finkoak aldatzeko -zutoinak, antenak, aerosorgailuak, palak eta kartelak, barne, etab.- beharrezko bitarteko mekanikoak eta bide eta trenbideko galiboa, hain zuzen ere I.05 "zortasun aeronautikoak" deritzon planoan irudikaturikoak, salbu eta, Aireko Segurtasunaren Estatu Agentziaren ustetan (AES), segurtasuna arriskuan jartzen ez dela egiaztatzen bada edo aireontzien eragiketen erregularitasuna nabarmen aldatzen ez bada, 584/72 Dekretuaren egungo bertsioan ezarritako salbuespenekin bat etorritz.
5. Aerosorgailuen balizko instalazioari dagokionez, oso garaiak direnez eta horien palen luzera ere sartu behar denez, bermatu egin behar da Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoei buruzko araudia betetzen dela kasu guztietan. Gauza bera aplikatu behar da argindarra garraiatzeko lineetan, telekomunikazio azpiegituretan, hala nola telefonia antenetan eta mikro-uhinen lotuneetan eta, beren funtzionamendua dela-eta, goiko plataformetan kokatu behar diren gainerako egituretan.

6. Edozein eraikuntza, instalazio (zutoinak, antenak, aerosorgailuak –palak barne-, eraikuntzarako beharrezko bitartekoak (eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne), edo Bilboko Aireportuko Zortasun Aeronautikoen eraginpeko lurretan eginiko edozein landaketa egiteko, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESAs) aldeko akordioa beharko da aurretik, betiere 297/2013 Errege Dekretuaren bidez aldatutako 584/72 Dekretuko 30 eta 31. artikuluekin bat etorriz. Salbuespenez, 297/2013 Errege Dekretuaren bidez aldatutako 584/1972 Dekretuaren 33. artikulua araber, eraikuntzak edo instalazioak jarri ahal izango dira, baldin eta, zortasun aeronautikoen mugak gainditu arren, AESAren ustez egiaztatzen bada aireontzien eragiketen erregularitasuna nabarmen aldatzen ez dela edo balizko pantailamendua gertatzen bada. Horretarako, segurtasunari buruzko azterlan aeronautikoa aurkeztu ahal izango dute jarduketa berrien sustatzaileek.
7. 297/2013 Errege Dekretuaren bidez aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikulua araber, jarduerak mugatzeko zortasunaren menpe gelditzen da Bilboko Zortasun Aeronautikoen eremuko luraren gaineko proiektzio ortogonal, eta hori dela bide, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESAs) haren barruan kokatzen diren eta aireko eragiketarako edo instalazio irrati-elektrikoen funtzionamendu egokirako arriskua ekar dezaketen jarduerak debekatu, mugatu edo baldintzatu ditzake. Jarduera horiek ezartzeko edo egiteko ahalbideratuko diren lurren erabileretan ere aplikatuko da posibilitate hori, eta hauexek bilduko ditu, besteak beste:
 - a) Eragozpenak dituzten edo berekin ekar ditzaketen jarduerak, baldin eta turbulentziak eragin baditzakete.
 - b) Arriskua sor dezaketen edo nahasmendua edo akatsa eragin dezaketen argiak erabiltzea, laser igorgailuak edo islatzaileak barne.
 - e) Azalera handiak eta oso islatzaileak dakartzaten jarduerak, hain zuzen itsualdiak eragin ditzaketenak.
 - d) Aerodromoko mugimenduen gunearen inguruan faunaren jarduera susper dezaketen jarduerak.
 - e) Irradiazio ikusezinezko iturriak ezartzea edo martxan jartzea dakarten jarduerak, edo komunikazio, nabigazio eta zaintza aeronautikoen sistemen funtzionamendua eragotzi dezaketen edo eragin larria eragin dezaketen objektu finkoak edo mugikorak izatea.
 - f) Kea, behe-lainoa edo aireontzientzako arriskua dakarren bestelako edozein fenomeno sortzen duten instalazioak bideratzen dituzten jarduerak, edo instalazio horiek berekin dakartzatenak.
 - g) Aire propulzio edo euste baliabideak erabiltzea.

II. ERANSKINA, MARTXOAREN 22KO 52/2016 DEKRETUARENA

INGURUMEN-INPAKTUAREN BATERAKO EBALUAZIOAREN PROZEDURA ARAUTU DUEN
UZTAILAREN 22KO 183/2003 DEKRETUAREN 15. ARTIKULUAN XEDATURIK DAGOENAREN
ONDOREETARAKO ADIERAZPENA

Lurralde Plan Partzialetan Lurralde Antolamendurako Jarraibideak garatzen dira udal guneetan edo berauek mugatzen dituzten udalaz gaindiko eremuetan, halako moldez non, gune bakoitzerako, Jarraibideotan horien antolamendurako ezarriak dauden irizpide bereziak zehazten baitira.

Antolamendurako planen eta programen ingurumen-inpaktuaren garrantzia Europar Batasunak berak aintzatetsi zuen Europako Parlamentuaren 2001/42CE zuzentarauaren bidez. Zenbait planek eta programak ingurumenean dituzten ondoreen ebaluazioari buruzko da aipatu den zuzentaru hori. Plan eta programa horiek ebaluatzea zeharo funtsezkoa da, zeren eta horietan ezartzen baitira udal guneetan eta udalaz gaindiko eremuetan garrantzizkotzat jotzen den ingurumen-inpaktua izango duten proiektu eta azpiegitura handien kokaguneak erabakitzeke irizpide estrategikoak, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Prozedura araupetu duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedaturik dagoena oinarri hartuz.

Mungiako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala prozeduran horren pean jarri da. Prozedura horretan, kontsulta publikoen prozesua sartu da, eta lurraldearen osagai guztien kudeaketaren alorrean jarduten duten administrazio-eragileek beren ekarpenak egin dituzte, bai eta Mungiako eremu funtzionalari dagozkion tokiko erakundeek eta hiritarrek ere.

Mungiako eremu funtzionalaren etorkizunerako lurralde-ereduaren iraunaldia 16 urtekoa izango da, eta bertako biztanleria, enplegu, lurzorua atzemate eta garapen-aukerei buruzko aurreikuspenak egin ditu.

Lurraldearen diagnostiko objektiboan oinarritzen ditu bere proposamenak LPPK, irizpide analitiko eta teknikoen arabera. Ildo horri jarraiki, ondoko hau da plan horren xedea: Mungiako eremu funtzionalaren eta udalerrien eskaletan erabakiak hartzeko eta lurralde-politikak ezartzeko tresnak datu objektiboetan oinarritzea; horretarako, informazioa emateko fasea, diagnostikoa egiteko fasea eta jarduketarako estrategiak formulatzeko fasea elkarrekin integratzeko bitartekoak ezarri dira, prozesuaren fase guztietan taldearen, kasuan kasuko udalen, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketa naturala eta etengabea bideratuz.

Proposamenok lurraldearen abegi-bokazioaren eta horretarako gaitasunaren emaitzak dira, planaren garapen-prozesuan erakutsi denez: haran zabalak, kostaldeko paisaia, baso ugariak, anitz ibai, kultura-ondarea, nekazaritza eta abeltzaintza alorreko tradizioa eta abar.

1. Ingurunearen deskribapena.

Lurralde honetan, natura eta paisaia arloko lau unitate daude aldi berean:

Horietako bat Bakioko Haranak eta udalerrri horren kostaldeak osatzen dute, esparruaren iparraldean. Sorrera morfologikoari dagokionez, unitate horretan bat egiten dute itsasertzak eta Estepona ibaiaren itsas harro txikiak egituratzen duen ibarra. Kostaldeko landazabalen paisaia txakolin-mahastiekin janzten da; horrezaz gainera, hirigintzako garapen aktiboa duen udalerrria da, kostaldeak duen erakarpeneragina dela bide. Unitate horren barruan, ekologia, natura eta paisaia alorreko balio handia duten hainbat gune berezi ere sartzen dira. Plan honetan, planoetan ikusten denez, iparraldeko haran honen eta kostaldearen egitura osatuko du, ekipamendu berriak eta aisialdirako guneak eta espazio libre berriak ezarriz.

Beste unitate bat Jata-Sollubeko mendigunea da. Mendigune hori hesi naturala da eta, paisaiari dagokionez, ezaugarri homogeenak ditu. Unitate horretan, kanpoko espezieak landatu diren sail handiak daude, eta baso horietan, batik bat, itsas pinua, intsinis pinua eta eukaliptoak ikus ditzakegu. Baso horiek zeharo mugatzen dituzte zohikaztegi hezeetako ameztiei, larre azidofiloiei eta txilardiei egokituko litzaizkiekeen habitat naturalak. Kostaldearen ipar isurialdeko troketan natura-ingurune bereziak dituzten errekaen iturriak daude; izan ere, habitat horietan, antzinatearen aztarna diren landare paleotropikalak aurki ditzakegu. Mendigune horren beste ezaugarri bat haren tontorren eta isurialdeen ikusgarritasun nabarmena da, eta bai ingurune horretan dagoen biztanle-kopuru urria ere. Hori dela eta, unitate hori aski "malkartsua" da, lurraldeko gainerako guneak ez bezalakoa. Unitate horri dagokionez, haren ingurumen- eta paisaia-ezaugarrien kontserbazioa eta herri-guneen kolmatazioa ezarriko daude Plan honetan.

Mungia-Butroeko harana eta Butroeko ibai-sistema Jata-Sollubeko mendigunearen hego isurialdeen beheko lurretan hasten da. Haren ezaugarriak behinena, Butroeko ibaiaren eta beronen ibaiadarren ondoko ibarraren hedadura zabala da, halako moldez non erreka horiek guztiok ibaibideen eta tarteko ibarren benetako labirintoa eratzen baitute. Hango paisaia nagusia euskal baserriari dagokion landazabal tradizionala da, baina bi aldaerarekin: ibarra eta muinoak. Horiez gainera, landa-guneek, baselizek eta baserriek osatzen dute hango populatzea. Gaur egun, sektore horretako gune batzuetan alde urbanizatuen garapen aktiboa nabarmentzen da; garapen horrek, biztanle-gune nagusiak ez ezik, landa-ingurunea ere ukitzen du, jarraiko hiri-paisaia eratuz eta natura-ingurunea artifizialtzea eraginez. Natura-ingurunearen eraldatze-maila nabarmen horrek, baina, ez ditu unitatearen ezaugarri natural adierazgarrienak ostentzen, hau da, ibai-sistemarekin loturik dauden habitata: maila ezberdineko ibaibideak, ibaiertzeko haltzadiak, alubioi-basoak, belardiak, ihidoiak, hostozabalen basotxoak eta abar. Itsasadarreko itsasaldiak Butroeko ibaiaren beheko ibaibidean ere nabarmentzen dira, Gatika aldean, eta horrek sektorearen bioaniztasuna areagotzen du. Sektore honen lehenespenezko ingurumen-problematikak eragin nabaria dauka ibai-ingurunearen hala moduzko kalitatean eta geroz eta handiagoa den lurzoru-artifizialtzean. Planean ondokoak daude ezarririk: herri-guneak finkatzea, Mungian jarduera ekonomikoetarako esparru berriak eta ekipamendu berriak paratzea eta Butroeko ibaiari dagozkion ibarretako ibai-sistema zaindu eta lehengoratzea, alde batetik, ikuspegi hidrológico eta ekologikotik begiratuta, eta bestetik, bioaniztasunaren ikuspegitik begiratuta, betiere egun badiren nekazaritza eta abeltzaintzako lurren kudeaketa iraunkorrarekin bateragarriak diren bitartekoak baliatuz.

Hegoaldeko erliebeen sektoreak Oizko sinklinalaren lurrekin ixten du Mungiako eremu funtzionalari doakion eremu geologikoa. Hango paisaiari dagokionez, goialdeetako ertzetan kanpoko espezieak landatu diren basoak ikus ditzakegu, eta mendi-magaletan, berriz, nekazaritza eta abeltzaintzako landazabalak daude. Ezaugarri berezi modura, esparruaren mendebaldeko erdialdearen paisaia eratzen duten bi egoitza-urbanizazio handi daude sektore horretan. Horiei dagokienez, horien kolmatazioa eta gune konplexu horien balio eta aukerak bultzatzea xede duten mota askotako proiektuen integrazioa eta koordinazioa daude ezarririk Plan honetan.

Izatez, Plan hau asmo handikoa da natura-gunearen balioak babesteari eta lur-atzematea mugatzeari dagokionez; horretarako, ondoko arloak jorratzea ezarri du: ondare urbanizatu eta eraikia optimizatzea, lur-atzematearen mugakide diren esparruak mugatzeko irizpide murriztaileak zehaztea eta, ingurumen-iraunkortasunari doazkion irizpideak aplikatuz, harat-honat ibiltzeko ibilgailu pribatuaz at dauden aukerak sustatuz.

2. Helburu nagusiak.

Atal honi dagokionez, Mungiako eremu funtzionalaren garapen-eredua honako helburu nagusi hauek erdieste aldera planteatu da:

- Lurzoruari dagokion kontsumoa mugatzea.
- Eredu mistoa sustatzea, jarduera ekonomikoak eta egoitza-erabilerak integratuz.
- Natura-gunearen eta landa-gunearen kontserbazioa.
- Garraio publikoarekin eta mugikortasunerako aukera bereziekin loturik dagoen irisgarritasuna hobetzea.

3. Ezaugarritzea.

Mungiako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean (LPP) ondoko udal mugarte hauek sartzen dira: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungia.

Mungiako eremu funtzionalak zenbait arazo eta aukera ditu. Honako hauek dira horietan aipagarrienak:

- Butroe ibaiaren ibai-sistemaren egoera eta kalitate urria.
- Mungiako eremu funtzionalean etxebizitzaren eskari endogenoa eta eskari exogenoa ase beharra (Bilboko Metropolitik eratorritako 1.500 etxebizitza).
- Egoitza-aldeen alboan kokaturik dauden industrialdeak, egoitza-erabilerarekin bateraezinak diren jarduerak dituztenak.
- Mugikortasun handia eremu funtzionalean.
- Mungian zentralizaturik dauden ekipamenduak.

4. Proposamena.

Oinarri horiei doakienez, Planaren garapenean zehar ebaluatu diren aukerak aukera erabat estrategikoak izan dira, garapen ekonomikoa eta egoitza-erabileraren garapen neurtua eta proportzioso hazkundea izango duena sustatze aldera xedatutakoak, betiere ingurunearen balio naturalen egonkortasuna kolokan jartzeke eta balio horiek Planean proposatzen diren jarduketa guztien bidez gauzatzeko tresnak baliatuz.

Planaren alderdi zehatzen alorrerako baloratu diren aukera horiei doakienez, ondoko alderdi estrategiko hauek jorratu dira:

- Natura-ingurunearen antolamendua.

Eremu funtzionalaren natura-baliabideak berauen balio naturalaren arabera antolatzeko kategoriak ezarri dira, bai eta horiek kudeatzeko zenbait figura ere. Katetoria horiek, kasu batzuetan, Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideetan (LAJ) ezarririk dauden erabilerak jasotzen dituen matrize batekin araupetuko dira, eta beste kasu batzuetan, berriz, indarrean dauden beren beregiko arautegien edo lege berezien arabera.

Ildo horri jarraiki, Lurralde Plan Partzialean Butroeko Ibai Igarobide Ekologikoa sortzea proposatzen da, Urdaibai Biosfera Erreserbarekin bat egingo duena, natura-gune jarraitua eratze aldera.

- Egoitza-ekarlekuak

LPPren egoitza-kuantifikazioaren helburua udalerrri bakoitzean eremu funtzionalerako kalkulatzten diren egiazko beharizanei erantzutea da, 16 urteko iraunaldia izango duen planaren barruan.

LPPk lurzoru berrien kontsumoa geldiaraztea proposatzen du, eta horretarako ondare eraikia optimizatuz estali behar lirateke, lehenespen gisa, kasuan kasuko beharizanak (hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz, egun badiren erakinak zaharberrituz edota lurzoru hutsari dentsitate gehiago esleituz). Horrezaz gainera, lur-atzematearen mugakide diren esparruak ere zehaztu ditu; behar izanez gero, esparru horiek Planaren antolamenduaren barruan sartuko dira.

Esparru horiek mugatzeko, honako egokitasun-irizpide hauek erabili dira: % 15eko beherako aldapa duten lurzoruak, hiru birgertatze-aldietan uholdeetako edozeinek ukitu ez dituzten lurzoruak, LPPren ingurune fisikoaren antolamendurako zehaztu diren alde berezi edota lehenespenezko guneetakoren batean sartzen ez diren lurzoruak, eta bertoko basoek edo Erkidegoaren lehenespenezko interesa duten habitatek atzematen ez dituzten lurzoruak.

Esparru horietatik at, ez da haizu ezelako hirigintzako hazkunderik, eta beti bidezkotu beharko da kasuan kasuko lurzoruak atzemateko beharizana.

Mungiako eremu funtzionalean Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeke lurzoruaren banaketa 2/2006 Legearen eta 105/2008 eta 123/2012 dekretuen bidez aurretiaz ezarria dago. Hazkundera Mungiako Udalerrirantz bideratzea proposatzen da, berau baita eremu funtzionalaren udalerrri nagusia.

- Jarduera ekonomikoak

LPPk lurzoru berriaren kontsumoa mugatzea proposatzen du; horretarako, kasuan-kasuan sumatzen diren beharrianak, batik bat, jarduera ekonomikoen esparruak biziberrituz eta indarrean dagoen plangintzaren kapazitate hutsa baliatuz estaliko dira, betiere horiek gauzatu beharra badago, lur-atzematearen mugakide diren esparruen barruan lurzoru berriak garatuz.

Egoitza-erabilerekin bateraezinak diren eta ibilgailu astunen trafikoaren menpekoak diren jarduerak, hau da, industria arloari zuzenean dagozkion jarduerak ezartzeko erreserbatuko dira hirigunetik kanpoko lurzoru horiek.

Merkataritza arloko eta hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoei dagokienez, jarduera horiek hiriguneen barruan koka daitezke, egoitza-erabilerekin eta zuzkiduren alorreko erabilerekin bateragarriak direlako. Horrenbestez, hirugarren sektoreko jarduera ekonomiko berriak hiriguneetatik kanpoko poligonoetan kokatzea saihestu beharko da.

Halaber, Jarduera Ekonomikoen Erreserba Estrategikoa ezarri da, eskura dagoen eskaintzaren zatirik handiena sendotuz gero edo lurzoru-azalera handia behar duen aukera estrategikoren baten eskaria gertatuz gero abiaraziko litzatekeena.

- Garraioaren arloko azpiegiturak

LPPn proposatzen den mugikortasun-ereduak motorrik gabeko garraiobideak erabiltzea planteatzen du, eta hiri trinkoari eta erabileren nahasturari dagokien abiaburuak jarraitzeko aukera hautatu du, mugikortasun iraunkorraren aurkako garapen-joerak zuzentzen saiatuz.

Mugikortasun-sare alternatiboa osatze aldera zenbait jarduketa proposatzen dira, sare hori ibilgailu motordunaren benetako alternatiba bilaka dadin; horretarako, jarduera-esparru eta egoitza-esparru guztien arteko komunikazioa errazteko trazatu orientagarriak planteatzen dira LPPn.

Bide-azpiegituren proposamenei dagokienez, kasu askotan azpiegitura horiek sektoreko plangintzan ezarririk daude, eta beste zenbait kasutan, berriz, garapen berrien antolamenduaren planteamendu berriei doazkie. Jarduketa-mota horiek azpiegitura berriak burutzea eragiten du, egun baden sareari funtzionaltasun hobea emate aldera eta aurreikusirik dauden trafiko-fluxuen ondoriozko prestazioei egitura egokiak taxutze aldera.

- Zerbitzuen oinarriko azpiegiturak

Gai jakin batzuetan jarraitu beharreko zenbait estrategia planteatzen dira LPPn. Ondoko hauek dira gaiok: ur-hornidura, saneamendua, hondakin solidoak eta lurzoru kutsatuak, energia, elektrizitatea, gasa, telekomunikazioak eta obra hidraulikoak. Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategiaren helburuak erdiestea da estrategia horien guztien helburua. Proposamen horiek orientagarriak dira eta udal plangintzei dagokie berorien mugaketa egokia zehaztea eta lurzoruak kalifikatzea, baldin eta hori guztia azpiegituren izaki arduradunek etorkizunerako aurreikusten dituzten azpiegituron burutzapen-proiektuekin bat badator.

Halaber, Bilboko Ur Partzuergoak egindako alternatiben ezarpenari buruzko azterlanaren emaitzako hondakin-uren araztegiaren kokagunea ere jasotzen da LPPn. Lurzoru-erreserba hori inoizkotarako alternatiba bat eskura izate aldera ezarri da, zeren eta gerta baitaiteke Mungiako instalazioa uneren batean eskualdeko beharrianak asetzeko aski ez izatea.

- Ekipamenduak

LPP honen lurralde-ereduan sendotu egin dira egun badiren udalez gaindiko ekipamenduak, eta hezkuntza, osasun, gizarte-zerbitzu, kirol, kultura eta suhiltzaile-etxeen alorretako ekipamenduak hedarazteko eta ezartzeko behar diren esku-hartzeak proposatzen ditu.

5. Izapidetzea eta partaidetza.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko Sailburuordetzak, 2010eko otsailaren 10eko Ebazpenaren bidez, Mungiako LPPren ingurumen-inpaktuari buruzko Aurretiazko Txostena (IIAT) egin zuen. Txostenean ezartzen diren alderdi guztiak, eta bai alegazioen erantzunak eta gainerako aldarazpenak ere, Mungiako eremu funtzionalaren LPPren ingurumen-iraunkortasunari buruzko 2011ko uztailako Txostenaren Testu Bateginean biltzen dira.

Ondorik, 2012ko otsailaren 20an, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten berria egin zuen, eta horren ondorioz, IITren Txosten Osagarria idatzi zen 2012ko maiatzean.

Plana izapidetzean egindako kontsulten ondorioz, hainbat erakundek eta hiritarrek funtsezkoak izan ziren ekarpenak egin zituzten Planaren proposamenak lurraldearen benetako errealitateari eta haren etorkizunerako garapenari egokiro doitze aldera. Hasierako Onespenaren Agiria jendaurrera azaltzeko izapidearen ondorio gisa, guztira berrogeita lau iradokizun-idazki aurkeztu ziren. Honela sailka ditzakegu, aurkezleen arabera: zortzi idazki Udaletatik etorri ziren, hiru idazki alderdi politikoetatik, hamaika idazki lurralde-izakietatik, sei idazki elkarteetatik eta hamabost idazki hiritarrengandik; horiez gainera, administrazioek ere zenbait ekarpen egin zituzten. Alde batetik, alegazioei banan banako erantzuna eman zitzaien, alegazio bakoitzaren arabera, eta bestetik, alegazio-idazki horien ondorioz sortutako arazoak ebaztea planteatu zen, agirian sumatutako akatsak ongitzeaz batera.

Alegazio berrien onespen partziala kontuan hartuz.

EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenetan eta ingurumen-inpaktuaren Aurretzako Txostenean eskatzen ziren zenbait aldarazpen egin ziren. Aldarazpenon gaiak ondoko hauek izan ziren: sektore ezberdinen eskariak, ingurune fisikoaren kategorizazioa, nekazaritza eta abeltzaintza alorreko jarduera eta politika, uholdeak jasateko arriskua, landa-guneak, egoitzaren arloko garapen berrietarako irizpideak, Jarduera Ekonomikoen gaineko proposamenak, garraioen eta zerbitzuen azpiegiturak, ekipamenduak, kultura-ondarea eta eremu funtzionalaren izendura. Aldarazpenok egin ondorik, LPP behin-behinean onesteko agiria idatzi zen. Agiri hori 2014ko urtarrilaren 28an onetsi zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez. Halaber, Planari dagokion genero-inpaktuari doakion txostena ere egin zen fase horretan.

Ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenak, Ingurumenaren arloko Administrazioaren 2014ko apirilaren 24ko ebazpenaren bidez argitaratu zenak, zenbait ingurumen-alderdi iradoki ditu. Iradokizun horiek Mungiako eremu funtzionalaren Lurralde Planean jaso behar dira, alderdi horiek guztiak betetze aldera ondoko jarraibide hauekin bat etorriz:

- Kutsaturik egon daitezkeen lurzorua garbitzea lehenesten da, lurzoru urbanizaezinari dagokion birsailkapenaren alternatiba gisa, Mungiako eremu funtzionalaren LPPren antolamendurako arauen 70, 73 eta 136.3. artikuluetan ezarriko dagoenaren bitartez.
- Abandonatuta dauden harrobi batzuk Ingurumenaren Hobekuntzarako jarduketari loturik dauden esparru gisa sartu dira Planean. Esparru horiek agiri osoaren lan orokorrari dagokion eskalaren arabera (e/ 1:20.000) kartografiatu dira.

- LPPn, "C1 – babespeko landazabaltzat" jotzen diren guneak sartzen dira lur-atzematearen mugakide diren esparruen barruan. Itxurazko kontraesan hori antolamendurako arauen 41. artikuluan jasotzen den irizpidea oinarri hartuz azaltzen da; izan ere, artikuluko horren xedea ondoko hau da, besteak beste: egun badiren hiriguneekin loturik dauden garapen-arlo berriak sortzea saihestea. Horri dagokionez, lur-atzematearen mugakide diren esparru horien helburuak, definizioa eta ezaugarriak ezartzen dira arauen 40, 41 eta 43. Kapituluetan, eta bai lurzoru hutsek lur-atzematearen mugakide diren esparruak eratzeko duten egokitasuna adierazteko irizpideak ere. Era berean, erabileren matrizean ezarriko dagoenaren arabera, eraikuntzako erabilera guztiak, salbu eta onura publiko edo/eta gizartearen interesekoak eta ingurumeneko ondorioak aurretiaz aztertu ondorik onargarriak izango diren nekazaritza eta abeltzaintza jarduerekin loturik dauden erabilerak, debekaturik daude lurralde osoan, nekazaritzako lurzoruen balio estrategikoa zaintze aldera.
- IITn zenbait babes-neurri eta neurri zuzentzaile generiko ezartzen dira LPPren proposamenak garatzearen ondoriozko balizko afektazioak minimizatzeko. LPPren idazketaren eskala dela eta, hark ezar daitekeen zehaztapen-maila erabat mugatua dela kontuan hartuz, ez da konpentsaziozko neurririk ezarri. Horregatik, udal plangintza orokorreko edo tokiko administrazio eskudunek proposatu behar dituzte konpentsaziozko neurri egokiak, egungo problematika zehatz-mehatz aztertu ostean eta proposamen zehatzak garatzearen ondorio gisa. Iradokizun modura, balizko neurriei dagokienez, LPPk ondokoa gomendatzen du konpentsaziozko neurri generiko legeak: hirigintzako garapenen edo azpiegituren eraginez ezabatu edo ukitu den zuhaitz- edo zuhaixka-landaretza halako bi landatzea udalerraren beste tokiren batean edo lehengoratzeko ekologikoa behar duten beste gune batzuetan.
- LPPren xedea da, oro har, energia sorrarazteko bitarteko berriztagarrien aprobetxamendua bultzatzea, klimaren aldaketari aurre egiteko estrategia gisa. Ildo horri jarraiki, parke eoliko deszentralizatuak dagozkien instalazioak (D 4.4. Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak) baimentzen eta araupetzen ditu Erabileren Araupeketarako Matrizearen bidez, baina baldintza bat jartzen du: Butroe ibaiaren ibai-sistemari (A2b), paisaia eta jolas arloko interesguneei (A3) eta Lurrazaleko Uren Babesguneei (A4) dagokienez ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egitea, natura eta paisaia alorreko baliorik handiena duten guneak direlako; debeku da instalazio horiek kostaldeko lur-zerrendan eta Sollube-Garbolako troketan (A2a) ezartzea.

6. Aukeratu den soluzioa bidezkotzea.

Arestian zehaztu denez, LPPren izapidetze zaila dela-eta, zenbait aldarazpen egin dira Aurrerapen, Hasiera Onespen eta Behin-behineko Onespen faseei dagozkien agirietan. Hala ere, argitu behar dugu aldarazpen horiek inola ere ez dituztela Planean proposatzen den lurralde-eredua zehazten duten irizpideak aldarazten, eta egin diren aldarazpen guztiak behar bezala jarri direla ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozesuaren pean. Nagusiki, garapen berriei dagozkien esparruak eratzeko proposamen batzuk aldaraztea bidezkotzen duten zioek alderdi hauek dituzte jorragai:

- Uholdeen aldizkotasun-epealdien mugatze eguneratu berria.
- Eusko Jaurlaritzaren Bioaniztasun eta Ingurumenaren Plangintzarako Zuzendaritzaren txostenak, proposamenetako batzuen ingurumen-inpaktuari buruzko ohartarazpenak egin baitituzte.
- Zenbait udalek eta interesatuk proposamenei dagozkien alegazioak igorri dituzte jendaurrera azaltzeko fasearen barruan. Horrezaz gainera, udalerrri batzuek beren plangintzen aldarazpenak ere onetsi dituzte, LPPren proposamen zehatz batzuk ukitzen baitzituzten.

Alternatiba guztien deskribapena, alternatibok ingurumenean izan dezaketen eraginaren ebaluazioa eta horren guztiaren bidezkotzea IITren 3. eta 4. kapituluetan aurkezten dira. 3. kapituluan, ebaluatu diren alternatiba guztiak aurkezten dira, bai eta proposamenak aldaraztea eta azken alternatiba hautatzea eragin duten zioen hierarkizazioa eta bidezkotzea; 4. kapituluan, berriz, proposamen bakoitzaren balizko ingurumen-inpaktuaren ezaugarritzea eta balorazioa aurkezten dira.

IIT garatzerakoan egindako lurraldearen diagnostikoaren eta ingurumen-inpaktuen ebaluazioaren emaitza gisa, ingurune fisikoaren, natura-ingurunearen eta giza ingurunearen osagai nagusiak identifikatu dira, eta bai Planean proposatzen diren jarduerak lantzeak eragingo lituzkeen inpaktuak ere. Inpaktu horiek, bai inpaktu positiboek eta bai inpaktu negatiboek ere, prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak beharko dituzte; hori ez ezik, bestelako jarraipena egitea ere beharko dute, Ingurumena Zaintzeko Plana, arestion aipatu dugun IITren barruko Ingurumen Adierazkarien sistema oinarri duena, garatuz.

Analisi horren ondorioz, hasierako proposamen batzuk baztertu egin ziren, garapen iraunkorraren ikuspegitik horien inpaktua kritikotzat eta Planaren helburu nagusiekiko bateraezintzat jotzen zelako, betiere Mungiaiko eremu funtzionalaren barrutiari dagokionez.

Hasiera-hasieratik LPP zenbait bider birformulatu ondoren, eta aurreko bertsioetan IITren ondoriozko prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatu ostean, LPPn ezarritako proposamenetatik ezin ere ez da ingurumenarekiko bateraezintzat jotzen.

- Hiriko egitateari dagozkion proposamenei buruz.

Egoitza-erabileraren mugakide diren esparruei doakienez, Mungiako udalerrriak eremu funtzionalaren hiriburu gisa duen funtzioa aitortzen da Planean (lurralde-ereduaren emaitza gisa); hala ere, kontuan hartu da, baita, beste udalerrri batzuek ere habitat alternatibo legez izan dezaketen funtzionaltasuna. Planak helburutzat du kanpoko berrorka erdiestea (osagai endogenoei doakienez), eremu funtzionaleko berezko biztanleriaren inertzia demografikoa dela bide. Horrenbestez, Bakio, Laukiz eta Mungiako udalerrriak birtrinkotzeaz gain, Arrieta, Fruiz, Mungia, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Gatikako herri-guneak sendotzea ere proposatu da Plan hionetan.

Halaber, ondoko hauek burutzea proposatu da: eremu funtzionalaren azpiegitura guztiak hobetu eta zabaltzea, Jarduera Ekonomikoetarako gune berriak ezartzea eta industrialde eta ezarleku inaktiboak berpizteko estrategiak bideratzea.

Honela, haztatu diren aurreikuspenei eta ingurunearen baldintza naturalei egokitu ostean, identifikatu diren ingurumen-inpaktu negatiboetako ezeinek ere ez du eragiten inpaktu kritikorik; horiek oso adierazgarritzat jotzen dira kasurik txarrean ere (Gatika, Maruri-Jatabe eta Mungiako esparruetarako egoitza-zabalkuntzari dagokion proposamena, Mungian jarduera ekonomikoa ezartzeko proposamena eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen erreserba estrategikoa), eta hainbestez, prebentzio eta zuzentze arloetan aurreikusi diren neurriak leundu edo zuzendu egin ditzakete sor daitezkeen inpaktuak.

- Ingurune fisikoaren antolamendurako proposamenei buruz

Ingurune fisikoaren antolamendurako kategorien alorrean, eta bai horiei dagozkien baldintzen eta beroriei loturik dagoen araubidearen alorrean ere, oro har, ingurumen-inpaktu positiboak erregistratzen dira, halako moldez non, azken batean, proposamen guztiak ingurumenaren arloan egokiak direla baloratu baita.

7. Jarraipena.

Planak ingurumenean izan ditzakeen ondoreen jarraipenerako neurri legez, Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren agirian Planaren Ondoreen Gainikuspenetarako Programa sartu da, ingurumenaren alorreko adierazkari-sistema oinarri hartuz. Programa hori organo eskudun egokiak burutu beharko du eta Planaren berrikuspenetarako epeekin koordinatuz gauzatuko da.

Planaren zehaztapenak ikusita, eta haren edukiak honako agiri honetan eta laburpen-agirian hiritar eta interesatu guztien eskura daudela kontuan hartuz, ez dugu beharrezkotzat jo tekniko ez den laburpena eranstea.